

ttipi-ttapa



Agoitz IRATZOKI | Endara Bizirik plataforma

«PARKE EOLIKOAREKIN AUZOBERRI AUZOAREN BIZIRAUPENA KOLOKAN DAGO»

Nordex enpresak 11 haize errotako parke eolikoa eraiki nahi du Lesakako Auzoberri auzoan. Auzotarrek, ordea, ezezko argia erran diote proiektuari eta plataforma sortu dute. Lesakako bi udal taldeak ere kontra daude / 10

5.927 ikaslek hasi dute ikasturtea

Maskara soinean, distantzia mantenduz, garbitasuna zainduz... Horiek dira ezohiko ikasturte honen ezaugarriak. / 20

SINADURAK



«Oraindik tarte handia dago euskararen ezagutzatik erabilerara»

Ibilbide luzea eta oparoa egiten ari da Paskual Rekalde amaiurtarra euskararen munduan. Koska bat goiti eginez, berriki euskaltzain oso izendatu du Euskaltzaindiak. / 8



21 bertso eskola sortu nahi ditu Bertsozale Elkarteak eskualdean / 28

Abian! egitasmoaren baitan kultur ekitaldi ugari antolatu dituzte Saran / 40



ZOKKETA / 52

BERA LESAKA

Agenda 2020

IRAILA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

19

LARUNBATA

DANTZA EMANALDIA

Festamentua
(Tio Teronen semeak)

19:00 Herriko etxeko plazan
(eguraldi txarra eginez gero, Altzateko pilotalekuan)

BERA

25

ORTZIRALEA

IPUIN KONTALARIA

Ines Bengoa
Kamishibai

18:00 Herri liburutegian
5-8 Urte

BERA

27

IGANDEA

NAFARROAKO ANTZOKI SAREAREN ZIRKUITUA

ANTZERKIA

Etixerik txikiena
(Yarleku)

17:00 Kultur etxea. Sarrera: 4€

Iraupena: 55 min
Adina: 6 urtetik goiti
Antolatzaileak:
Bafarroako Antzoki Sarea eta Berako Udala
Diruz laguntzen du:
Nafarroako Gobernua

CIRCUITO DE LA
RED DE TEATROS
DE NAVARRA

NAFARROAKO
ANTZOKI SAREAREN
ZIRKUITUA

BERA

18-19

ORTZIRALEA
LARUNBATA

EHUKO UDA IKASTAROAK

Irakurketaren eta idazketaren garapenaren transtronoak haurrengan

Orduetgia
Ortziralea 18, 16:00-20:00
eta larunbata 19, 10:00-18:00
Lekua Kultur etxea
Hizkuntza Gaztelania
Informazioa eta izen-emateak
www.uik.eus

LESAKA

GURE IZAERA
KULTURA
HIZKUNTZA LEHENA.

GEUREA LEHENA.

1



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Ipurtargiak itzaltzen ari dira

Bart iluntzean ipurtargi bila atera naiz. Goiko errotaraino igo naiz alerik aurkitu gabe Beatrizekin topo egin eta bat erakutsi didan arte. Etxera bueltan eta aspaldiko partez, beste hiru aurkitu ditut. Poza hartu dut.

Intsektu hauek barraskiloak jan eta horien populazioak nolabait orekatzin dituzte. Emeek erreakzio kimiko baten bidez argia egiteko gaitasuna dute arrak erakarri eta ugaltzeko. Tarteka jendea antzeko teknika erabiltzen ikusi dut herriko jaietan argia egiten duten betaurrekoak jantzita.

Dirudienez, eta gizakiok eragindako aldaketan ondorioz, ipurtargiek martxa txarra daramate munduan zehar. Batetik, hauen bizilekua eraldatzeak eta nekazaritzan produktu kimikoak erabiltzeak kalte handia egin die. Gainera, gure argi artifizialek ipurtargiak nahasi egiten dituzte. Beharbada, une honetan bertan izanen duzu etxean alferrik piztutako argiren bat. Eta argia itzalita ingurumena eta zure patrikari mesede egiteaz gain, beharbada, ipurtargiei elkar aurkitzen lagunduko diezu.

**«ARGIA ITZALITA
IPURTARGIEI ELKAR
AURKITZEN
LAGUNDUKO DIEZU»**



EZPALA

AITOR AROTZEN A LBIZU

Normaltasun berriko lapurreta

Sudurra eta ahoa estaltzen dizkion maskara kendu eta 'Hau atrako bat da!' ozen oihukatu du, PCR proban positibo eman duela azaltzen duen agiria bankuko langile izituaren begien parean astintzen duen bitartean. Bertze bulegariak alarma-botoia sakatzea pentsatu du, baina desinfektatu gabe dagoela gogoratu du. Maskara berriz paratu eta diruarekin alde egin du.

NABARMENTZEKOAK



**CANDIDA
JAUREGI MAGIRENA**
105 URTE



**MIKEL
NIEVE ITURRALDE**
TXIRRINDULARIA

105 urterekin, Candida Jauregi Magirena da baztan-darrik zaharrena. Amaiurko Salaberriko Bordan sortua (1915eko irailaren 3an), Joxe Indarekin ezkondu zenetik Arginean bizi da.

Mitchelton-Scott taldean ari den leitzarra da Frantziako Tourrean ari den eskualdeko txirrindulari bakarra. 21 etapen ondotik, irailaren 20an Parisen bukatuko den itzulian ari da lanean.

ATZERA BEGIRA



2010-09-16 · TTIPI-TTAPA · 526 zk.

Amaiurko indusketa lanak hizpide

Duela hamar urteko lanen emaitza «bisitarientzat ikusgarria» izan zela erran zuen TTIPI-TTAPAN Amaiurko Gazteluko indusketa lanen arduradun eta Aranzadi Zientzia Elkartekeko Juntxo Agirre Mauleonek: «Lehenengoz, gaztelura jatorrizko bidetik sar daiteke eta fase guztiak ikusgai daude». «1635eko gotorlekuaren diamante punta bat osorik aurkitu eta mugatu dugu. XVI. mendean espainolek eraikitako bertze gotorleku bat ere bai, eta Erdi Aroko bigarren harresiaren bi dorreak eta tarteko harresia bistan utzi ditugu. Barnean, XIV. mendeko harresia bortz dorreekin eta sarrera bat bistan gelditu dira». Aztarnen artean, «ikusgarriena 1,1 metroko ezpata oso bat» izan zela aipatu zuen, edo «14 bat kiloko kainoi bolak». Egun Amaiurko arkeologia zentroan daude.



Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria

Aitor Arotzena

Erredakzioa

Gurutze Pikabea

Nerea Bazterrika

Eneritz Iraola

Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

Usoa Vicente

Berriemakileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,

Aranxa eta Iraia, Irune Elizagoien,

Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Fermin Etxekolonea,

Aintzane Leiza, Pablo Irastortza,

Maitte, Ana eta Itziar, Juan Mari

Barriola, Marga Erdozain, Maitane

Maritorea, Aranxa Iturralde,

Aranxa Gamio, Jaione Ariztegi,

Jaione Zabalza, Nerea Mortalena,

Virginia Oteiza, Pierre Bastres,

Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier

Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione

Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea

Pello Apeztebea

Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

Administrazioa

Amaia Goia

Lege Gordailua

NA-1324/85

ISSN

1578-4673

Tirada

6.000 ale

Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizueta, Arano, Areso,
Baztan, Sara eta Senpereko udalak,
Malerrekako Zerbitzuen Mankom.,
Zugarramurdiko Akelarre elkarte

2020ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	39€
Leitza	28€
Hego Euskal Herria	47€
Ipar Euskal Herria, Europa	86€
Amerika eta Australia	139€



KOLABORAZIOAK

MIXEL GEREKA ZELAIA

D... Derrigorrez

D hizkiarekin bat dator 'derrigorrez', baita bizitzea tokatzen ari zaigun 'denbora' ere, eta honekin batera desesperazioa, deserosotasuna, despistea, desastrea, desinformazioa eta deabruak.

Deabruak dilin-dalan.

Deabruak aipatu eta doktrina datorkit burura. Ongi oroi-tzen dut umetan *señorita* Bisi zenarekin buruz ikasten genuen gaztelaniazko katixima edo *katezismoko* lehenengo bi galderek ziotena: Kristaua zara? Eta guk, bai, kristaua naiz Jainkoaren graziagatik. Zer esan nahi du kristauak? Kristauak Kristoren dizipulua esan nahi du. Guretzat derrigorrez ikasi behar genituen esanahi argi gabeko hitzak. Infernuetako deabruengandik askatzen gintuen sorginkeria edo hitz magikoak.

Orain, kristau doktrinarik ez nigan, baina deabruak bai dantzan ditut inguruan; deabru onak eta gaiztoak, Tintin eta Milu bere zakurrari Hergeren abentura komikietan agertzen zaizkien modukoak. Infernuetako deabru gorria eta adar okerduna, txarrari lotua, iluntasunaren ikur, eta aingeru txuri itxurakoa, onari lotua, argitasunaren ikurra. Yin eta Yang. Unibertso dualtasuna. Bi funtsezko indar kontrajarri eta osagarriak, gauza guztietan aurkitzen direnak.

«DERRIGORTASUNAREN AROAN BIZITZERA ZIGORTU GAITU IKUSEZINA DEN BIRUSAK»

Derrigortasunaren aroan murgilduak bizitzera zigortu gaitu ikusezina eta era berean nonahikoa edo *omnipresentea* den birus batek.

Derrigorrezko arautegiak kalera ateratzeko, lanera

joateko, aisialdirako, ospakizunetarako, medikutarako, erosketak egiteko, kotxez mugitzeko, baita musu eman eta larrua jotzeko ere.

Derrigorrezkoa maskara soinean eta eskutarako gela. Derrigorrezkoa gure arteko distantzia fisikoa mantentzea. Derrigorrezkoa mesfidantza. Derrigorrezkoa albokoa ezagutu ahal izateko begiraden kode berriaren trebatzea (eta akabo kontuak eguzkitako betaurreko eta biserekin).

Aipaturiko derrigortasun horiez guztiez gain, nik beste kit bat gehitu diot nire egunerokoari ezarri diguten normaltasun edo anormaltasun berriaren aro honetan: derrigorrezko deabruak!!! Zalantzaren deabrua, desinformazioaren deabrua, mesfidantzaren deabrua, beldurrarena, norberaren iritzia izateko eskubidearena, izpiritu kritikoarena eta gainezka egotearen sentimenduaren deabrua!! Azienda bat mandeuliak jarraian etengabe inguratzen duten moduan, horrela ni neure deabruen jiraka! Onak eta txarrak, argiak eta ilunak, gorri eta adarduna eta aingerutxoa.

Deabruak dilin-dalan.

Mixel Labergeriek aspaldiko *Ezkilaren kantuan* zioen bezala: «Dilin, dalan dalan, Din-dan boieran!

Kanta beza ezkilak menderen mendetan, kanta beza bizia eskual herrietan!».



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Berrogeialdi, ehunaldi

Ziurgabetasuna nagusi den garaietan, gaurkotasunari gaur luzeegia zaion sasoi honetan zaila da iritzi bat plazaratzea. Dena den, aukerak galdutzat eman aitzin, begi parean ditugun hari-muturretako batzuk ekarri nahi ditut eztabaidara, elkar elika dezaten gure hausnarketek.

Batetik, komunitatea, auzoa, hurkoa. Ikasi ote dugu gaurgero ezin garela izan ez bada pluralean? Banaka produktak garela, saldu zein salgai. Ez gara nahi bezain bereziak edo, segurik, bereizi egiten gaituenak batzen gaitu. Orain ezin dugu ukatu elkarri eragiten diogula eta, hortaz, orain da momentua hori balio gisa aldarrikatzeko, auzolanean bezainbertze egunerokoan.

Bertzalde, zaintzak. 'Normalitate' bueltatzeko irrika nondik heldu da? Zaintza lanak menpeko perpausera kondentzen dituen normaltasunean ez dago tokirik duinki lan egin eta bizitzeko, *telebizitzak* argi utzi du bizitza zer(tarako) den. Maila kolektiboan lehen planora ekarri ditugu, adibidez, erizainak, kutzazainak eta zahar etxeetako langileak, baina ez daitezela toki horretan laketu, heroi deituko ditugu eta, hala, mundua salbatu ondotik joanen dira berriz inbisibilizatuta eta prekarizatuta zeuden tokira, normalitate-ra.

«BERDIN SEGITZEAK DESBERDINTASUNAK HANDITZEN DITU»

Gainera, hezkuntza eta osasungintza. Osasuna eritasunik ezarekin parekatzea langa beheitiegia paratzea da eta, bertze behin, gutako bakoitzaren sorbaldan paratzen du arduraren zati handiena osasun sistemaren

zuloak agerian gelditu ez daitezken. Konplize gara. Hezkuntzan, halaber, eztabaidak protokoloetatik haratago zabaltzeko espazioak behar ditugu. Sistemaren zurruntasuna bistan gelditu delarik eta ezohiko bideetatik ikasten ari garelarik akaso pentsatzen ahal dugu nork, zer, nola eta zertarako irakatsi, adibidez.

Akitzeko, prekarietatea, desoreka. Badakizu zure inguruan nor ari den pasatzen zu baino okerrago eta badakizu abiapuntua ere ez zenutela berbera. Aunitzez ere hobe pasatzen ari dena ezagutzea ez da aitzakia, ez zaitu erdirago paratzen. Berdin segitzeak desberdintasunak handitzen ditu.

Hau da, behatz puntetan ditugula erresistentzia modu berriak edo, bertze modu batera erranik, ahoa estalita izatea eskuei protagonismoa emateko baliatzen ahal dugula.

11 GALDERA LABUR

AMAIA SARRATEA URRUTIA ZIGAKO GAZTEA

«Gizarteko alor anitzetan gazteei errua botatzeko ohitura dago»

Aurkeztu zeure burua.

Zigan bizi den 21 urteko gaztea.

Zer zaletasun dituzu?

Musika aditu eta jotzea, irakurtzea... Duela gutti ekin diot argazkilaritzari.

Lehen Hezkuntza gradua ikasten ari zara. Sei hilabeteren buruan, nolakoa izan da klaseetara buelta?

Hirugarren maila etxetik akitzeak tristura handia eragin zidan, baina aurtengo kursoa modu presentzian hasi dugu.

Ezohiko uda izan da aurtengoa. Gozatzeko modurik izan duzu?

Maiatzeko azken astean akitu genuen ikasturtea eta geroztik herrian egon naiz. Lagunekin hainbat toki bisitatu ditudan arren, herriko bestarik ez iza-

teak uda bertze modu batera gozatzeri eraman nau.

Nolako ikasturtea aurreikusten duzu?

Arraroa eta kaotikoa. Arraroa da ikaskideak maskararekin ikustea edo bata bertzearengandik urrun egotea. Presentzialki hasi badugu ere, ez dut online bidezko klase batzuk izatea baztertzen. Zorionez, ni lagun baten pisuan nago eta alde horretatik alokairuari dagokionez, aldaketarik ez dugu egin behar izan.

Astegunak Iruñean pasatuko dituzu... Egoera honetan herrian seguruago sentituko zara?

Bai, egia da egoera honetan segurtasun puntu bat ematen didala Zigak. Herrian jende gutiago dagoelako... Baina, bertzalde, ez dago aurreikus-



terik. Gutien espero denean kutsatzen ahal gara eta!

Gazteak arazoaren iturburu gisa aipatu dira maiz. Zer iritzi duzu horretaz?

Gauregun ohitura handia dago gizarteko alor anitzetan gazteei errua botatzeko, baina gazte ez diren pertsonen ere badute beraien erru puntua.

Egoera berezi honetan, asteburuko planik onena?

Familiaz gozatzea, lagunendako tartetxo bat utziz... Haie-

kin bildu eta afaria, egun-pasa edo dena delakoak egitea plan ederra da!

Inguruko txokorik ederrena?

Ederrena ez nuke erranen... baina, niretako bereziarena Obarko parajea da.

Zer du Zigak bereizgarri?

Herri txikia izate hutsak badu berezko xarma.

Amets bat?

Bizitzari ezarritako helburuak askatasunez bete ahal izatea dut amets.

Merkealdia azken egunak

1951tik

Casa Cambra

lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Mairidireak toailak
Edredoi-azal nordikoak

IRAKURLEAK MINTZO

Noiz arte?**ESTEBAN IRUSTA MALLEA**

Urte erdi pasa ondoren, koronabirusaren amesgaiztoak guregan jarraitzen du. Eta hasiera batean denok ustekabearen hartu bagintuen, une honetan, ezustea ezkortasun bihurtzen ari da. (...) Agintariak hartu dituzten neurriak ez dute eman uste zuten emaitzarik. Kutsatuak ez dira desagertu eta alderantziz, nahi baino gehiago jarraitzen dute.

Orain arte, birusa zahartzarorekin lotzen zen. Izan ere, arrisku gehien dutenak eurek dira. Baina inork ez du gutxietsi behar. Birus hau berria eta ezezaguna da, eta bere ondorioak ere ezezagunak dira. Gazteek oso urruti ikusten dute arriskua (...).

Agintariak jarri dizkiguten neurrien artean, maskarak erabiltzea izan da. Ez da batere eroso, eta askotan, edozein aitzakiarekin, ez da jartzen. Bestetik, udaldia dela eta opor sasoiaren agindutako neurriak ez dira bete. Oso errotuta dauden ohiturak aldatzea ia ezinezkoa dela ikusten ari gara.

Hasieran, denbora gutxirako izango zelakoan, konfinamendua nahiko ondo bete zen, eta kutsatuen zenbakiei begira denbora gutxirako arazoa izango zelakoan geunden. Baina ametsa besterik ez zen izan; ez guretzako bakarrik, mundu guztientzako baizik.

Dena den, badaude talde batzuk, bizi dugun egoera sinesten ez dutenak; horien ustez, dena gezurra da. Baina errealitatea, zoritxarrez, beste bat da. Mundu guztian, kutsatuak eta hildakoak gora doaz eta oraingoz ez da bukaerarik ikusten. Etxeko eta nazioarteko berriak oso kezagarriak dira eta etorkizuna oso ilun ageri da. Egoerak denetako iritziak izateko aukera ematen du, baina iritzi ezkorra nagusitzen ari da, eta galdera asko egiteko unea da.

Denok normaltasunera iristeko amonratzen gaude. Baina nahigabe asko izango dugula dirudi. Langabezia gora egiten ari da, eta ezin jakin norainokoa izango den. Kirol arloan ere geroa ez

dago ziurtatuta. Futbola, adibidez, estadioetan jarraitzailerik gabe, telebistari esker dago bizirik, eta ez da baztertu behar, egoerak okerrera egiten badu txapelketa (ez futbolekoa bakarrik) bertan behera geldi daitekeela. Ezin da ezer baztertu. Dena da posible. (...) Psikologikoki indartsuak izan behar dugu. Ez dakit balioko ligukeen gogoratzea gure aurrekoek nolako bizimodua zuten, baina nolabait, ohitura berri askori uko egin beharko diegula uste dut, gutxienez, birus hau desagertu arte. Eta tartea luzea izango dela ematen duenez, bitartean, arduraz eta pazientziaz jokatu beharko dugu.

Berriz ere euskararen balorazioa aplikatzerik ez

FERMIN ZABALZA ALEMAN ADMINISTRAZIOAN
EUSKARAZ TALDEAREN IZENEAN

2019ko abenduaren 13an, Iruñeko Udalak iragarri bat jarri zuen bere webgunean, Aparkalekuetako Zerbitzuburu postua betetzeko. Lanpostu hura betetzeko prozedura izan zen hautapen prozesu bat egitea, funtzionario bat behin-behinean atxikitzeko. Baloratu ziren esperientzia,

antzinatasuna eta titulazioa. Ez zen baloratu euskararen ezagutza.

Orduko Euskararen Ordenantzak agintzen zuen euskara baloratu behar zela (% 5, herritarrekin harreman zuzenik ez zuten lanpostuetan). Horrexegatik, errekurso bat jarri zen Nafarroako Administrazio Auzitegian.

2020ko uztailaren 29an hartu zuen erabakia Nafarroako Administrazio Auzitegiak: behin-behineko atxikipen horiek izendapen librekoak direnez gero, ez dago halakoak aurkaratzerik edo inpugnatzerik.

Ez dugu juridikoki eztabaidatuko, baina gauza bat argi dago: epaileek eta, kasu honetan, Nafarroako Administrazio Auzitegiak, beti eta aise topatzen dituzte euskara ez baloratzeko arrazoi juridikoak. Zaila da euskara babesteko arauak lortzea; baina halakoak lortutakoan ere, beti egiten dute euskararen kontrako interpretazioa.



ANA GALAR ARIZTEGI

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA

info@ttipi.eus



948 63 54 58

HEMEROTEKA



«Ez naiz sobera zaratatsua izan. Hasieran lasaiago hasi nintzen, baina gaur egun musika ezohikoak bilatzen ditut. Zarataren inguruan daudenak? Ez dakit, gustatzen zait konposatu eta gero moldaketak bereziak izatea, eta batzuetan zarataren inguruan daude. Oraintxe bertan ez nago momentu horren lasaian musikari dago-kionez. (...) Agian adinarekin gero eta erradikalagoa naiz soinuari dagokionez».

JOSEBA IRAZOKI
BERAKO MUSIKARIA I
BERRIA. 2020.09.01



«Ziur naiz erretiroa 2017an hartzeko erabakia egokia izan zela. Hura zen pilota profesionala uzteko garai aproposa: batetik, neure buruarekiko errespetuagatik, baina baita pilotari zor diodan errespetuagatik ere. Ordurako, egina nuen nire ibilbidea, eta garaia zen gazteei bidea emateko (...) Kirolari profesionala izatea pribilegio bat da. Amets bat. Hortaz, zenbait gauza faltan sumatzen ditut? Bada, bai, baina, partidak jokatzea? Ez».

ABEL BARRIOLA
LEITZAKO PILOTARI OHIA I
BERRIA. 2020.09.07

BOTA BERTSOA

BAZTAN-BIDASOKO BERTSOPAPER LEHIAKETAN
D MAILAN, 1. SARIA

ENEKO FERNANDEZ MARITXALAR

LESAKAKO BERTSOLARIA

Inkisidore berriak

Doinua: Nehoiz ez da senditzen



*Ze asmorekin irten
gara balkoietara,
gure bizilaguna
zigortzeko ez bada?
Zergatik astintzen dugu
kritikaren aldaba?
Errespetuz jokatzea
horren zaila al da ba?
Zergatik zapuzten da
albokoen algara?
Gaixotu den herri baten
adierazle al gara?*

*Ezin naizenez egon
atxikita katera
goizero irtetzen naiz
buelta bat ematera
Baimena dut ta joaten naiz
amarekin batera
Zenbait leihoratu ohi da
kristonak erratera
Orain min ta beldurrez
hurbiltzen naiz atera
Hau pairatu behar badut
zertarako atera?*

*Haur ixil ta uzkurra
autismodun mutila
Ikaratia bezain
goxoa ta hurbila
Baina martxan ipintzean
ele txarren gurpila
hanketako dardarizo
ta aurpegi zurbila
Nahiz soilik irten arnas
ta lasaitasun bila
zergatik daude nirean
antzeko kasu pila?*

*Jarraituz goi karguen
diskurtso ta prediku
txalotu ohi ditugu
erizain ta mediku
Baina zenbaitek ezin du
txaloetan gelditu
"Txibatoen" belaunaldi
berri bat da erditu
Nahiz ta izurriteak
jende anitz eritu
inbidiaren birusak
gehio kutsatzen ditu.*

*Inbidia delako
jakintzaren eskela
Zapi_urdin bat jartzea
eskatzen zait bestela
Erranez jendearentzat
bereizgarria dela
Markatu nahi al gaituzte
abereak bezela?
Zapia ezinaren
ispilu da horrela
Lehenik begitan dutena
askatu dezatela.*

*Gogorrak izan arren
itxialdi anuak
Nahiz irentsi pantailan
jartzen diren amuak
Ez dira onargarriak
leihopeko manuak
Kontuz bultzatu ezker
haur baten hiltamuak
Gero alferrik dira
barkamen ta damuak
behin piztuta nire buru
barreneko manuak.*

*Norbera harrotu ta
bertzeak putzuratu
Bihotzak minberatu
ta odola xurgatu
Jendarte gisa zeozer
al zaigu matxuratu?
Desirak mozorrotu ta
ekintzak itxuratu
Debeku ta zigorra
nahi bada zentzuratu
hobe lukete beraien
jarrera zentsuratu*

*Zortziretako balkoi,
kantu eta akorde
laster bilakatu zen
epaileen batzorde
Ezkutuko deabrua
barnean ezin gorde
euren auzotarren arau
hausteen inspektore
Ba beraien buruak
ezkutatzea hobe
hemen nahiko polizia
badugu lehenago re!*

«Eskola akitzean euskarak segida behar du katea eten ez dadin»

PASKUAL REKALDE IRIGOEN AMAIURKO EUSKALTZAIN OSOA

Uztailaren 17an Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen Amaiurko hizkuntzalari. Andres Iñigo iturendarra euskaltzain emeritu bihurtzean sortutako hutsunea beteko du akademian

G. PIKABEA | AMAIUR

Bihotza eta lana euskarari emanak dituela bizi da Paskual Rekalde Irigoien (Amaiur, 1963). Euskara du ogibide, baita pasio ere, eta aspalditik gainera. Berak dioen bezala, «herri arras euskaldunean» hazi zen, eta oinarritzko ikasketak Amaiurren eta Oronozen egin ondotik, Euskal Filologia ikastea erabaki zuen. Orduan piztu zitzaion euskara barnetik gehiago ezagutzeko ezinegona. Gasteizen unibertsitate ikasketak akituta, irakasle aritu zen, eta bi urteren buruan Nafarroako Gobernua-
rentzat euskara itzultzaile lanetan hasi zen. Horixe du ofizio geroztik. Euskararekiko maitasunak, ordea, urrunago eraman du eta horren seinale, Euskaltzaindiak agudo jo zuen begiz. Koska bat goiti eginez, uztailaren 17an Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen.

Aspalditik harreman estua duzu Euskaltzaindiarekin...

Euskaltzaindian orain dela 20 urte hasi nintzen, 2003an euskaltzain urgazle izendatu aitzinetik Nafarroako jende guti zegoela eta, batzordeetan parte hartzeko gonbita egin zidatenean. Hizkuntzaren inguruan aritu izan naiz beti eta horretan segitzen dut: hiztegia, toki eta pertsona izenekin, gramatika, euskara batuaren eskuliburuan, kontsulta zerbitzuan...

Euskaltzain urgazle izatetik oso izatera. Aldaketa izan da?

Ohorea da euskaltzain oso izendatu izana, baina aldi be-

rean, lan-karga handiagoa izanen da. Hasteko, bilera gehiago izanen ditut, hilabetean behin egiten diren osoko bilkuretan ere parte hartuko dut. Orain arte, batzordeetan egindako lanak osoko bilkurari proposatu eta hori zen erabakiak hartzen zituena. Orain erabaki horietan parte hartuko dut eta horrek badu erantzukizuna.

Nola ikusten duzu Euskaltzaindia gizartean?

Ez du fama txarra. Bere garaian izan zuen, arauak aunitz aldatu direla erran izan da, baina hizkuntza moderno guzietan bezala arauak beharrezkoak dira eta euskararen kasuan, batua dela eta, arrazoi gehiagorekin. Gainera, bere garaian arauak ematen hasi eta ematen segitze hori instituzio bizi ba-

ten seinale da. Arauak emateak hizkuntzari, euskarari, mesede egiten dio. Alderdi eskuindarrek Nafarroan euskara museoan sartu nahi dute, museoan arras polita gelditzen baita, eta gero *Gora Erronkariko euskara!* erran. Baina hori ez da kontua. Ez gara hildakoa berpizten hasiko, nahikoa lan daukagu daukagunarekin eta horrekin bizitzen. Gizarteak zein behar dituen aztertu eta horiei erantzun behar die Euskaltzaindiak. Egindako lana gizarteratzea da akademiaren erronketako bat, ez dadin armairuetan gelditu.

Euskara batuaren eta euskalkien arteko harremanaz ere maiz aritu izan zara...

Lehendabizi erran behar da euskara bat eta bakarra dela, baina euskalkien ñabardurak hor daudela. Baztanen, adibidez, Oronoztik Amaiurrera bada aldea, eta Bortzirietan, Arantzatik Etxallarrera ere bai. Bien arteko bereizketa handiagoa zen garaia izan dira baina

Irakasle hasi zena itzultzaile eta hizkuntzalari

Euskal Filologia edo Historia ikasketen artean zalantzan ibili ondotik, euskal ikasketen aldeko hautua egin zuen Rekaldek. Amaiur utzi eta Gasteizera joatea «aldaketa handia» izan zela dio, «bertze mundu bat ezagutzeko». Ikasketak tarteko, bortz urtez «joan-etorrian» ibili ondotik, irakas-kuntzan hasi zen. Bi urtez izan zen irakasle, «Azpeitian eta Hondarribian».

Itzultzaile eta euskaltzain

1988an Nafarroako Gobernu-ko euskara itzultzaile izateko oposizioa gainditu zuen, eta «irakasle izateko oposizioak gaindituta Gasteizen plaza banuen arren, itzultzaile lana probatu nahi izan nuen». Hala-xe hasi zen Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuan. Gero, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Depar-



tamentuko Euskara Zerbitzuan aritu zen eta 2015etik Euskarabidean dihardu.

Euskaltzaindian 2000an sartu zen eta gaur egun, corpus, gramatika eta onomastika batzordeetan parte hartzen du, baita hiztegi batuko lantaldean eta Euskara Batuaren Eskuliburuan ere. Euskalkien lantaldearen, Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzuko eta Jagonet kontsulta-zer-

bitzuko arduraduna da eta akademiaren Nafarroako ordezkariorde. Hainbat liburu eta artikulua ere idatzi izan ditu, tartean, euskara batuaren eta euskalkien eta Baztango euskararen inguruan. Orain, euskaltzain oso izendatuta, zortzi bat hilabete izanen ditu sarre-
ra hitzaldia idazteko. «Hizkuntza kontuekin lotutakoa» izanen omen da, eta ekitaldia Amaiurren egin nahi du.

euskalkiak eta euskara batua elkarren osagarri eta aberasgarri dira. Euskara batuak euskalkien aberastasunak hartu eta horiek txertatu behar ditu. Aunitzetan entzuten da hizkuntza maila okerragoa dela, oraingo gazteek ez dakit nola egiten dutela... baina orain dela ehun bat urte ere halakoak aditzen ziren. Hizkuntza maila aunitz aldatzen ari da, diferente egiten da eta egia da erdarara lehenago baino gehiago jotzen dela. Frantsesa eta gaztelania hizkuntza handiak dira, euskara erdian dago, eta haien eragina handia da.

Tokian tokiko fonetismoek gero eta toki gehiago dute idatzizkoan...

Karteletan, herriko bestetako programetan maiz ikusten dira: *launbeta*, *Lekauzko tortille*, *amabirjinein ermite*... Ez dakit zergatik egiten diren. *Lekauzko tortille* idaztea edo 'Lekarozko tortilla' idaztearen artean ez dago alde handirik eta gauza bera *itenalkot* idatzi ordez 'egiten ahalko dut' idatzita. Ulertzekoa da sare sozialetan nork bere hizkeran idaztea, hor idazten duten batzuek ez dute bertzela idazten ere jakinen, ez direlako eskolatik pasatuak. Baina gazteek, zorionez euskaraz alfabetatuak baitira, ez dute inolako arazorik euskara batuaz idazteko. Gainera, helburua mezua transmititzea eta ingurukoek ulertzea baldin bada, ingurutik edo herritik kanpo ez dira euskaldun guzietatik ulertzeko modukoak. Ez gaztelaniaz ezta frantsesez ere ez dira ikusten halakoak eta ez diote ekarpenik egiten euskarari. Euskaraz idazteko araudia badugu, eta bertze bat egin behar dugu tokiko euskararentzat? Bertze bat herri bakoitzeko? Norberak bere euskalkiko hitzak erabiltzen dituelarik, zuzen erabiltzea da kontua.

Ahozkoari dagokionez, gero eta euskara batuagoa egiten dugu?

Gaur den egunean, eskolak euskara berdintzen du. Gero eta euskara batuagoa egiten ari gara, baina zorionez, orain-



20 urteko ibilbidea du Paskual Rekaldek Euskaltzaltzaindian eta aurren, gehiengo osoz, euskaltzain oso izendatu dute.

dik euskalkien ñabardurak zaintzen dira; gazteek guttiago beharbada. Maiz, haurrek euskara bateratu horrekin, gurasoei zuzentzen hasteko joera dute. Alde horretatik, garrantzitsua da euskalkien ñabardurak hiztegian sartzea, eta horretan ari da etengabe Euskaltzaindia. Euskara batua egin zenean, nahiko bide meharra hartu zen, eta orain, oinarria sendotua dugunean, zabaltzen ari da eta euskalkien marka duten hitzak sartzen dira. Hala ere, txarrena gazte eta aunitzendaiko euskara eskolako kontua izatea da. Gure inguruan, ez da hirietan adina sumatzen, baina hemen ere bada arriskua. **Zerk du lehentasuna: kalitateak ala kantitateak?**

«ESKUINDARREK EUSKARA MUSEOAN SARTU NAHI DUTE»

Ni kalitate zalea naiz, baina hiztunik ez badago, lau lagun geldituko dira. Hortaz, kalitatea behar-beharrezkoa da baina baita hiztunak ere, ongi egiten dutenak eta xede horren bidean daudenak edo ahalegintzen ari direnak.

Nafarroan euskara osasuntsu dago?

Aunitzez ere okerrago egon izan da, baina hobeki ere egon daiteke. Oraindik tarte handia dago euskararen ezagutzatik erabilerara. Eskola akitzean segida izatea falta zaigu, etenik ez izatea: etxean edo eskolaz kanpoko ekintzetan euskaraz segida izatea, sare sozialetan euskarari tokia egitea... Euskara alde guztietara hedatu behar dugu eta denok egin behar dugu gure aldetik. Hala ere, hizkuntza minorizatua denez, botere publikoek ere gehiago lagundu beharko lukete eta hori da aunitzetan ikusten ez dena. Krisi garaia arriskutsuak izaten dira, eta aurrekontuak murrizten hastean, beti gauza tikiak

kentzen hasten dira. Ea orain Covid-19aren kontu honekin zer gertatzen den. Ez da laguntzetatik bakarrik bizi behar, baina hizkuntza tikiak denez, laguntzak behar dira. Gobernuak eta erakunde publikoek euskara, gaztelaniarekin batera, Nafarroako hizkuntza dela sinetsi behar dute. Legeak Nafarroako berezko hizkuntza euskara dela dio, baina eremuen arteko bereizketak egiten ditu. Hori aldatu behar da. Mendi gorrian edo Tuteran bizitzeagatik euskaraz ikasteko aukerarik ez izatea onartezina da. **Zer diozu eskualdeko egoeraz?** Herritik herrira bada alde, baina azken 30 urteotan aldaketa handia eman da. Garai batean, Elizondon, Donezteben, Beran eta guttiago Lesakan, erdara aunitz sumatzen zen eta gaur den egunean, jendea euskaraz solastatzen da. Horrela segitu behar dugu, euskaraz mintzatzen, etxean, eskolan eta bertze eremuetan, katea eten ez dadin.



Endara Bizirik taldeak jaso duen babesa eskertzeko agerraldia egin zuen irailaren 4an Lesakan.

Parke eolikoaren aurka bat egin dute lesakarrek

Hautsak ederki harrotu ditu Nordex enpresak Lesakako Auzoberri auzoan egin nahi duen parke eolikoaren proiektuak. Egitasmoa geldiarazteko helburu argia dute Endara Bizirik plataformak eta Lesakako Udalak

G. PIKABEA | LESAKA

«Parke eolikia eta auzotarron bizimodua edo auzoa ez dira bateragarriak. Bietako bat soberan dago». Hori argi utzi nahi izan du Agoitz Iratzoki Altzugarai Lesakako Auzoberriko bizilagunak eta Endara Bizirik plataformako kideak. Berak bezala, auzotarrek eta herritarrek kezka handiz hartu dute Nordex enpresak Lesakan egin nahi duen parke eolikoaren proiektua, eta geldiarazteko «argudio onak eta arrazoi nahiko» badituztela dioten arren, «handiekin ezin da jakin, eta ezezkoa erran arte beldurtuak segituko dugu».

11 haize errota dira Nordex enpresak Lesakako Auzoberri auzoan paratu nahi dituenak, Iratzokiren arabera, «Nordexek egiten dituen haize erroten artean handienetarikoa dira,

120 metroko altuerakoak eta hegala goian denean 197 metro dituztenak». Gehiago ere bai: «haize errota bakoitzak 25 metroko hormigoizko oinarria izanen luke, bertze hainbertze libre eta 30x40 metroko parkinga. Dena mendi kasko batean egin nahi dute, atera kontuan zenbat kendu behar-ko lioketen mendiari». Gisa berean, «sei metro zabaleko pista» aurreikusi dutela oroitara-zi du, baita «haize errotak lur azpitik kable eta hodi bidez lotuak» egonen liratekeela ere: «horretarako egin beharko

«HUNKIGARRIA IZAN DA HARTU DUGUN BABESA»

AGOITZ IRATZOKI, ENDARA BIZIRIK

luketen lur mugimendu guztia kontuan hartu behar da. Azpiestazio bat ere izanen genuke...», dio. «Hori guztia 40 lagun bizi garen 22 baserriren inguruan».

Uda mugitua

Proiektuaren berri izan orduko hasi ziren auzotarren harat-honatak. Ladis Satrustegi Altzugarai Lesakako alkateak adierazi duenez, «maiatzaren 18an jaso genuen Nordex enpresak egindako memoria Nafarroako Gobernuaren jakinarazpen baten bidez». Ai-

«BADITUGU NAHIKO ARRAZOI GELDIARAZTEKO»

LADIS SATRUSTEGI, LESAKAKO ALKATEA

tortu digu «harridura handiz» hartu zutela, «proiektuaren berri izan genuen lehenbiziko aldia baitzen». «Proiektu handia» zela ikusita, «egun batzuk behar izan genituen informatu eta nondik jo aztertze-ko. kontaktu tekniko eta politiko batzuk ere egin genituen».

Notizia beranduago ailegatu zen auzotarrengana. Iratzokik ongi gogoan du eguna: «ekainaren 4a izan zen, sare sozia- len bidez». Asteburu berean osatu zuten Endara Bizirik plataforma: «batekin eta bertzearekin mintzatuz auzo guztia kontra ginela konturatu ginen eta ekainaren 7an bile- ra egin eta plataforma sortu genuen».

Taldea osatu orduko, «komunikabide eta sare sozia- len bidez gure jarreraren berri» eman zuten. «Gero, proiektua aztertu ondotik, hurbileko baserri auzoetan jende-ari informazioa zabaltzen hasi ginen: Zala, Nabaz, Katazpegi, Endara-erreka, Alkaia, Zala, Zok...». Auzo-ko auzo informazio bilerak egin ondotik, Lesaka herrira jo zuten: «Lesakan ika- ragarrizko harrera eta babesa izan genuen, hasiera-hasiera- tik denon arazoa dela ikusi zuten eta arront eskertuak gaude». Hala, «herritarren eta herriko merkatarien aldetik jasotako laguntza eta babesa hunkigarriak» izan direla dio.

Bortzirietan herriz herri ere bilerak egin zituzten eta handik Oiartzunera, Oretara eta Irunera jo zuten: «harrera izu- garria izan zen».

Proiektua han eta hemen aurkeztuz pasatu dute uda, baita sinadurak biltzen ere eta «kontent» gelditu dira erant- zunarekin: «gure hasierako asmoa 1.000 sinadura biltzea zen eta aurreikuspenak aise gainditu ditugu. 3.433 sinadu- ra izan dira eta horietatik 1.300 herrian bildutakoak».

Udalarekin elkarlanean

Plataforma eta udala ere agudo hasi ziren elkarlanean: «bi udal taldeak plataforma osatu

zuten bizilagunekin elkartu ginen eta ordura arte genuen informazioa elkarbanatu eta bakoitzaren jarrerak zeintzuk ziren azaldu genituen», aipatu digu alkateak. «Denok helburu bera» genuela ikusitakoan, «pleno bidez proiektuaren aurkako mozio bat onartu genuen aho batez, eta gai hau lantzeko batzorde bat osatu genuen». Bi udal taldeetako hiruna ordezkari eta plataformako bertz hiru kidek osatzen dute batzordea.


Satrustegirekin batera, batzorde horretako kidea da Iratzoki eta «bi udal taldeen konpromiso izugarria» nabarmendu nahi izan du: «Auzoberri ez da sekula egon hain ataka estuan eta bi udal taldeek hasieratik bat egin dute gurekin. Batzordea proiektuaren aurka egiteko erreminta bihurtu da eta udalaren jarrera ere eskertu nahi dugun».

Esker ona ez da aldebakarrekoa. Satrustegik «Endara Bizirik-ekoak zoriondu eta eskertu» nahi izan ditu: «ez da batere erraza egin duten lana, hainbertze lagun modu horretan mugiaraztea. Ordu aunitz sartu eta esfortzu handia egin dute, eta izandako emaitza lortzeko egin duten modua eredugarria izan da. Auzolanaren adibide garbia izan dira».

Udala ere kontra

Auzotarren gisa, udalak ere ez du begi onez jo parke eolikoa: «proiektuaren memoria leitu-ta, segituan ohartu ginen gabezia nagusienaz: Lesaka eta lesakarrak kontuan hartu gabe egindako proiektua da, guztion ondare diren mendiak enpresa pribatu baten interesetarako erabili nahi dituzte». Alkaterearen hitzetan, «desakarrontzat gune hagitz bereziak dira mendi horiek, eta hor dauden ondare kultural, historiko eta naturalez gain, biziberritzen ari den auzo oso bati zuzenean eragiten dio, hauen bizi kalitateak ikaragarri kaltetuz».

Bide batez, herrian sumatzen diren kontuez ere aritu da Sa-



trustegi: «ostatuetako elkarriketetan ideia eta zurrumurru aunitz aditzen dira: dirua utziko duela, bertakoentzat lana sortuko duela...». Horiei erantzun nahi izan die: «guk leitu dugun proiektuan ez da horrelako deus ere aipatzen eta proiektuan paratzen duenari egin behar diogu kasu, eztabaida antzu horietan eta hipotesietan sartu gabe».

Proiektuari erantzunez

Proiektuarekiko desadostasuna adieraziz, Nordexek Nafarroako Gobernuan aurkeztutako memoriari bateko eta bertzeko udalek eta taldeek erantzun diote. Lesakako Udalak, erraterako, txosten bat egin du. Satrustegik azaldu

«EZ DUGU PROIEKTUA INPOSATZEA ONARTUKO»

LADIS SATRUSTEGI, LESAKAKO ALKATEA

digunez, «Lesakako hirigintza plana kontuan hartuta, Nasuvinsaren laguntzarekin, batzordean garbi ikusi zen proiektuaren kontra jotzeko oinarriak bazeudela, lur horien erabilera mugatua baitago». Horren harira, «hirigintza planak horrelako azpiegiturak espresuki debekatzen dituela», gaineratu du Iratzokik. Hortaz gain, «11 haize errotetatik bederatzi herri-lurretan paratzeko asmoa dutela eta komunalek baimentzeko aukera udalaren esku uzten duen araudia berezia dutela», gogoratu du alkateak.

Plataformako kidearen hitzetan, «legea diferentea da etxebizitza bakartua edo herri-guneak denean. Herri-guneen kasuan, etxebizitzeta-

«AUZOBERRIREN BIZIRAUPENA KOLOKAN DAGO»

AGOITZ IRATZOKI, ENDARA BIZIRIK

tik guttienez mila metro behar dira haize errotak muntatzeko. Horixe zen gure hasierako kezka baina kasu honetan, Auzoberri auzo tradizionalek denez, herrigunearen eskubide berak izanen lituzke. Hala ez balitz, haize-errotak bertatik bertara paratzen ahal izanen lituzkete, beti ere 50 dezibelio ailegatuko ez balira».

Bertzalde, alkateak argitu duenez, «ingurumenaren eta ondarearen inguruko iradokizunak, partikularrek egindakoak...» ere aurkeztu zituzten gobernuan, bildutako 3.433 sinadurekin batera, baita «inguruko herrietako udalek egindako kontrako txostenak» ere. Horren harira, Iratzokik «Oiarztzun, Irun eta Errenteriako udalek egindako lan handia eta erakutsitako konpromiso izugarria» nabarmendu ditu: «Oiarztzun eta Irungo udalek gaia arrotz serio hartu eta proiektua Aiako Harriak parke naturalarekin muga-muga izaki, hagitz txosten lan- →

—> duak egin dituzte euren kezka agertuz».

Enpresak adierazpenik ez

Nafarroako Gobernuarengana ere jo dute, eta alkateak dioenez, «gobernuko teknikoekin eta politikariek» solas egin dute. Enpresako teknikari batzuekin bildu izana ere onartu du Satrustegik, «informazio lortzeko asmoz». TTIPI- TTAPAK ere jo du enpresaren atea, eta han eta hemen saiatu ondotik, «garatzen ari diren proiektuen inguruan adierazpenik ez dugu egiten» erranez erantzun dute.

Auzoa «kolokan»

Uda mugituaren ondotik, auzotarrek «erne» segituko dutela erran digu Iratzokik, «ez baitugu onartzen energia berriztagarrien aitzakian zernahi eta nolnahi egitea». Proiektua geldiarazteko «nahiko motibo» ikusten ditu eta berak bezala, alkateak ere bai: «egin ditugun iradokizunekin biziki uste dut arrazoi nahikoak ditugula enpresaren nahiak geldiarazteko». Halere, Satrustegik berak adierazi du «azken hitza nork duen %100ean ziurtatzea zaila dela, denak baitakigu nola konplikatzen ahal diren gai hauek». Iratzokiren ustez, «enpresak hemen parkea egiteko duen interesaren arabera erabakiko du aitzinera segitu edo ez».

Batek zein bertzeak argi dute bidea eta, hemendik aitzinera, «badaezpada ere hurrengo fasea prestatzean» hasiko direla aitortu digu Iratzokik, «enpresak aitzinera eginen balu, ingurumen inpaktuaren txostena eginen luke eta hori aurkeztutakoan 30 eguneko epea izanen genuke alegazioak aurkezteko. Denbora gutti denez, lehenagotik mugitzea komeni da».

Alkatea «gure esku dagoen guztia» egiteko prest agertu da «erabakia hemen hartu dadin, eta ez dugu onartuko Nafarroako Gobernuak edo Nordexek proiektua inposatzea». Iratzokik, bere aldetik, argi du «Auzoberri auzoaren bizirau-

«Nafarroa hegoaldea parke eolikoz bete dutenean iparraldean hasi dira»

MARTIN ZELAIA GARTZIA SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDAZIOA

Lesakan eta Nafarroan egin nahi dituzten parke eolikoen proiektuak hurbiletik segitzen ari dira Sustrai Erakuntza fundazioan eta horren harira mintzatu da Zelaia.

Orain arte Nafarroa hegoaldean eraiki dituzte parke eolikoak. Orain iparraldean ere zabaldu nahi dituzte...

Bai, lehen Erriberan eta erdialdean bakarrik egiten ziren parke eolikoak, baina badirudi eremu horiek beteta daudela eta orain enpresei Nafarroa iparraldea bakarrik gelditzen zaiela. Urte hasieran Sacyr enpresak Iruñerria iparraldean bartz parke egin nahi dituztela jakin genuen eta gero Lesakakoaren berri izan genuen. Duela bi hilabete bertze bi aurkeztu dituzte, bat Etxauri aldean eta bertzea Lizaraldean. Plaka fotovoltaikoen parkeak egiteko hainbat eskaera ere egin dituzte. Alde horretatik, udazkena gogorra izanen dela iduri du.

Nafarroako parke eolikoetan, dagoeneko herrialdean behar dena baino elektrizitate gehiago sortzen dela adierazi izan duzue...

Energia osoa kontuan hartuz, petrolio, gas naturala eta ikatza bezalako erregai fosilak erabiltzen dugun energiaren %80 dira eta guztia kanpotik ekartzen da. Baina elektrizitatearen kasuan, Nafarroan behar den adina bertan sortzen da. Gehiago ere bai eta esportatu egiten da: Gipuzkoara, Errioxara, Aragoira... Parke eoliko gehiago eraikiz gero,



denez aldi berean sortuko lukete elektrizitatea eta ez litzateke hemen kontsumituko izanen, kanpora bidaltzeko baizik. EAEn energia berriztagarrietatik elektrizitate gutxi ateratzen dela kontuan hartuz, Lesakako parkekoa Donostia aldera bideratzeko izanen litzatekeela pentsa daiteke.

Nafarroako Gobernuaren energia planak egungo ahalmena handitzea du helburu...

2018ko Energia Planean 2030-erako oraingo parke eolikoen kopurua bikoiztea aurreikusitua zen. Orain arteko proiektuekin kopurua erabat gauditua da eta esku artean dituzten parke guztiak eginez gero, bikoiztu ez ezik, hirukoiztu edo gehiago eginen litzateke.

Gobernuak parke batzuk galarazi eta bertze batzuk baimendu ditu. Lesakakoa nola ikusten duzu?

Zaila da zer gertatuko den jakitea. Energia Planaren arabera, herrigunetik mila metro behar dira haize errota eraikitzeke. Lesakako kasuan, baserriak bertan daude baina gobernuak eremu hori landa eremu izendatua duenez,

haize errota paratu daitezkeela dio. Leku horretan jendea bizi den baserriak daudela eta eragina jasanezina izanen dela kontuan hartuz, gobernuak proiektua ez onartzea da orain erronka.

Lesakako Udala aurka egoteak lagunduko luke?

Lagundu bai, baina guztiz oztopatu ez. Oraindik lehenbiziko fasean gaude, enpresak aurreproiektua aurkeztu du eta gobernuak udaletara eta bertze taldetara bidali du iritzia jasotzeko. Enpresak aitzinera segitzen badu, horiek kontuan hartuta, ingurumenaren duen eragina azaltzen duen txostena prestatu beharko du eta txosten hori jende aitzinean paratuko dute alegazioak aurkezteko. Gobernuak txostena eta alegazioak eskuetan dituen hartuko du txostenaren gaineko erabakia. Onartuz gero, enpresak behin betiko proiektua aurkeztuko luke.

Zein da zuen ustez bidea?

Parke eoliko edo fotovoltaiko gehiago egiteak ez du kontsumitzen dugun energia kopuruaren arazoa estaliko, kontsumitzen dugun energiaren %20 baino ez baita elektrizitatea. Hortaz, guztiz beharrezkoa da energia kontsumoa murriztea. Horrek batera, energia berriztagarria lortzeko egiten diren azpiegiturak ingurumenarekin eta herritarren bizitzarekin bateragarriak izan behar dute, ahalik eta kalte guttien sortuz.

Zerbait gehituko zenuke?

Hemendik aitzinera ingurunea suntsituko duten proiektu gehiago etorriko dira eta horrela ezin da aldaketa klimatikoaren aurka egin. Eredua aldatu beharra dago.

pena kolokan» dagoela: «nor biziko da bueltan-buertan haize errota inguratuta eta itota geldituko litzatekeen auzoan? Parke eolikoak muntatzen badigute arrot zaila izanen

dugu auzoan bizitzen segitzea. Gure belaunaldia joaten denean edo akaso lehenagotik ere hor ez da inor geldituko». Gerora gerta daitekeenaz ere ohartarazi nahi izan du: «50-60 urtez

energia atera eta ez dakigu gero zer gertatuko litzatekeen, hori ez da legetan ageri. Erren- tagarria bihurtzen ez denean dena betiko hor geldituzko arrisku handia ikusten dugu».

EUSKARAREN TXOKOA

Zaindu maite duzun hori...

Zein da zuzena?



***Arratsaldeko hiruak/lauak dira** edo **Arratsaldeko hirurak/laurak dira?**



Bi kontu *hiru* eta *lau* zenbakien inguruan.

Izenak direnean, hau da, zenbakiak adierazteko erabiltzen direnean, bokalez akitzen den bertze edozein izen bezala deklinatzen dira *hiru* eta *lau* hitzak:

- SINGULARRA: Biaren eta *lauaren* artean *hirua* sartu behar da.
- PLURALA: Gure alabak arras ongi marrazten ditu *hiruak*, *lauak* eta *zazpiak*, baina gainerako zenbakiak ez.
- MUGAGABEA: Zein *hiruren/lauran* azpian egin behar dut marra?

Baina batzuetan, ez dute izen-funtzioa, izenordainarena baizik. Adibidez: Uztailaren *lauan* (edo *hiruan*) jaio zen ('laugarren egunean' = 'lauan'). Mireia *lauretan* (*hiruretan*) etorriko da ('lau orretan' = 'lauretan').

Halakoetan, *-r-* gehituta deklinatu behar dira pluralean

- *Arratsaldeko hiruak/lauak dira > Arratsaldeko hirurak/laurak dira.
- *Lau aldiz egon naiz Anderrekin, eta lauetan ukatu dit kontu hori > Lau aldiz egon naiz Anderrekin, eta lauretan ukatu dit kontu hori.

Oharrak: *-r-* gehitze hori *hiru* eta *lau* zenbakiei bakarrik dagokie, eta ez *hamahiru/hamalau*, *hogeita hiru* / *hogeita lau* eta *kidekoei*. Bertzetik, *lau* zenbakia bokalez akitutako hitzak bezala deklinatzen da, eta beraz, *-e* gabe doa singularreko kasu hauetan: *lauan*, *lautik*, *laura* (***lauean**, ***lauetik**, ***lauera...**).

- *Urriaren lauean bukatuko da izena emateko epea > Urriaren lauan bukatuko da izena emateko epea.

Kalko ustelak

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

***HAIEK IRABAZI DUTE, ETA GUK ERE** edo **HAIEK IRABAZI DUTE, ETA GUK ERE BAI?**

Ere emendiozko lokailua da, eta gehitze-zentzua ematen dio aitzineko perpausean errandakoari. Erdaren eraginez arazo-bide gertatzen da aunitzetan. Hona hemen ere-ren erabileraren inguruan azalpen batzuk.

Erek aitzinetik sintagma edo osagai bat behar du beti, hark dakarren informazio berria nabarmentzen baitu. Beraz, ez da inoiz perpausaren hasieran paratzen.

- *Ere daude bertze karrika batzuk > Bertze karrika batzuk ere badaude.
- *Ere joan gaitezke hondartzara > Hondartzara ere joan gaitezke.

Aditza osorik —edo gutxienez aditz laguntzailea— ezabatzen denean, *bai* edo *ez* behar du esaldiak:

- *Haiek partida irabazi dute, eta guk ere > Haiek partida irabazi dute, eta guk ere bai.

Aditza eta *bai* batera erabiltzea ez da zuzena:

- *Guk ere bai badakigu hori > Guk ere badakigu hori.
- *Etxean ere bai egin dezakezu hori > Etxean ere egin dezakezu hori.

Bitxikeriak


Asmatu hieroglifikoa



- A

naiz zara

gara zarete dira



AITZINEKO ZENBAKIKO ATSOTITZA:
Bururik ez duenak zapel beharrik ez.

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

Euskararen kaleko erabilerak goiti egin du Bortzirietan

Halaxe ondorioztatu du Soziolingustika Klusterrak hizkuntzen kaleko erabileraren inguruan iaz egin zuen ikerketaren ondotik

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak hala eskatuta, joan den urrian Bortzirietako karraketan hizkuntzen erabileraren 60 orduko neurketak egin zituen Soziolingustika Klusterrak, eta horien emaitzak irailaren 4an aurkeztu zituzten Lesakan. Horren arabera, une hartan, euskararen karrakako erabilera %68,4koa zen Bortzirietan: %81,9koa Arantzan, %74,3koa Lesakan, %70,8koa Igantzin, %67,6koa Etxalarren eta %51,3koa Beran.

5.926 solaskidek parte hartu zuten 2.147 elkarrizketetan oinarritutako datuak dira Bortzirietako Mankomunitatearen eskariz egin den 13. neurketak utzi dituenak. Horren aitzineatik 2016an egin zen azkena eta geroztik 3,5 puntu goiti egin du euskararen karrakako erabilerak. Hala ere, aipatu behar da aldi honetan 5.926 solaskidetan oinarritutako emaitzak direla eta 2016an 1.967 solaskide izan zirela. Alde horretatik, «inoizko neurketarik fidagarriena» dela nabarmendu dute mankomunitatetik.

Bereziki haurrak

Neurketa egin zen denboran, karrakako elkarrizketetan euskara zen jaun eta jabe Bortzirietako herritarren artean: erabilera %68,4koa zen eta bere ondotik, gaztelania zen nagusi (%29,8) eta frantsesa (%1,1) eta bertze hizkuntzak (%0,7) maila apalagoan.

Adinaren arabera, berriz, euskarazko hiztun nagusienak haurrak zirela ondorioztatu zuten: haurretan %84,4koa zen erabilera, gazteen artean %74koa, helduetan %60,3koa eta adinekoetan %49,8koa.

Gainerakoan, neurketaren arabera, haurren arteko elkarrizketetan euskararen erabilera %88,5ekoa izan zen. Nagusiak bakarrik zeuden solasaldietan, ordea, erabilerak beheiti egiten zutela sumatu zuten (%56,5) eta haurrek eta nagusiek osatutako taldeetan, %79ko erabilera neurtu zuten.

Sexuari dagokionez, bertalde, alde handirik gabe, emakumezkoek euskara gizonezkoek baino gehiago erabiltzen zutela ondorioztatu zuten (%69,7 eta %66,7).

TTIPI-TTAPA Euskaraldiarekin bat

Eskualdeko hainbat entitate eta eragilek bezala, TTIPI-TTAPAK ere aurtengo Euskaraldiarekin bat egin du. Azaroaren 20tik abenduaren 4ra egingen da, eta aurten, norbanako bezala parte hartzeaz gain (*belarriprest* edo *ahobizi* izanda), taldean parte hartzeko aukera ere izanen da, *arigunee*n bidez. Horixe da, hain zuzen, TTIPI-TTAPAK aukeratu duena. Norbaitek, entitate bezala, hizkuntza ohiturak aldatzeko helburua duen ekimen honetan parte hartu nahiko balu, izena emateko irailaren 27ra arteko epea izanen luke. Informazio eta xehetasun gehiago: euskaraldia.eus.

Plan estrategikoa lantzeko saioa

Bortzirietako Euskara Mankomunitatea euskara biziberritzeko 2021-2024 aldirako plan estrategikoa prestatzen ari da. Bigarren plan estrategikoa izanen da eta, lehenbizikoarekin egin bezala, oraingoa ere bertako herritar eta entitateen parte-hartzearekin osatu nahi du. Helburu horrekin, mankomunitateak online galdetegia zabaldu zuen ekainean hainbat herritar eta eragileren artean eta 58 lagunen erantzunak bildu zituen. Aste honetan, berriz, aurrez aurreko saio parte-hartzailea egingen du, ortziraletan, irailaren 18an, Berako Kultur Etxean, 17:00etan. Saioan, batetik, aitzineko planaren ebaluazioari erreposoa emanen diote, eta bertetik, bigarren plan estrategikoaren ildo nagusiak landuko dituzte. Saio dinamikoa izanen da eta Elhuyar Aholkularitzak gidatuko du.



2013an egin zen lehen plana.

Mankomunitatetik adierazi dutenez, izena ematea beharrezkoa da, edukiera mugatua izanen baita. Irailaren 15a baino lehen egiteko eskatua zuen, telefonoz, Whatsapppe edo e-postaz: 948 63 41 25 / 680 65 06 50 / euskara@bortziria.eus.

MARITX
· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA

AUZOC GO!
Etxez etxeko zerbitzua
BERAn eta LESAKAn
ESKAERAK:
www.auzocgo.com · T.948 6315 09

Anterola
Tekniko Instalatzailea
ITURGINTZA · GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Jauzena
Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jauzena@gmail.com
Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformak, etxe berriak
Lantegietako mantenu lanak
Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxeko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK
DESIN BERA
DESINSEKTAZIOAK · ARRATOI-HILTZEAK · EGUR TRATAMEDUAK
T. 948 625 597 · Zalain, 42 B · BERA

Tio Teronen semeen 'Festamentua' ikusgai larunbatean

Dantza emanaldi honetaz gain, ipuin kontalaria eta antzerkia izanen dira hilabete honetan

TTIPI-TTAPA

Tio Teronen semeak taldeak *Festamentua* dantza emanaldia eskainiko du irailaren 19an, larunbatean 19:00etan Herriko Etxeko plazan. Eguraldi txarra eginen balu Altzateko pilotalekuan eginen litzateke hileta baten aitzakian, umorea, dantza eta musika uztartzen dituen saioa.

Irailaren 25ean, ortziralean 18:00etan herri liburutegian, Ines Bengoa ipuin kontalariak *Kamishibai* saioa eskainiko

du, 5 eta 8 urte arteko neska-mutikoei zuzendua.

Irailako kultur eskaintza borobiltzeko, hilaren 27an, igandean 17:00etan Kultur Etxean, *Etzerik txikiena* antzezlan taularatuko du Yarleku taldeak. Sei urtetik goitikoei zuzendutako emanaldira sartzeko lau euroko sarrera ordaindu beharko da. Nafarroako Antzoko Sareak eta Berako Udalak antolatu dute emanaldia, Nafarroako Gobernaren dirulaguntzarekin.

Ttipi-Ttapak zure laguntza behar du eta telefono-deiak eginen ditugu etxez etxe

Duela 40 urte sortu genuen TTIPI-TTAPA aldizkaria eta orduz geroztik, Bortzirietan doan banatu izan dugu. Hamabortzero iristen zaizu etxeko buzoira eta orain zure laguntza eske gatoz. Gure lankideek telefonoz deituko dizute, batetik zure datuak osatzeko asmoz eta, bertetik, proposamen hau eginez: urtean

TTIPI-TTAPARI 50 euroko donazioa egiten badiozu, hurrengo urteko Errenta Aitorpenean 40 euro itzuliko dizute. Hori posible da TTIPI-TTAPA Fundazioa MEKNaren (Mezenazgoa Kultura Nafarroa) barrenean dagoelako.

Orain behar beharrezkoa dugu zure elkartasuna. Beneran estimatuko dugu.



UTZITAKO ARGAZKIA

Xantel erreka eta inguruak garbitzen

Eguraldi txarrak ez zituen geldiarazi eta dozena bat beratar bildu ziren abuztuaren 29an Itzea inguruan egin zuten auzolanean. Iturrian elkartu ziren eta Xantel erreka eta inguruak garbitu zituzten, Itzeko iturritik Trukene etxeraino, Trukeneko arropa-garbitagia barne.



UTZITAKO ARGAZKIA

Led Silhouette taldearen emanaldia

Abuztuko kultur eskaintza Afrika Bibang abeslariaren musika-ekin eta Sun magoaren magiarekin bukatu baldin bazen, irailekoa Led Silhouette taldearen dantzarekin hasi zen. Gaizka Sarasolaren musikarekin, dantza emanaldi ederra eskaini zuten Martxel Rodriguezek eta Jon Lopezek kultur e3txean.

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info

JURIONE-GOXOTEGIA

Etxean egindako produktuak

948 630 786 • Alzate, 21 • BERA

LABE ZAR

Astelehenetik ortziraleara: 07:15etik aitzinera

Larunbata eta igandea: 08:00etatik aitzinera

948 631 076 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

© 948 630 763 • Alzate, 17 • BERA

xuga

tel. 948 631 519 | www.xugabera.com | www.facebook.com/xugabera

Mugikortasunari buruzko inkesta egiten hasiak dira

Irailaren 25era bitarte hamasei urtetik goitiko herritarren iritzia bildu nahi du udalak, plana zehazten hasteko

AITOR AROTZENA

«Mugikortasun arloan, Lesaka herri inklusibo eta jasangarri bat izateko bidean», herrigunearn zenbait aldaketa egin beharko lirakeela uste du udalak eta asmo horrekin mugikortasun planaren idazketan murgildu da buru belarri. Herrian oinezko eta bizikleta desplazamenduak sustatzea eta guztiontzako erosoia eta irisgarria den herri bateranzko saltoa ematea dira helburuetako batzuk.

Horretarako, udalak Hiritik at kooperatiba lagun duela, mugikortasun plana osatzeko prozesua jarri du martxan, eta herrian nola mugitzen garen aztertu, ditugun gabezia eta beharrak detektatu eta hauek oinarri hartuta epe motz-ertaineko erronkak mahai gainean jarriko dituzte.

Herritarren iritzia jasotzeko prozesu parte-hartzailea jarri du martxan udalak, eman beharreko aldaketak, herritar ororen errealitateak kontuan hartuz, erabakiak izan daitezten.

Prozesu parte-hartzailearen baitan, irailaren 14tik 25era, 16 urtez gairidiko Lesakan erroldatutako herritarrek galdetegi bat betetzeko aukera izanen dute. Honen bidez, mugikortasun ohituren inguruko informazioa jasoko da, neurri zehatz batzuen inguruko iritzia eman ahal izanen

dute eta azkenik proposamenak luzatzeko tartea edukiko dute. Galdetegia bete ahal izateko bi bide zabalduko dira. Alde batetik, udalaren web orrian zintzilikatuko da, bertan online bete ahal izanen delarik. Bertetik, herriko zenbait komertziotan, Xagun, Orekan, Ogi berrin eta Izarra okindegian, paper formatuan eskuratu ahal izanen da, eta ondotik udaleko administratuzan entregatu beharko da. Datu pertsonalen eta bertan idatzitakoaren konfidentziaztasun osoa mantenduko da eta pertsona bakoitzak behin bakarrik erantzun ahaliko du.

Eragileekin bilerak

Honetaz gain, herriko kolektibo/eragileekin bilerak egiten ari da talde teknikoak. Hala nola, ikastetxeak, guraso elkarteak, udal langileak, arkitektoak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, ostalariak, merkataria, adinekoen elkarteak, eta gisakoak izaten ari dira elkarrizketatuak.

Ikerketa faseak urte bukarrera arte iraunen du, behin informazio guztia jasotzen denean, talde teknikoaren lana izanen da hau guztia prozesatzea eta proposamenari forma ematea. Prozesuari amaiera eman eta mugikortasun planaren aurkezpen ekitaldi bat ere egingen dute.



Garbiketa lanen ondotik, itxura berria hartu du Biurra erreka. UTZITAKOAK

Biurra erreka garbitu dute Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak eta udalak

AITOR AROTZENA

Bitxia da Biurra errekaekin pasatu zaiguna egun hauetan. Sasiak harturik, ia ezin genuen ikusi ondoan izanda ere. Aurregia eta bazterrek garbitu dizkiote Kantauriko Konfederazio Hidrografikokoek, udalarekin elkarlanean. Orain, erre-

zago egiten zaigu aitzinean dugunaz ohartzea, ikustea eta baloratzea.

Lerro hauen bitartez, udalak eskerrak eman nahi dizkie ur bazterrean lanean aritu direnei. «Badirudi gure begietan ere zerbait garbitu duzuela», dio oharrean.

Arrano elkartearen eguna bigarren urtez ospatuko dute irailaren 19an

Arrano Eguna antolatu dute irailaren 19an. Aurten testuinguru berezian egingen dute osasun krisi baten baitan, eta horretara egokitu dute egitaraua. «Urteroko data mantendunahi dugu, nahiko genukeen formatoan ezin egin arren, aurtengo bertze pausotxo bat izanen da datorren urteko besta egunaren bidean», dio-

te. Larunbat goizean plazatik mendi irteera egingen dute oinez edo bizikletan Aginara eta bertan hamaiketako egingen dute denek elkarrekin. 14:30ean bazkaria izanen dute. Arrano ostatuan bertan apuntatu behar da eta bazkideek lehentasuna izanen dute leku arazoak baldin badira. Bazkaldon kantaldia izanen dute.



ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA

EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika · BERA
zubiondojatetxea.com



Hemen erabili



kattagorria
LESACA
948 627 514
www.kattagorria.com



IRU-BIDE
OSTATU · JATETXEA

Arratzubi Kalea 3
31770 LESACA
T. 948 63 71 27

Gutienez 27.870 euro bilduko dira usategietatik

Irailaren 5ean Kultur Etxean egindako lehen enkantean zazpi postu hutsik gelditu ziren eta 15ean egitekoa zen bigarrena

IRUNE ELIZAGOIEN

Irailaren 5ean Kultur Etxean izan zen Usategietako postuen lehen enkantea. Denera 21 ehiza postu esleitzen zituzten eta horietatik zazpi hutsik gelditu dira. Gainerako 14 postuengatik gutienez 27.870 euro bilduko ditu udalak. Segidan sei egun naturaleko epea ideki zen sesta emateko eta lehen enkantean egin diren behin-behineko esleipenak hobetzeko. Irailaren 15ean egitekoa zen bigarren enkantea. Bertze

urtetan bezala, bi posturik garestienak zortzigarrena eta hamaikagarrena, 3.380 eurotan atera dituzte. Hala ere, zortzigarrena esleitu gabe gelditu da eta hamaikagarrena atera den prezio berean esleitu dute. Hamabigarren postuak bakarrik hobetu dute hasierako prezioa, 1.710 eurotik 2.640 eurora altxatuz. 1, 2, 8, 15, 16, 17 eta 18. postuak hutsean gelditu ziren eta gainerako postu guztiak hasiera-ko prezioan eman dituzte.

Mila lagunek erabili dute Turismo Bulegoa uda honetan

Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra zabalik egon den turismo bulegotik 1.001 pertsona pasatu dira (iaz baino 158 gutiago), hauetatik %94 estatu espainiarretik etorriak eta %6 estatutik kanpokoak (iaz %15a izan ziren). Valentzia, Madril, Bartzelona, Gipuzkoa eta Bizkaiatik gerturatu dira gehienbat. Aurten Euskal Autonomia

Erkidegotik gehiago etorri dira asteburuetan egun-pasa. Jendearen interesak ere aldatu direla nabaritu da, eta hirietara egun pasa joan beharrean herri ttiketian edo erreka eta mendi inguruan ibili dira. Bisita gidatuen aldetik zazpi egin dira uda osoan zehar herriko eta inguruko historia eta anekdotak kontatuz.



JABIER IRIARTE

Telebistarako grabaketak egin dituzte

Uztailaren 27an eta 28an La1 katekoak izan ziren *Rutas Bizarras* saioko grabaketa egiten. Gidari eta aurkezle lanetan Xose Antonio Touriñan eta Marta Hazas aktoreak ari dira. Xanti Elizagoienek kontrabandoko kontuak kontatu zituzkien eta Pello Apezetxearekin elizako lorategian egin zuten grabaketa.



MIGUEL MUÑIZ

Itsaso Elizagoienek udako bira egin du

Uztailaren 23an joan eta iraila hasiera arte *Lugares Máficos* udako bira egin du Itsaso Elizagoienek Carlos Nuñez eta bere taldearekin. Hamar kontzertu eskaini dituzte; tartean Celanova, Melón, Jaca, Bartzelona, Nigrán eta bertze hainbat. Hurrengo kontzertua Oviedon izanen dute irailaren 27an.

AMA KONTXA

GASOLINDEGIA

- ONGI FILTRATUTAKO ERREGAIA (A Gasolioa, B Gasolioa, SP 95, Adblue)
- 24 ORDUKO ZERBITZUA
- TELEFONOA ETA FAXA
- APARKALEKUA
- KUTXAZAIN AUTOMATIKOA
- SUPERMERKATUA
- LABETIK MOMENTUAN ATERATAKO PIZZAK ETA OGIA
- ARROPA GARBIGAILUA ETA LEHORGAILUA

Ctra. N-121-A · Km 48,8 · DONEZTEBE · T. 948 450 272 · 948 450 787

GASOLIOA ETXERA

ETXERA BEREHALA ERAMATEN DUGU. PREZIO LEHIAKORRA

Mila esker gurekin bat egiteagatik!

arropa-denda | etxeko osagarriak | lentzeria
Alzate, 30 BERA T. 948 630 136

USOA
Nekazari kooperatiba

ORAIN GASOLINA ERE

T. 948 635 214 ETXALAR

Emakumeentzako arte topaketa urrian eta azaroan

Adin guztietako emakumeei zuzendutako tailerra izanen da eta urriaren 4ra arte eman daiteke izena

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Ane Sirera herriko gazteak, Igantziko Udalaren bidez, Nafarroako Gobernuan berdintasunarekin lotuta dagoen proiektu bat aurkeztu zuen. Gobernuak proiektua onartu eta dirulaguntza eman dio eta, horri esker, *Ahizpatasun artistiko tailerra*, emakumeentzako arte topaketa, antolatuta du.

Adin guztietako emakumeei zuzendutako tailerrak urriaren 9tik azaroaren 7ra bitarte izanen dira, ortzirale arratsaldeetan (17:30etik 20:30era) eta

larunbat goizetan (09:30etik 12:30era). Parte-hartzaileak hamar egunez Igantziko gimnasioan (eskoletan) bilduko dira.

Izen-ematea

Interesa duten guztiek 600 01 96 01 telefonora deituz edo a.sirera@ber2web.com helbidera idatziz izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko modua dute eta urriaren 4a, lehenbiziko larunbata, izanen da apuntatzeko edo informazioa eskuratzeko honddarreko eguna.

Antonio Gerra herriko ezkila-jotzailea hil da abuztuaren 28an

Herrian beti aditu ditugu ezkilak egun berezietan. Azken urteetan Antonio Gerra genuen horretan aritzen zen bakarra; abuztuaren 28an, ordea, berarekin batera, ezkilak isildu ziren. Momentuan ez du inork bere lekukoa hartu. Eskerrak aunitz orain arte horretan aritu zaretenei!



Nagore Madariaga izanen da Igantzi eta Arantzako idazkari

Orain arte Arantza eta Igantziko udaletan idazkari lanetan aritu denak lanpostua utzi du. Hori horrela, hemendik aitzinera, bere ordeaz, Nagore Madariaga Iriarte sunbildarra izanen da bi herrietan idazkariari dagozkion lanak egingen dituen.

Genero indarkeria lantzeko zineforuma izan dute

Buruilaren 11n genero indarkeriarekin lotutako bigarren ekintza izan zuten herrian. Oraingo honetan *Mustang* pelikulari buruzko zineforuma antolatu zuten eta parte-hartzaileek gaian aditua den Mirren Orozko izan zuten dinamizatzaile.

Hezkuntza komunitatea neurriak berrikusteko sinadura bilketarekin bat

Joan den astelehenean, buruilaren 7an, hasi zuten ikasurtea herriko eskolan, koronabirusaren aitzinean estatuak ezarritako neurri zorrotzekin.

Irakasle zein guraso gehientzat neurri hauek «gogorregiak eta zentzugabeak» dira eta «umeen hobe beharrez,

egoera lasaitzen denean, neurriak malgutzea» espero dute.

Eskaera hori bera egin zuen Ricardo Barojako irakasle talde batek eta horretarako sinadura bilketa abiatu zuen. Hezkuntza komunitateak Beratik egin zuten deialdi horrekin bat egin zuen.

Sagartxokon prestatutako garbigunea erabilgarri dago

Lerro hauen bitartez, herritarrei Sagartxokon prestatutako garbigunea aspaldixko erabilgarri dugula oroitarazi nahi diegu. Bertara joateko, giltza udaletxean eskatu behar da. Ea denon artean gure herriko txokoak garbiago mantentzea lortzen dugun!



E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.eus

BERA

Bizikleten salmenta eta konponketa.

Kanttonberri, 1 | BERA
T. 948 631 218
joxemi@kateabike.com
www.kateabike.com

SCOTT **GIANT** **MERIDA BIKES**
ORBEA **BH** **CANON**

Gazteen arteko genero indarkeria lantzeko tailerrak

Udalak antolatutako tailerraren bigarren saioa ortzegun honetan egingen da, Idoia Lekue Peñak gidatuta

NEREA ALZURI

Genero indarkeria gazteen arteko harremanetan. Izenburu horixe duen tailerra paratu du martxan udalak, izenak berak dioen bezala, gazteei bideratuta. Martxoan zaintzaren inguruan aritu ziren bezala, aldi honetan, gazteekin genero indarkeriaren gaia landu nahi izan du udalak.

Espainiako Gobernuak genero indarkeriari aurka bideratutako dirulaguntzarekin antolatu du tailerra eta adinaren arabera, bi saiotan banatu dute.

Bi saio

Lehenbizikoa, joan den larunbatean, egitekoa zuten, Idoia Lekue Peñak gidatuta, 15 urtetik goitiko gazteekin. Ortzegun honetan, berriz, irailaren 17an, bigarren saioa egingen dute. Kasu honetan, 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako saioa izanen da eta 17:00etan eginga dute hitzordua. Bigarren hori ere Lekuek gidatuko du eta aitzinekoan bezala, herriko etxeko bilera aretoan elkartuko dira. Edukiera mugatua denez, 678 03 50 16ra deituz izena eman behar da.

Egoerara egokituz eskolako jantoki zerbitzua ere martxan da

N. ALZURI

Irailaren 4an hastekoak baziren ere, azkenean, hilaren 7an abiatu zuten ikasturtea eskolan eta lehenbiziko egunetik bertan bazkaltzeko aukera izan zuten haurrek.

Guraso elkarteak kudeatzen du jantoki zerbitzua eta hemen ere, egoera berrira egokitu behar izan dute osasun eta segurtasun neurri guztiak bete ahal izateko. Hainbat modu aztertu ondotik, denentzako ahalik eta egokiena izanen den bidea landu dute elkarreko kideek eta erran digutenez, ongi moldatzen ari dira.

Egunerokoa, ikasgeletan dituzten elkarbizitza taldeak mantendu dituzte jantokian. Bi txandatan bazkaltzen dute: orain, irailaren, 13:00etan lehenbiziko taldeak eta 13:30 pasatxotan bigarren taldeak. Haur

Hezkuntzakoak, hala ere, 12:45ean hasten dira bazkaltzen.

Urriketik aitzinera, berriz, 14:00etan eta 14:30 pasata izanen dira bazkalorduek. Hemen ere ttikiak lehenbiziko txandan ordu laurden bat lehenagotik hasiko dira bazkaltzen. 15:20an, berriz, ikasle guztiak etxera joanen dira.

Bazkalondoko tartearak, eskolako patioan, frontoian eta parkean izaten dituzte. Eguraldi kaxkarra denean, ttikiaren taldea salto gelan egonen da.

Zaintzaileei dagokionez, gune bakoitzean zaintzaile bana izanen dute eta lantaldea iaz bezala, Maixe Oskoz sukaldariak eta Ixabel Lukanbio, Loli Mutuberria eta Edurne Iparragirre zaintzaileek osatzen dute.

Nagore Madariaga Iriarte Arantza eta Igantziko idazkari

Joan den irailaren 1etik Nagore Madariaga Iriarte sunbeldarra da udaleko idazkari berria. Azken urtean lan horretan ari zen Ainara Velez Ara beratarrak Urroz, Oiz, Beintza Labaien eta Donamariako idazkari lanpostua atera du.

Udazkena aitzinatu dela dioten koloreak

Pixkanaka uda bere akabailara ailegatzen ari da. Aurten udazkena aitzinatu zela zioen Jose Ramon Amorosek argazki honetan, duela 15 egun ezkurak onduak ageri baitziren. Irudian ikusten den bezala, iratzeetan ere hasiak dira herritarrak.



JOSE RAMON AMOROS / JOXEMA BARRENETXE



cristalería
BIDASOA

COVID-19tik babesteko neurria egindako manparak
Dutxetako manparak · Kristalezko barandak
Ate korrederak · Sukaldeko aurrealdeak
Koadroentzako markoak
Ispiluak · Beira dekoratiboak

Gipuzkoa etorb., 26 - 20302 IRUN - T. 943 61 30 63
info@crisaleriabidasoa.com



F. LANCHAS

Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea jartzea
Mota guztietako zolak

Tel: 948 630 735 M: 620 172 679




aterpe
albergea jatetxea ostalua

T. 948 634 179 | ARANTZA
www.arantza.net

HEZKUNTZA

Eskualdeko 5.927 ikaslek hasi dute ezohiko ikasturtea

Neurri bereziekin hasi dute ikasturtea Baztan, Bertizarana, Bortziriak, Leitzalde, Malerreka, Urumealdea eta Xaretako ikastetxeetan

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAK

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	0	0	214	0	0	474
Almandoz IP			5			1
Amaiur IP			7			19
Arizkun IP			8			21
Arraioz IP			8			17
Azpilkueta IP			9			11
Baztan Ikastola			62			137
Elizondo IP			60			155
Erratzu IP			12			28
Gartzain IP			5			8
Irurita IP			23			39
Lekaroz IP			5			7
Oronoz IP			6			22
Ziga IP			4			9
BERTIZARANA	0	0	20	0	0	49
Legasa IP			11			25
Narbarte IP			9			24
BORTZIRIAK	12	16	231	29	22	549
Arantza IP			17			45
Bera (Ricardo Baroja)			49			150
Bera (Labiaga Ikastola)			40			106
Bera (Jesusen Bihotza)	12	16		29	22	
Etxalar IP			25			62
Igantzi IP			16			36
Lesaka (Irain IP)			55*			82
Lesaka (Tantirumairu)			29*			68

*2 urteko ikasleak barne.

	BIGARREN HEZKUNTZA			BATXILERGOA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
BAZTAN	28	0	339	0	0	126
Lekaroz	28		339			126
Elizondo						
BORTZIRIAK	23	13	356	0	0	109
Arantza IP			9			
Bera (Toki Ona)	23	13	301			109
Bera (Labiaga Ikastola)			46			
LEITZALDEA	0	0	231	0	0	116
Goizueta			14			
Leitza (Amazabal)			217			116
MALERREKA	0	0	221	0	0	0
Doneztebe (Mendaur)			221			
XARETA	188	130	10	0	0	0
Senpere**	188	130				
Urdazubi-Zugarramurdi			10			
Guztira	239	143	1.157	0	0	467

**Senperen Bigarren Hezkuntzako datuak Arretxea Kolegiokoak dira eta Heziketa Zikloko datuak Laborantza Lizeokoak.

	HAUR HEZKUNTZA			LEHEN HEZKUNTZA		
	A eredua	B eredua	D eredua	A eredua	B eredua	D eredua
LEITZALDEA	0	0	135	0	0	284
Areso IP			12			18
Goizueta IP			23			43
Leitza IP (Erleta)			100			223
MALERREKA	0	0	142	0	5	319
Doneztebe (S. Migel)			95		5	205
Ituren IP			21			49
Saldias IP			6			6
Sunbilla IP			20			59
XARETA	94	169	90	224	221	161
Sara (Publikoa)		26		7	20	
Sara (St. Joseph)		38		9	49	
Sara (Oihain Ikastola)			32			75
Senpere (Publikoa)	32	63		70	95	
Senpere (Amotz publ.)	27			90		
Senpere (Zaldubi ikas.)			45			59
Senpere (St. Joseph)	35	42		48	57	
Urdazubi-Zugarramurdi			13			27
Guztira	106	185	832	253	248	1836

HAUR HEZKUNTZA

-%4,18

LEHEN HEZKUNTZA

+%2,99

HEZIKETA ZIKLOAK							
LHB		OLH		Erdi M.		Goi M.	
A	D	A	D	A	D	A	D
7		33		127		25	
	7		33		41		25
				40		31	
				40		31	
				0		0	
				0		0	
				0		198	
						198	
				7		33	
				167		254	

BIGARREN HEZKUNTZA

+%4,06

BATXILERGOA

+%26,56

HEZIKETA ZIKLOAK

+%3,36

«Eskolek enpresek dituzten arauak izan beharko lituzkete»

ARRATE LEIZEAGA UNSAIN ZUBIETAKO GURASOA

TTIPI-TTAPA

Ikasturtea hasi da baina kezkek ez dira akitu. Ikasleak ikasge-lara itzuli arren, guraso batzuek «beldurtuta» segitzen dute. Horixe da Arrate Leizeaga Un-sainen (Zubieta, 1989) kasua.

Familiak elkar babestuz

Abuztu hondarrean seme-alabak Donezteben eskolatuak dituzten hamalau familia bildu ziren, elkar lagunduz, ezohiko ikasturte honi begira dituzten kezkek azalera-tzeko. Taldekideen artean da Arrate Leizeaga. Eskolak hasi dira, baina guraso hauen ustez itzu-lera «segurtasun neurriak bermatu gabe» egin dute: «lagunartean hamar lagun ez elkartzeko nabarmendu dute behin eta berri, baina eskolak ematerako orduan arauak hautsi dituzte eta taldeak handiagoak dira...».

Hartutako neurriak

«errealitateetik urruti»

Hezkuntza Departamentuak talde egonkorren alde egindako apustua ere «errealitateetik urruti» ikusten dute zenbait gurasok: «haurrek anai-arrebak dituzte, gehienetan ez dira adin berekoak eta autobusa eta jangela partekatuko dituzte. Ez dakigu zein den neurri horrek pandemiaren aurrean ekar dezakeen onura...».

Maskarak jantzita eramana-gatik, erabilera ez dela egokia izanen eta ez dituztela babes-tuko iruditzen zaio zubieta-rrari: «txikienek ez dituzte

**«HEZKUNTZA
BEHARREZKOA DA
BAINA EZ OSASUNA
BEZAINBESTE»**



Arrate Leizeaga Unsain.

behar bezala ibiliko, sudurra bistan eramanen dute, behar dena baino gehiago ukitu...».

Neurriak ezagutzeak bezain-beste kezkatu du hondarreko momentura arte neurrien berri ezizateak: «irailaren 4an hastekoa zen ikasturtea eta 2an izan genuen hasierako bilera...». Dena horren azkar egin ordez, batzuen ustez «hasiera gibelatzea edo txikienek behintzat eskolaratzea derrigorezkoa ez izatea» izanen litzateke egokiena: «seme-alabak ez bidaltzea, ordea, absentismoa-ekin lotu dute eta isunak eta kartzela zigorrak izanen direla esanez mehatxatu gaituzte...».

Eskaerak

Leizeagaren eskaera argia da: «eskoletan gainerako lekueta-rako eta enpresa pribatuetara-ko paratu dituzten arau horiek guztiak bete beharko lituzkete, horretarako beharrezkoak diren maisu-maistrak, garbitzaileak, autobusak... kontratatuz». Eta protokoloak «hitzetik ekintze-tara pasatu arte» ez da lasai egonen: «hezkuntza beharrez-koa den arren, ez dagoelako osasunaren gainetik».

Euskara ikasleendako dirulaguntza eskaerak urriaren 2ra arte aurkez daitezke

TTIPI-TTAPA

2019ko urriaren 1etik 2020ko irailaren 30era arte euskara ikasleek egindako ikastaroen matrikula gastuak ordaindu ahalizateko dirulaguntza deialdia egin du Malerrekako Mankomunitateak. Laguntza ikastaroan izandako bertaratzearen arabera izanen da eta, gehienez ere, matrikula gastu osoaren adinakoa izanen da.

Bertaratzea saioen %85etik goitikoa izan denean, ikasleak kostu osoaren zenbatekoa jasoko du; saioen %70-85 artean izan bada, dirulaguntza %75ekoa izanen da eta %70etik beherakoa denean ez dute laguntzarik jasoko. Gehienez 380 euro emanen zaizkie.

Baldintzak

Eskatzaileek gutxienez 16 urte izan beharko dituzte, Malerrekako Mankomunitatea

IKASLEAK MATRIKULAREN ZENBATEKOA OSORIK JASO DEZAKE

osatzen duten udalerrietako batean errolatuak egon edo mankomunitateko langile izan beharko dute.

Epeak

Eskabideak eta gainerako dokumentuak aurkezteko epea irailaren 1etik urriaren 2ra egonen da zabalik. Eskatzaileak eskaera orria (Malerrekako Mankomunitatearen webguretik deskarga daiteke), nortasun agiriaren fotokopia, errol-datze ziurtagiria, euskaltegiko izen-emate orria, ordainagiria eta administrazio publiko zein entitate pribatuei eskatutako dirulaguntzen aitortpena aurkeztu beharko ditu Malerrekako Mankomunitatean.

Bateragarritasuna

Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuko emandakoekin, gainfinantzaketarik gertatzen ez bada.

Dirulaguntzari buruzko oinarriak eta xehetasunak www.malerrekakomankomunitatea.eus webgunean eskuragarri daude.



UTZITAKOIA

Euskaraldiarekin bat

Katubi ikus-entzunezko produkzioen laguntzaz, Malerrekako Euskaraldia batzordeak bideotxo bat egin du. Herritarrak azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitarte Euskal Herri osoan euskararen erabilera indartzeko eginen den ekimen kolektiboan parte hartzera gonbidatu nahi izan dituzte.

Trafiko ordenantza azaltzeko bileren datak finkatuak

Auzoaren arabera, irailaren 17an, 24an eta urriren 1ean eta 8an egingen dira, zinema aretoan 20:00etan

MARGA ERDOZAIN

Azkeneko urtetan udalak prestatu duen trafikoa arautzeko ordenantzak urrats garrantzitsuak emanen du, irailean eta urriaren bitartean informatiboak egingen baitira. Bilera guztiak iluntzeko zortzietan zinema aretoan egingen dira. Ordenantza auzokara aurkeztuko denez, honako hitzordu eta auzoetan banatu da.

Irailaren 17an: Mourges Etorbidea, Nagusia, Intzakardi, Foru plaza, Rosa Seminario eta Merkatarien karrika (1-17).

Irailaren 24an: Elizagibela, Sagardia, Parrokia, Karrika Nagusia Intzakardiraino, Zeharbide Nagusia, Merkaturako etorbidea (Caixaraino) eta Santa Luzia. **Urriaren 1ean:** Ameztia, Ameztia zeharbidea eta Merkaturako (Caixatik Elgorriarriako zubiraino). **Urriaren**



Trafiko araudi berria azalduko da.

8an: Leitzako errepeidea, San Miguel auzoa, Zazpigarutze eta San Miguelgaina.

Bilera horiek egin ondoren, ordenantzak dagokion bidea jarraituko du onartu eta ezarpena lortu arte. Herriko mugikortasuna, bide segurtasuna eta trafiko antolaketa... arautuko ditu udalak ordenantza honi esker eta ahalik eta iritzirik gehien biltzeko, bileretara agertzeko deia egin du.

'La fea, la mala y la mejicana' antzerkia irailaren 26an

La fea, la mala y la mejicana antzerki emanaldia irailaren 26an, larunbatean, 19:00etan Santa Luzia plazan antolatuko du udalak. Emanaldi hau gaztelaniaz izanen da eta segurtasun neurri guztiak beteko dira. Eurria egingen badu, Ezkurra pilotalekuan egingen da.

Euskaltegiko matrikulazio epea irailaren 30era arte

IKA euskaltegiak ikasturte berrirako matrikulazioa zabalik du irailaren 30era arte. Maila guztiak, baita EGA eta C1 ikastaroetan ere izena ematen ahal da, doan, 948 45 15 55 telefonora deituz edo malerreka@ikaeuskaltegiak.eus helbidera idatzita.



Eskolarako bideak markatzen dituen panela. UTZITAKOIA

Eskolara oinez joateko bide seguruak azaltzen dituzten panelak paratu dituzte

MARGA ERDOZAIN

Udalak bide seguruak (eskolara oinez joateko bideak) martxan jartzeko panelak paratu ditu. Udala, mankomunitatea, San Miguel ikastetxea eta Mendaur Institutua dira ekimen honen bultzatzaileak. Pasa den apirilaren abiatu behar zen ekimena atzeratu behar izan da. Udan hainbat lan burutu dira eta dagoeneko sei ibilbide seguru identifikatu eta markatu dituzte ikastetxeetara oinez, bizikletaz edota patinetez joan ahal izateko. Plakak jarri dira eta lurreko seinaleak agudo markatzen hasiko dira. Ibilbi-

de bakoitzari kolore eta zenbaki bana egokituko zaio: 1-Berdea (Mourges ibilbidea: 10 minutukoa eta 750 metrokoa); 2-Urdina (Agorreta ibilbidea: 600 metrokoa eta 8 minutukoa); 3-Laranja (Dorrea: 325 metrokoa eta 4,5 minutukoa); 4-Morea (Ameztialdea: 250 metrokoa eta 3,5 minutukoa); 5-Gorria (Zazpigarutze: 250 metrokoa eta 3,5 minutukoa) eta 6-Urdina (Leitzaldea: 675 metrokoa eta 9 minutukoa). Ekimena martxan paratu ahal izateko azkeneko seinalizazioak pintatzea eta bultzatzeko kanpaina burutzea faltako lirake.

Udal zerbitzuak eta kirol egoitzak protokoloak atontzen ari dira

Herriko etxeko arduradunak egoitza eta bertze zerbitzuetako protokoloak eta kontingentzia planak zehazten ari dira irailean, zerbitzu horiek segurtasun osoz ideki ahal izateko. Horrela, Agorreta Musika Eskola, Liburutegia, Ezkurra pilotalekua, kiroldegia,

Herrigunea eta Azkarreta egoitzak, dagokien protokoloa ezarrita, ikasturte berria hasiteko prest egingen dira. Kirol eta kultur jarduerak, musika, ikastaroak, ipuin txokoa, bertso eskola... prestatzen ari dira eta urriaren eskaintzeko moduan egingen dira.

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

ANTZUZELAI:
S.L. - 21

BERA • T. 948 63 13 17
info@antzuzelai.com
www.antzuzelai.com

HARGINTZA
FATXADAK
TXIMINIAK
ZOLAK
TAILLA ARTISTIKOAK
OBRAK





Aurtengo ikasturtea berezia izanen dela ongi erakusten dute jolastokiko eta jangelako irudiek. M.PETRIRENA ETA RAKEL URTXEGI

Ikasturte berriari ere eragin dio egungo osasun egoerak

Sektoreka banatu da ikastetxea eta patioak nahiz jangela zatika banatu eta erabiltzeko ordutegiak ezarri dituzte

MAIDER PETRIRENA

Eskolako ikasle eta irakasleek hasiera eman diote ikasturte berriari. Hasi aitzinetik gurasoek jarraitu beharko duten kontingentzia planaren berri izan zuten bakoitzak bere seme-alaben tutoreekin egindako bileretan. Eskolan lan handia egin dago eta egoera

berezia izanik, sektoreak egitera behartuak izan dira. Horrez gain, jolastokira ateratzeko orduan ere goitiko nola behitiko eraikinetako patioak bereizita daude, baita herriko plaza ere, jolas-orduetan patio bezala erabiltzeko.

Jangela zerbitzua eskaini ahal izateko, obra batzuk ere

egin behar izan dituzte, hor ere eskolako sektoreak kontutan hartuz. Jangela zerbitzuko ordutegia irailean 13:00etatik 15:00etara bitartekoa izanen da. Bertan dauden ikasleak bi ordutegi izanen dituzte jangelatik atera nahi badute: 14:15ean eta 15:00etan. Lehenagotik atera behar izanez gero, jangelako zaintzaileei jakinarazi behar zaie.

Urritik aitzinera eskolako ordutegia jarraia izanen denez, 09:00etatik 14:00etara, jangela zerbitzua ondotik eskainiko da, hau da, 14:00etatik 15:45era (15:00etan eta 15:45ean ateratzeko). Beraien seme-alaben bila etortzen diren guraso guztiek frontoiko atean esperatu beharko dute.

Neurri zorrotzekin, Pulunpa eskola martxan da berriz

Protokoloa zehaztuta eta familia, irakasle zein udalari azalduta, ikasturteari hasiera eman diote Pulunpa eskolan. Alderdi emozionalari inoiz baino garrantzi haundiagoa emanez, indartze-lanketak egiten ari dira, ziurtasun neurriak egunero birpasatu eta aplikatuz. Orain arteko 65 ikasleez gain, bertze bortz ikasleek hasi dute ikasturtea eta irakasleen lan haundiarekin eta beraien prestutasunarekin, musukoak jantzi eta eskuak ongi garbituz, kontent egin dute klaseetara buelta.

Trikitixa eta pandereta eskola urritik aitzinera

Bertze urteetan bezala, Mendaur trikitixa eta pandereta eskolan ikasturtea martxan jarriko dute urritik aitzinera. Aurtizko beraien lekalean segurtasun neurriak kontutan edukiko dituztela jakinarazi dute eta apuntatu nahi duenari azkar ibiltzeko deia egin diote.

Ulibeltzak elkartearen egunik eta BTT probarik ez

Irailaren 13an egitekoa zen BTT proba arrakastatsua bertan behera gelditu da. 2021ean indar eta gogo gehiagorekin egingen da. Ulibeltzak elkartek bazkide eguna ospatzen du irailean, baina egun eder hau egin gabe gelditu beharko dute elkarteko bazkideek.



Aurten ez da mendi bizikleta probarik egingen herrian. Hurrengoan beharko!

Edurne Arretxeak garbituko diru herriko eraikinak

Iturengo Udalak egindako garbitzaile lanposturako deialdiak arrakasta haundia izan du. Bertze urte batez Edurne Arretxea herriarraren esku utzi dituzte herriko eraikinen (eskola, medikuaren kontsulta, herriko plaza eta Aurtizko frontoia) garbiketa-lanak.

LIZUN
GAZTANDEGIA

Sunbilla · Tel: 948 450 862

→ IDIAZABAL

BORDALARR, S.L.

Carnes Sein Haragiak, S.L.

Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
T. 943 467 244 | 943 467 444 • carnessein@bordako.com

Gurin Haragiak
Nuestra Carne

MALERREKA /BERTIZARANA

Narbarteko ostatua errentan emateko deialdia irekita

Interesa dutenek, xehetasunen berri izateko, 659 18 63 65 telefonora deitu beharko dute

TTIPI-TTAPA

Joan den urriaz geroztik itxita egon ondotik, Narbarteko kontzejuak, berriz ere, Herriko Ostata errentan emateko deialdia egin du. Interesa dutenek eskaerak egin ahal izateko hilabete bateko epea izanen dute.

Errentan hartzeko bete beharreko baldintzen berri izateko edota zalantzak argitu ahal izateko, 659 18 63 65 telefonora deitzeko eskatu dute. Modu horretan, zuzenean interesatuta dagoenarekin harremanetan jarri eta xehe-



Urriaz geroztik itxita dago ostatua.

tasun guztiak argitzeko modua izanen dutela adierazi dute.

Bertso-eskoletan parte hartzeko izen-ematea irekita

TTIPI-TTAPA

Irailaren 27ra arte zabalik da Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatutako bertso eskoletarako izen-ematea. Iturenen Lehen Hezkuntzako 5. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailara bitartekoak kontsulta zaharrean

bilduko dira, astearteetan, 16:00etatik 17:00etara bitarte. Donezteben, berriz, hiru egunez izanen dute: astelehenetan 15:00etatik 16:00etara (Lehen Hezkuntzako 6. mailakoak); 16:00etatik 17:00etara (1. DBH-koak); eta ortziraletan helduak 18:00etatik 20:00etara.



Herriko dantzariak berriz ere gerriak mugitzen hasiak dira. UTZITAKOIA

Yoga klaseak eta herriko dantzariak berriz martxan Urrozen

JAIONE ARIZTEGI

Urrozko dantzariak urte batzuk daramatzate dantza entseguak egin eta herriko bestetan, Eguberrietan zein Malerreka Egunean ikuskizunak eskaintzen. Aurten, denbora luzez geldirik egon ondotik, hasiak dira gerriak mugitzen, aitzinetik ikasitako dantzak erreparasatu eta gehiago

ikasteko. Horrez gain, berrikuntza gisa, aurten yoga klaseak ere izanen dira herrian, nahi duenarentzat. Printzipioz urrian hasiko dira, Imanol doneztebarrak gidari, astean behin eginen duten elkarretaratzean. Dagoeneko taldetxo bat egin badago ere, oraindik nahi duenak izena emateko aukera zabalik du.

Xaloa telebistak Urrozen egindako grabaketak irailean pantailaratuko dira

JAIONE ARIZTEGI

Xaloa Telebista Nafarroako 32 herri txikitari izan da grabaketak egiten uda honetan. Bideoetan herri bakoitzeko bizimoduari buruzko solasaldiak bildu dituzte.

Urrozen, abuztuaren 26an, hondarreko asteazkenean,

herrian izan ziren grabatzen. Lau urroztar elkarriketatu zituzten eta grabaturikoak irail bukaeran pantailaratuko dituztela aitzineratu dute.

Telebistako ikusleek, saio horien bidez, herritarrak eta herriak ezagutzeko aukera izanen dute.

José A. Arzuaga abeltzaina

Zuzeneko haragi salmenta

10 kg-ko lotea 120 €-tan

Banaketa bakoitzean (gutxi gorabehera):

- 1.400 gr. txuleta (3-4 txuleta)
- 2.600 gr. 1. mailako xerrak (3-4 pakete)
- 220 gr. azpizun (pakete 1)
- 640 gr. biribilki (2-3 pakete)
- 1.200 gr. saiheski (2-3 pakete)
- 2.300 gr. haragi xehatu (3-4 pakete)
- 200 gr. eltzekari (2-3 pakete)
- 1.900 gr. gisatzeko (3-4 pakete)



Eskaerentarako, deitu edo mezu bat bidali
608 670 697

ORBELA
SENDERISMOA ATERPCTAE
BEINTZAKO OSTATUA
Idoia · Mikel
Tel. 948 450 014 · BEINTZA-LABAIEN
info@orbela-beintza.com
www.orbela-beintza.com

744 484 361
ttipi-ttapa

Herriko bi neska-mutikok jaunartzea egin dute

Birusak eragindako egoeratik, jaunartzeak beranduago egin edo heldu den urterako utzi dituzte herritarrek

TTIPI-TTAPA

Maiatzean egitekoa zuten Ylenia Bendoiro, Antton Elizaldek eta Janire Elizalde herritarrek jaunartzea. Koronabirusak eragindako egoeratik, ordea, ezin izan zen ospatu. Ylenia Bendoiroren eta Antton Elizalderen kasuan, lau hilabete beranduago, abuztuaren 30ean, egin zuten ospakizuna. Eguraldia lagun izan ez bazuten ere, guraso eta senitatekoekin bildu eta ongi pasatzeko aukera izan zuten. Janire Elizalde, berriz, heldu den urterako utzi du.



Ylenia Bendoiro eta Antton Elizalde abuztuaren 30ean egin zuten jaunartzea.

Herriko lau haur lehenbizikoz eskolaratu dira

Andrea Castro Mindegia, Naire Telletxea Piñuela, Irei Babaze Salaburu eta Ion Erregerena Leizeaga izan dira lehenbizikoz eskolaratu diren lau neska-mutikoak. Neurri zorrotzek baldintzatutako hasiera izan da. Ea laster normaltasunean gozatzeko aukera duten!

Herriko Ostatua eta errotak ohiko ordutegira bueltan

Hemendik aurrera asteburuetan bakarrik irekiko dute Herriko Ostatua. Errota ere, irailaren 1az geroztik, goizez bakarrik egonen da zabalik, 11:00etatik 14:00etara. Astelehen eta asteartean itxita egonen da eta asteazkenetik igandera bisitatu ahal izanen da.

DESKONTUAK MALERREKA TTIPI TXARTELA

Erakutsi eta aprobetxatu aukerak!

%10 DESKONTUA esketetan

Koskontako bidea, 7-1. | LESAKA
T. 948 63 54 58

%10 DESKONTUA produktuetan

Intzakardi, z/g | DONEZTEBE
T. 948 45 03 64

<p>%10 DESKONTUA pijama eta barruko arropetan</p> <p>Zazpigorutze, 1 DONEZTEBE T. 948 45 02 52</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan %10 DESKONTUA 100€tik gorako erosketetan Promozioetan ezik</p> <p>Nagusia, 4 DONEZTEBE T. 948 45 07 27</p>	<p>%5 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Kale Nagusia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 15 71</p>	<p>%5 DESKONTUA kontsultetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE lorea@kimetzelardenda.com</p>
<p>%5 DESKONTUA kosmetikan %5 DESKONTUA oparietan 50€tik gora. Promozioetan ezik</p> <p>Amezitia DONEZTEBE T. 948 45 01 63</p>	<p>%10 DESKONTUA</p> <p>Eliza, 18 behea DONEZTEBE T. 948 45 02 86</p>	<p>%10 DESKONTUA hamar saioko bonoan</p> <p>Elizagibela, 4 behea DONEZTEBE T. 607 85 32 08</p>	<p>%10 DESKONTUA 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Parrokia, 11 DONEZTEBE T. 948 45 01 12</p>
<p>%10 DESKONTUA erloju eta bitxietan 30€tik gorako erosketetan</p> <p>Amezitia, 1 DONEZTEBE T. 948 45 09 25</p>	<p>%5 DESKONTUA kosmetikan, opari artikuluetan eta haur-eramailetan</p> <p>T. 948 45 14 73 DONEZTEBE info@kimetzelardenda.com</p>	<p>%5 DESKONTUA zakur eta katuen pentsuan</p> <p>Mourges, 20 Nabe 1 DONEZTEBE T. 948 45 18 45</p>	<p>%10 DESKONTUA oinetakoetan</p> <p>Parrokia, 17 DONEZTEBE T. 948 45 02 89</p>

Osasun sailak elkarteak diruz lagundu du

Soinketa, hitzaldiak, kirol-ikastaroak... antolatzeko 4.255 euro jaso dituzte

PABLO IRASTORZA

Elkartekurtean zehar egitasmoak aitzinera ateratzeko asmoa du. Helburuak lortzeko batzordekoen eta inguruko enborrekin ez da aski etalaguntzak behar-beharrezkoak dira. Osasun sailekoak ongi dakite hori, eta horregatik, orain arte bezalako ohiturekin segitzeko, 4.255 euro eman dizkiote elkarteari. Soinketa saioak, hitzaldiak, kirol ikastaroak... eta administrazioko programa zein eguneroko gastu orokorra gehituz, Arkupeak badu laguntza horiek guztiak –burua sobera nekatu gabe– non xahutu.

Jarduerak urritik aitzinera

Irakurleak jakinen duen bezala, azkeneko aldizkarian ere aipatu baitzen, buru-belarri ari da elkarteak, datorren ikasturterako hari guztiak lotu nahian. Hala, bailarako udaletxe, ikas-



tetxe, elkarte eta hainbat laguntzailearen atea jotzen ari da urtero bezala. Erran beharrik ez dago, ordainezina den laguntza ematen dutela eta beti atea zabalik dauzkatela.

Ikastaroak antolatu eta segurtasun neurrietara egokitu ahal izateko, izen-emate epea irailaren 30a arte ireki dute. Doneztebeko bulegora deituz (09:00etatik 13:00etara) eman daiteke izena.



UTZITAKOIA

Mendi irteerez gozaten ari dira

Abuztuan Doneztebetik Zubietara Uraren Bidetik egindako irteeraren ondotik, irailean bertze irteeraren bat egitekotan zebiltzan mendizaleak. Hilaren 15erako zerbait antolatzen ari ziren. Ea osasun egoerak aukerarik uzten dien. Laster azalduko dituzte nondik norakoak.



UTZITAKOIA

Ile-apaindegi zerbitzua martxan herrian

Aitziber Ubiria duela 17 urte hasi zen Lesakako Pinpirin ile-apaindegian lanean. Orain Ezkurran bertan ere zerbitzu hori emanen du, Olegi etxean. Irailaren 6an egin zuen inaugurazioa eta mokadutxoak eman zizkien hurbildu ziren herritarrei. Dagoeneko zerbitzua martxan dago.



UTZITAKOIA

Herria txukuntzen aritu dira auzolanean

Abuztuko azken asteburuan eta iraileko lehenbizikoan herria txukuntzeko auzolana egin zuten Ezkurran. Bideak, errekek eta beste hainbat bidaxketako sarbideak ere garbitu zituzten eta arriskutsuak izan daitezkeen hondakinak kentzen aritu ziren.



Kimaketak | Mantentze-lanak
Lorategiak Diseinatzea eta Sortzea
Ureztatze Sistema Automatikoak
Paisajismoa



T. 619 418 683 | LESAKA | johntelletxea@hotmail.com
www.telletxealorezaintza.com

Ezkurrako jaiotza-agirien bilduma zabala herritarren eskura

FERNANDO ETXEBERRIA MARIEZKURENA EZKURRAKO HISTORIALARIA

Fernando Etxeberriak 1600 eta 1900 urte bitarteko Ezkurrako biztanleen jaiotza-agiriak bildu ditu datu guztiak kontsultatzeko


TTIPI-TTAPA EZKURRA

Duela bost urte turista argentinarrak batzuek Ezkurrara egindako bisitak eman zion aitzakia Fernando Etxeberriari bilketa lan hau egiteko. Goi-koetxea, Mariezkurrena eta Telletxea abizena zuten jatorri euskalduneko argentinarrak hauek eta Ezkurraren galdezka ibili ondotik Fernando Etxeberriarengana bideratu zituzten. Gutxi izanzen baitira Ezkurrako historiari buruz Etxeberriak bezainbertze dakitenak. Herriko historiari buruzko hainbat libururen egilea izanik, sekretu gutxi ditu Ezkurrako udal artxiboak berarentzat. Horrela hasi, eta 1600-1900 urte bitarteko Ezkurrako biztanleen jaiotza agiriak bildu ditu.

Ezkurratik Iruñera

Argentinako bisitariak jakinarazi zuten 1879tik aurrerako datuak daudela Ezkurrako udal artxiboan. Informazio gehiago lortu nahi izatera eliz barrutiko artxibora bideratu zituzten, bertan Ezkurrako bataio liburuak baitaude gordeta eta jaiotza datuak liburuak ere gordetzen dituzte.

Etxeberriak, euren eskutakoa bildu zuen, ahalik eta



Fernando Etxeberria bildumarekin. UTZITAKO ARGAZKIA

erantzun zehatzena emanez. Argentinako lagunaren egonaldia mugatuta egokitu zuen bere bilaketa lana, denbora gutxi-rako etorri baitziren Euskal Herrira. Behin lan horiek eginda gehiago sakontzen hasi zen 1600 eta 1870 urte bitarteko Ezkurrako bataio agiriak jasoz.

Iruñeko eliz barrutiko artxiboan Tito Gorostiagaren laguntzarekin jarraitu zuen lanean Etxeberriak. Lau ordutan Ezkurrako 50 lagunaren bataio agiriak lortu zituzten. Nahiz

eta bertan Ezkurrako 2.800 biztanleren datuak egon, pena handiz bilketa lana bertan behera utzi zuten. Elizbarrutiaren artxiboa hiru hilean behin kontsultatu zezaketen eta milaka datu izanik urte askotako lana suposatuko luke bilketa horrek.

David Mariezkurrenak, aita Ezkurrakoa duen historialariak, lanarekin jarraitzeko beste bide bat eman zion: Iruñeko Mormoien artxiboa eta Family Search web ataria. Hiru men-

de horietako datuak bertan topatu ahal izan zituzten. Lan eskergea eta luzea izan da baina gustura aritu da Etxeberria itxialdian zehar datuak biltzen.

Lanaren edukia

Mormoien artxiboko datuekin eta elizbarrutiko beste batzuekin hiru epetako lan mardula osatu du Etxeberriak. Lehenbizikoan 1600 eta 1700 bitarteko agiriak; bigarrenean, 1701-1799 artekoak datuak; eta, hirugarren 1800-1900 urte artekoak. XVII. eta XVIII. mendeen arteko «datu gutxi» daudela dio, liburuen orrialde batzuen egoera kaxkarra dela eta baina gainerako datu guztiak txukun bildu eta gorde ditu. Horrez gain bilketa lanaren bukaeran, 1876tik 1905era bitartean Ezkurrako artxiboan zeuden datu guztien zerrenda orden alfabetikoan gehitu dio.

Errepikatzen diren abizenak

Mariezkurrena, Telletxea, Goi-koetxea, Ezkurra, Hernandorena, Indakoetxea, Etxeberria eta Garziarena dira Ezkurrako artxiboetan gehien errepikatzen diren abizenak. Ondoren estatuko beste probintzia batzuetakoak ere nabarmentzen dira: Placero, Senper, Berrio, Jimenez, Baeza edo Garro. Bere garaian Ezkurrako meategi eta burdinoletan lanera etorritakoen ondoko belau-naldiarena.

Datu hauek guztiak kontsultatzeko moduan paratu ditu Fernando Etxeberriak eta interesa duena berarekin harremanetan jar daiteke kontsulta egiteko. Horrez gain, Mormoien web-gunean kontsulta egiteko ere gomendatu dio euren arbasoei buruz informazio gehiago lortu nahi duenari.

«XVII. ETA XVIII. MENDEETAKO DATU GUTXI DAUDE ESKURAGARRI»

«ELIZ BARRUTIAN EZKURRAKO BATAIO LIBURUAK DAUDE GORDETA»

PINPIRIN ILE-APAINDEGI MISTOA
AITZIBER UBIRIA

Ile mozketak, koloreak soilik nahiz metxekin nahastuta, distirak, ile bilduak...
ORDUTEGIA: 09:00-13:00 / 15:00-19:00 (astelehenetan irekita)

OLEGI ETXEA · 31749 EZKURRA · T. 686 23 17 53 (ordua hartu)



Bertso eskolako gaztetxoak, Bortziritan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Bertso eskolak ikasturtea hasteko prest

Nafarroako Bertsozale Elkarteak antolatuta, haur zein helduentzako 21 talde osatu nahi dituzte eskualdean

TTIPI-TTAPA

«Bertsogintzan trebatzeko guneak dira bertso eskolak, baina hori baino gehiago ere badira. Bertsoaritzaren teknikak erakustearekin batera, euskararen alderdirik jostagarri eta dibertigarriena ere jartzen da praktikan, eta gainera, sortzeko, ideiak eta diskurtsoak garatzeko edota jende aitzinean aritzeko trebetasunak ere garatzen dira». Hori horrela iritzita, bertze urte batez bertso eskolen ikasturtea hasiko du Nafarroako Bertsozale Elkarteak. Dagoeneko izena emateko epea zabalik dago eta irailaren 27ra arte izanen da horretarako aukera. Eskolak, berriz, urriaren 5ean hasiko dira.

Nafarroa osoan guztira 45 talde izanen dira eta horietatik 21 eskualdekoak izanen dira, haur eta helduei bideratuak.

Leitza

Joanes eta Xabat Illarregi irakasle dituztela bi talde osatuko dituzte.

- Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko 1. mailara bi-

tarte, ortziraletan, 15:30etik 16:30era Xabat Illarregirekin.

- DBHko 4. mailako ikasleak, ortziraletan, 16:30etik 17:30era Joanes Illarregi irakasle dutela.

Malerreka

- **Ituren** (LH5-DBH1). Astear-tetan, 16:15etik 17:15era, kontsulta zaharrean, Iker Gorosterrazurekin.

- **Doneztebe** (helduak). Ostiraletan, 18:00etatik 20:00etara Herrigunean, Iker Gorosterrazu irakasle dutela.

- **Doneztebe** (DBH1). Astelehenetan, 16:00etatik 17:00etara Herrigunean, Estitxu Arozena irakaslearekin.

- **Doneztebe** (LH6). Astelehenetan, 15:00etatik 16:00etara Herrigunean, Estitxu Arozena irakasle dutela.

IZEN-EMATEA IRAILAREN 27RA ARTE EGONEN DA ZABALIK

Baztan

- **Irurita** (8-12 urte). Ortziraletan, 15:00etatik 15:45era, Estitxu Arozenarekin.

- **Arizkun** (9-13 urte). Astelehenetan, 18:00etatik 19:00etara, Estitxu Arozena irakasle dutela.

Bortzirriak

- **Lesaka** (helduak). Astear-tetan, 20:00etatik 22:00etara Arrano Elkartearen, Estitxu Arozena irakasle dutela.

- **Lesaka** (Heldu hasiberriak). Astelehenetan, 18:15etik 19:45era Arrano elkartearen, Estitxu Arozenarekin.

- **Lesaka** (17-19 urte). Ortziraletan, 18:00etatik 19:30era Arrano Elkartearen, Estitxu Arozena irakasle dutela.

- **Lesaka** (14-16 urte). Ortziraletan, 16:30etik 18:00etara Arrano Elkartearen, Estitxu Arozenarekin.

- **Lesaka** (LH5-DBH1). Asteazkenetan, 16:00etatik 17:00etara Iturruxulon, Estitxu Arozenarekin.

- **Lesaka** (LH3-5). Asteazkenetan, 15:00etatik 16:00etara Iturruxulon, Estitxu Arozena irakasle dutela.

- **Bera** (13-18 urte). Astear-tetan, 16:30etik 18:00etara Beralandetan, Estitxu Arozenarekin.

- **Bera** (12-13 urte). Astear-tetan, 15:30etik 16:30era Beralandetan, Estitxu Arozenarekin.

- **Bera** (8-12 urte). Astear-tetan, 14:50etik 15:30era Beralandetan, Estitxu Arozenarekin.

- **Etxalar** (8-13 urte). Astear-tetan, 18:30etik 19:30era kultur etxean, Estitxu Arozena irakasle dutela.

- **Arantz** (8-14 urte). Ortzegunetan, 16:15etik 17:45era Ekaitza Elkartearen, Estitxu Arozenarekin.

TALDEA OSATZEKO GUTTIENEZ LAU LAGUNEK EMAN BEHAR DUTE IZENA

- **Igantzi** (8-14 urte). Ortzegunetan, 18:00etatik 19:00etara eskolan, Estitxu Arozenarekin.

Izen-ematea eta ordainketa

Izen-ematea telematikoki egin beharko da, www.bertsozale.eus atarian, irailaren 27a baino lehen. Guttienez, lau lagunek eman beharko dute izena talde bat osatzeko.

Ordutegia moldatzeko aukera ematen duten taldeetan izena emandako ikasleekin batera adostuko da behin-betik ordutegia, behin izen emate epea bukatuta. Ordutegia finkatu ondotik, ikasleek berretsi beharko dute izen-ematea, urriaren 2ra arte, emailaz edo telefonoz.

Ikasturteko matrikula bitartean kobratuko dute, urrian eta otsailean, helbideratuta. Osasun egoera dela eta, une batetik aitzinera ezin izanen balitz aurrez aurreko eskolarik eman, eskola telematikoko eskainiko zaizkie ikasleei, eta hala nahi ez duenari kobratutakoa itzuliko zaio, galdutakoaren proportzio berean.

Haurren kasuan ikasturte osoko prezioa 80 eurokoa izanen da eta helduena 140 eurokoa.

Osasun egoerarekin arduratsu

Covid-19a dela eta, irakasleen aldetik, «eskuen garbitasuna, segurtasun tartea, maskara higienikoen erabilera eta materialen desinfekzioa» zaindu eta «material digitalaren erabilera» indartuko dutela adierazi dute bertsozale elkartetik, «orrien banaketa eta bertzelakoak baztertuz».

Ikasleen kasuan, bertso eskoletan maskara erabili beharko dute eta denei eskatuko diete eskola hasi aitzinetik eskuak gelarekin garbitzeko. Horrez gain, «aire librean egiteko moduko saioak diseinatu» dituztela jakinarazi du bertsozale elkarteak, «ahal den neurrian bertso eskolak karrikan emateko, birusa kutsatzeko aukerak murriztuz».

35 kasu positibo atzeman dituzte bahetze orokorrean

Guztira 1.882 PCR egin zituzten iraileko lehen asteburuan kiroldegian eta 35 positibo atzeman zituzten

TTIPI-TTAPA

Ezinegona eta kezka. Horietak izan dira azken egun hauetan leitzarren artean sumatu diren sentimenduak. Abuztu bukaeran koronabirusean positibo eman zuten herritar kopuruak gora egin zuela ikusita, iraileko aurreneko asteburuan, hilaren 5ean eta 6an, 15 urtetik gorako leitzarrei PCR probak egiten aritu ziren herriko kiroldegian.

1.882 PCR proba

Herritarren parte hartzeari esker, bi egunez, 1.882 proba egin zituzten. Guztira 15 urtetik aurrerako herritarren %75 bertaratu zen probak egitera. Gehiago ere bada: «azken egunetan Leitza Osasun Etxean egindako probak gehituz (positibo izan direnak eta horiekin harremanetan egon direnak) 180 lagun gehiagok parte hartu zuten. Hortaz, azken egunetan PCR probak egin dituzten leitzarrek %80 baino gehiago izan dira».

35 positibo

Emaitzak irailaren 9an, asteazkenean, jakinarazi zituzten. Bertan azaldutakoaren arabera, 1.882 lagunetatik 35 izan ziren positiboak, nahiz eta behin-behineko datuetan 26 zirela adierazi zuten.

Datuak jaso ondotik, Leitza Udala Nafarroako Gobernuarekin bildu zen eta «oraingoz neurri berririk ez hartzea» erabaki zuten.

Gomendioak

Erabakirik hartu ez duten arren, herritar eta erakundeei «erabateko arduraz eta erantzuz

kizunez» jokatzeko deia egin diete, «Covid-19 gaitza gehiago zabaldu ez dadin eta horren ondorioak saihas ditzagun».

Positibo eman dutenei osasun zerbitzuek adierazitako neurriak «zorrotz» betetzeko eskatu diete. Gisa bertsuan, hauekin hurbileko kontaktua izan dutenak ere bakartuta egon behar dutela oroitarazi dute: «iraileko aurreneko asteburuan egindako proban negatibo eman bazuten ere, osasun zerbitzuetatik horiei berriz ere proba bat egiteko deituko diete».

Zalantzak argitze aldera, hurbileko kontaktua «15 minutu baino gehiago, bi metro baino hurbilago eta babes neurririk gabe egotea» dela zehaztu dute.

Neurriak

Kasuak ugaritzen ari zirela ikusi bezala, irailaren 3an, «gaitzaren zabalkundea moztu eta saihesteko» Nafarroako Gobernuak berariazko neurri batzuk zehaztu zituen. Horiek ere indarrean daudela gogorarazi dute. Hortaz, taberna eta jatetxeek barruan %50eko edukiera eta kanpoan %75ekoa izanen dute; taldeak gehienez sei pertsonakoak izanen dira eta barran ezin izanen da ez jan ezta edan ere. Parkeetan, eskola atarian eta aisialdi gune publikoetan ere sei lagun baino gehiagoko taldeak ezin izanen dira elkartu eta eremu bakoitzean 18 pertsona egon ahal izanen dira gehienez. Elkarteak, lokalak eta antzeko biltokiak itxita egonen dira eta eremu pribatuan ere gehienez sei lagun biltzea aholkatu dute.



1.882 PCR proba egin zituzten iraileko lehen asteburuan kiroldegian. UTZITAKOIA

Udal zerbitzuak

Momentuz, kiroldegiko taldekako jarduerak bertan behera gelditu dira eta frontoia eta pista ezin izanen dira alokatu. Gainera, ostiral eta larunbatetan ez da azokarik izanen. Udal zerbitzuetara jotzeko hitzordua hartu beharko da eta kultura eta kirol ekitaldi guztiak alde batera utzi dira.

Zerbitzuetatik informazio ofiziala, zehatza eta ziurra jaso bezain laster herritarrei infor-

mazioa eta behar adina argibide helaraziko dizkietela aipatu dute.

Esker onak

Udalak egindako bahetze orokorrean parte hartu duten guztiei, parte-hartzaile zein boluntarioei, eskerrak eman nahi izan dizkie izan duten «jarrera eredugarriarengatik».

Bide beretik segitzeko eskatu nahi izan dute: «jarrai dezagun elkar zaintzen!».



Aurten 10 ikasle hasi dira eskolan; 1968az geroztik ez da halako kinta handirik izan.

30 ikaslek hasi dute ikasturtea Nazabal eskolan

Hamar ikasleko taldea hasi da Haur Hezkuntzako lehenengo mailan

TTIPI-TTAPA

Hiru multzotan banatuta, 30 ikasle ariko dira ikasturte honetan eskolan. Egungo egoera berezia tarteko, ezin izango diote ohiko lan martxari eutsi eta taldeen arteko elkarlanik ez dute landuko. Udalak, berriaz, eskolako garbiketa zerbitzua indartu du.

Maskarak soinean, sarrera eta irteera mailakatuak... ez da izan aurtengo ikasturteak utzi duen irudi berezi bakarra. Izan ere, aspaldiko urteetako kinta handienaren –hamar neska-mutiko–, aurreneko eskola egunak izan dira. 1968a izan zen hainbeste ume urte berean jaio ziren azken aldia.



UTZITAKOA

Herriko haurrak Aralarren kantari

Aurtengo udan elkarrekin irteera askorik egiteko aukerarik izan ez badute ere, talde polita bildu zen Aralarko santutegian. Mezan abesteko aukera eman zien herriko apaiza den Inaxiok eta saioa abuztuko hainbat igandetan ikusteko aukera izan zen ETB 1en.



125 lagun bildu ziren irailaren 3an egin zuten proiektzioan.

'Herri txiki infernu handi' saiokoen bisita izan dute herrian

TTIPI-TTAPA

Herria eta herritarrak ETB 1eko *Herri txiki infernu handi* saioan ikusteko aukera izan zen irailaren 13an, aurreko igandean.

Irailaren 3an egin zuten proiektzioa herrian eta 125 lagun inguruk primeran pasatu zuten. Jabiartxoren kafeak, Patxiren neguko txapelak,

Kontxiren aulkiak, Atxukararren soldaduskako abenturak, Josetxoren eguzki izpiak, Sokatira taldekoen tiraldiak, Juana Mariren Dolomitak, Jon eta spa...

Saioa ikusterik izan ez bazenuten, ETB Nahieran atalean ikusteko aukera duzue. Gozatu!

Uso postuen enkantea irailaren 19an

Uso postuen aurreneko enkantea irailaren 19an egingen dute 19:00etan udaletxean. Aste betez sesteorako aukera emanen dute eta hurrengo asteburuan izanen da azken enkantea. Ehiza elkarteko kideak, beren aldetik, hasiak dira postuak denboraldirako prestatzen.

Hiri eta landa lurren gaineko zergak ordaintzeko epea

Hiri eta landa lurren gaineko udal zergak ordaintzeko epea ireki du udalak. Borondatez ordaintzeko aukera urriaren 9ra arte izanen dute herritarrek. Kontua helbideratuta ez dutenek hiru banketxeetako kontu zenbakiak eskura dituzte udaletxean.

Areso-Berastegi mugako itxiturak konpontzen ari dira

Areso eta Berastegi arteko itxituraren zati bat konpondu beharra zegoen eta lanak bukatzen ari dira. Zati bat Nafarroako Gobernuak ordainduko du, beste bat Berastegiko mugako lurren jabeak eta falta den zatia Aresoko Udalak hartuko du bere gain.

Kirol ikastaroen eskaintza haur eta helduentzat

Mendialdea Kirol Mankomunitateak herrian kirola egiteko aukera emango du. Mugimenduari jolasen eta kirol hasitapena izanen dituzte haur eta gaztetxoek eta pilatesa helduek. Izena emateko udaletxean dauden inprimakiak bete eta mezu elektronikoko bat bidali behar da.

80 ikaslek hasi dute ikasturtea eskolan

Hamar irakasle finko dira eta horiez gain, Leitzatik egun jakinetan etorriko diren beste hiru

TTIPI-TTAPA

Ezohiko neurriak hartuta hasi dute ezohiko ikasturtea Andres Narbarte Xalto eskolan. Haur Hezkuntzako 23 haurrek, Lehen Hezkuntzako 43k eta DBHko 14k eman diote hasiera eta beraiekin batera, hamar irakasle finkok, Leitzatik asteko egun jakinetan etorriko diren beste hiru irakaslerekin batera (orientatzailea, musikakoa eta erlijioakoa). Guztira zazpi haur hasi dira hiru urtekoen gelan eta bi dira instituturako bidea hartu dutenak, bat Heranira eta bestea Leitzara.



Eskolako komuna berritua. A. ESKUDERO

Hiru bloke

Osasun egoera tarteko, hiru bloketan banatu dituzte ikasleak, eta horietako bakoitza bi talde egonkorretan bereizi dutela argitu dute eskolatik: aurreneko blokean, Haur Hezkuntzako neska-mutikoak daude, hiru eta lau urtekoak elkarrekin, eta bost urtekoak beste talde batean. Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailakoak beste bloke batean bildu dituzte, lehenengo ziklokoak batetik eta bigarrenekoak bestetik. 5. eta 6. mailako ikasleek eta DBHkoek osatzen dute hirugarren blokea, eta horiek ere bi talde egonkorretan banatuta ariko dira. Eskolatik adierazi dutenez, «bloke bakoitzak bere sarrerako eta irteerako atea du».

Ez da ikasturte hasiera honetako aldaketa bakarria izan. Maskaren erabilera derrigor-tzeaz eta garbitasuna indartzeaz gain, segurtasun tartea mantendu ahal izateko gela handiagoetara jo dute eta es-

pezialistak gelaz gela ibiliko dira.

Jangela

Irailan, ohi bezala, Haur eta Lehen Hezkuntzakoek 09:00etatik 13:00etara izanen dituzte eskolak eta 15:00etara bitarte ariko dira DBHko ikasleak.

Jangelazerbitzua ere martxan da, baina DBHkoek irailan ez dute eskolan bazkaltzeko aukerarik izanen, garraio zerbitzua 15:00etan delako. Urriatik aurrera izanen dute bazkaltzeko aukera. Lerro hauek idazterakoan, urriko ordutegia zehaztu gabea zuten.

Eskolako komunak berrituak

Ikasturtea komun berrituekin hasi dute eskolan. Udalaren eskariz, hainbat lan egin dituzte abuztuan, eta gisa berean, irisgarritasun arazoa izan dezaketen ikasleentzako egokitu dute. Horretarako 50.000 euro bideratu bideratu ditu udalak.

Arano, Goizueta eta Aresoko liburutegi ibiltaria hilabete bukaeran

TTIPI-TTAPA

Leitzan azken asteetan izandako koronabirus kasuak direla eta, joan den astean herriz herri ibiltzekoa zen liburutegi ibiltaria bertan behera utzi eta hilabete bukaerara atzeratzea erabaki zuten. Horren ordez, irailaren 24an, ostegu-

na, Areson izanen da liburutegi ibiltaria, 14:15etik 15:00era. Biharamunean, irailaren 25ean, Goizuetan eta Aranon egingen du geldialdia: 14:30etik 15:30era Goizuetan izanen da eta egun horretan 16:00etatik 16:30era aranoarrei eskainiko die zerbitzua.

Udal ikastaroetan irakasleentzat izena emateko epea irekita

Udalaren bitartez, 2020-2021 ikasturtean ikastaroren bat emateko interesa duten irakasleei ostegun honetan, irailaren 17an, bukatuko zaie beraien proposamena aurkezteko epea. Autonomoa izatea ikastaroa emateko baldintzetako bat izanen da eta udaltxean aurkeztu beharko duten proposamenean ikastaroaren deskribapen zehatza egin beharko dute. Besteak beste, ikastaroaren ordutegia, prezioa, iraupena eta nori zuzendua izanen den adierazi beharko dute.

'Miñan' liburua aurkeztuko du Amets Arzallusek

Irailaren 25ean *Miñan* liburua aurkeztuko du Amets Arzallusek udaletxeko Ganbaran. Ibrahim Balderen istorioakontatzen du liburua: anaia txikiaren bila Afrikatik Europaraino egiten duen ibilbidea. 2018an ailegatu zen Balde Euskal Herrira eta boluntario lanetan zebilen Irungo Harrera Sarean egin zuen Arzallusekin topo. Baldeka hori kontatutakoa idatziz bildua du liburuan bertsolariak. Aurkezpena 19:00etan izanen da, osasun egoera tarteko, edukiera mugatuarekin.



UMORE ONA PILOTA ELKARTEA

Antton Apezetxea Antiguon txapelkun

Irailaren 5ean jokatu zen Antiguoko pilota txapelketa eta Umora Onako Antton Apezetxea txapela jantzita bueltatu zen etxera. Fernandez aurrean zuela, 22-7 irabazi zioten Olaetxea eta Lizeaga bikoteari. Ez hori bakarrik. Partidako pilotaririk onenaren saria ere eman zioten Apezetxeari.



Jon Ander Bengoetxea Lopetegik bost urte daramatza Ingalaterran, Siemens enpresarentzat lanean.

«Betidanik argi izan dut ingeniari izan nahi nuela»

JON ANDER BENGOETXEA LOPETEGI INGALATERRAN BIZI DEN LEITZARRA

Azken bost urteetan Ingalaterran aritu da lanean Leitzako ingeniari aeroespaziala. Telanean aritzeko eman dioten aukerari esker, Siemens enpresarekin egin duen ibilbideari sorterritik emanen dio segida

N.BAZTERRIKA | LEITZA

«Erabaki zaila baina ona». Halaxe izan zen Jon Ander Bengoetxea Lopetegik (Leitza, 1993) sorterria utzi eta Ingalaterrara joan zenean hartu zuena. Madrilen izan zen lehendabizi, ingeniari-tza aeroespaziala ikasten. Ingalaterrako Cranfield unibertsitatean masterra egin zuen gero; eta azken bost urteetan Leamington Span, Londres ipar-mendebaldean, ari da lanean. Etxetik kanpo ateratzeko «bizitzarekiko dudak perspektiba zabaltzeko» aukera eman dio, pertsonalki eta profesionalki garatzeko. Ingalaterran «oso gustura» dagoen arren, erroak sorterriari lotuak izan

ditu beti. Eta orain, Siemensek telanean aritzeko aukera luzatu dion honetan, ez du Euskal Herrira itzultzeko aukera galduko: «berandu baino lehen han izanen naiz!».

Leitzarra zara sortzez, baina azken sei urteetan Ingalaterran bizi zara. Noiz eta zer dela eta joan zinen Londresera?

Leamington Span bizi naiz, Londres ipar-mendebaldean, Birmingham eta Oxfordetik

«ARAZOEI SOLUZIOAK BILATZEA GUSTUKO DUT»

bertan. Duela bost urte etorri nintzen, aurreko urtean Masterra Ingalaterrako Cranfield unibertsitatean bukatu ondoren. Erabaki akademikoa eta profesionala izan zen.

Erabakia hartzea zaila izan zen?

Ez da erraza familia, lagunak eta ezagutzen duguna atzean uztea, baina profesionalki erabaki on iruditzen zitzaidan eta argi neukan errazagoa izanen zela orduan, 20 urte nituen

«ERRONKA HANDIA IZAN ZEN BAINA EZ NAIZ ERABAKIAZ DAMUTU»

momentuan, beranduago baino. Zailtasun haundiena integrazio kulturala izan zela uste dut. Unibertsitatean mundu guztiko jendea zegoen, eta horrek esperientzia oso berezia bilakatu zuen egonaldia. Euskaldun kuadrilla bat elkar-tu ginen eta ia dena elkarrekin egiten genuen. Lagun onak gara orain ere eta urtero elkartzen gara Gabonen bueltan. Lanean hasi nintzenean hasi zen benetako integrazioa Ingalaterran, bertako jendearekin harremanak izaten hasi nintzenean. Zailtasun guztien aurrean, denbora da mekanismo bakarra.

Lehendik ere etxetik kanpo ibilia zinen, Madrilen egin baitzenuen gradua...

Bai, ingeniari-tza aeroespaziala ikasi nuen Madrilen. Betidanik argi nuen ingeniari izan nahi nuela, beti gustatu zait teknologia eta bizitzako arazoei soluzioak bilatzea. Gero eta arazo konplexuagoa hobe. Eta beste ingeniari-tza interesgarri asko badaude ere, aeroespaziala berezia zela iruditzen zitzaidan, teknologikoki lantza-punta. Anglosaxoiek, zerbait ez dela zaila adierazteko 'ez da koheteen zientzia' esan ohi dute. Baina, niri beti gustatu izan zaizkit gauza zailak!

Ingeniari aeroespaziala zara baina zuk telekomunikazioak eta informatika ere begiz joak zenituen...

Telekomunikazioek eta informatikak ere, oso arlo konplexuak diren arren, garai hartan gertuago nituen edo ezagunagoak ziruditen. Ingeniari-tza aeroespaziala, berriz, exotikoagoa eta ezezagunagoa zen niretzat. Erronka polita zirudien, horren aldeko apustua egin nuen eta ez naiz damutu.

Zertan aldatu zen zure egunerokoa Euskal Herritik Madrilerara? Eta zertan aldatu da Ingalaterran zaudenetik?

Gaztea nintzenean, Leitzan oso bizitza lasaia neraman: lagunak, kirola, bideojokoak,

azterketetarako ikasi eta tar- teka parranda egin. Madriler- a joan nintzenean, beste mun- du batera iristea bezala izan zen. 17 urte ez nituen bete oraindik, eta Leitzako parran- da asko gustatzen zaidan arren, Madridera beste dimensio batean zegoen. Ia egunero jende gehiago ezagutzen nuen, eta lagunak egiten nituen. Unibertsitateko taldean kirola egiten jarraitu nuen... Eta, ikasketak dezente gogortu ziren, noski. Ingalaterran lanean nagoenetik, bizitza asko lasaitu da, batez ere, ikasketak bukatu ondoren. Egia esan ez dut azterketa bat bukatu eta hurrengoan pentsatzearen falta sumatu!

Siemensen ari zara lanean. Zer da zehazki enpresan egiten du- zuena? Eta prozesu horretan, zein da zure ardura?

Gure enpresak gas turbinak saltzen eta mantentzen ditu mundu osoan. Turbina hauek hegazkinetan erabiltzeko diseinatu ziren, baina gaur egun- gure bezeroek elektrizitatea sortzeko edo gas naturala atera eta leku batetik bestera mugitzeko erabiltzen dituzte. Nire taldeak urruneko moni- torizazioan eta errendimendu analisian egiten du lan. Tur- bina hauek ehunka sensore dituzte datuak jasotzen: pre- sioak, tenperaturak, abiadurak, bibrazioa... Nire lana, alde batetik, logikak diseinatzea da, logika horien bidez arazoak atzeman eta diagnostikatzeko. Hitz gutxitan, egunero, ordu- ro eta automatikoki piezak errebisatzea da nire egitekoa, medikuarenera joaten gare- nean egiten gaituzten bezala. Eta bestetik, diseinatutako logika horietan arazoren bat agertzen bada, laguntza tek- niko eman behar izaten diet beste talde edo bezeroei, aha- lik eta azkarren erabaki bat hartu ahal izateko. Bezeroek denbora galtzea saihestuz gero, diru asko aurrezten ahal dute eta.

Lanetik kanpo, zer nolako bizi- modua daramazu?



Ingalaterratik Euskal Herrira begira

Koronabirusak mundu osoan eta lan arlo guztietan izan du eragina. Gehiago edo gutxia- go, modu batera edo bestera, aldaketak gertatu dira enpre- setan.

Londres ipar-mendebaldean, Leamington Span, dago Jon Ander Bengoetxea Lopetegi, lanbidez ingeniari aeroespa- ziala den leizarra. Siemensen ari da lanean, elektrizitatea sortzeko edo gas naturala

atera eta leku batetik bestera mugitzeko turbinak diseina- tzen. Hain zuzen, turbina horientzako logikak diseinatu eta programatu eta bezeroei laguntza tekniko eman die.

Kontatu digunez, egunero- ko lanean «ondorio handirik sumatu ez» duen arren, bes- te alorretan bezala, izan da aldaketarik eta «bezero asko kostuak murriztu nahian» dabilta orain.

Ia egunero kirola egitea gus- tatzen zait, goizez lan egiten dut eta ia mugimendurik ga- beko lana denez, hori orekatu eta deskonektatzeko modua da... Sukaldean aritzea ere gustuko dut eta, tarteka, jate- txeak probatzea. Aspertuta nagoenean, bideojokoei den- bora dezente eskaintzen diet, beti gustuko izan ditut... Eta, oporrak ditudanean bidaiatzea ere gustatzen zait, hau baino leku bero eta lehorragoren batera ahal bada.

Etxetik ateratzearekin asko ikas- ten da... Zure kasuan, zer eman dizu esperientzia honek pertso- nalki eta profesionalki?

Aldaketa handiena bizitzare- kiko dudan perspektiba za- baltzea izan da. Txikitan, ideia

«IKARAGARRIA DA INGURUAK PERTSONENGAN DUEN ERAGINA»

asko ontzat edo txartzat ematen ditugu, hori delako ingu- ruan ikusten duguna. Ikara- garria da inguruak pertsonen- gan duen eragina, edozein lekutan. Askotan ez ditugu gure iritzi edo baloreak zalan- tzan jartzen, baina ez gara konturatzen gu geu ere, mun- duaren beste puntan jaio ba- gina, ez ginatkeela garena izanen. Kanpoan bizitzeak eta hainbat tokitako jendearekin hitz egiteak, zentzu horretan, asko aldatu nau. Askoz erra- zago egiten zait orain ikus- puntuak ulertu eta errespetat- zea, edozein arlotan, hobeto ulertzen dudalako pertsonen ingurua.

Urte saila pasatu dira joan zare- netik, dena den, Euskal Herrira

«INGALATERRAN OSO GUSTURA EGON NAIZ BAINA NI EZ NAIZ HEMENGOA»

Telelana «geroz eta normalizatuago»

Otsailaz geroztik etxetik ari da lanean eta, lehendik ere Ingalaterran telelana «norma- lizatu» zegoen arren, «koro- nabirusak prozesua azkartu» duela aitortu du.

Lan egiteko modua alda- tzearekin, sorterrira buelta burutan zerabilkien leizarrak baina «egoera normaltasune- ra bueltatzeko zain» zegoen: «herrira bueltatu eta handik lan egiteko aukeran pentsa- tzen nuen...». Orain, enpresak aukera eman dionez gero, Euskal Herrira begira hasia da.

Nahiz eta Euskal Herrian «inguruko leku askorekin konparatuta industrian auke- ra onak izan badiren», eza- guna eta gustuko duenarekin segitzeko eskua luzatu diote. Eta, horri esker, «gertu» ikus- ten du etxera buelta.

bueltatzeko asmoa hor dago... Etxean bezala inon ez?

Hala da, bai. Euskal Herria sekulako lekua da bizitzeko objektiboki, mila arrazoiaren- gatik. Horrelako hainbat leku badaude munduan. Baina niretzat etxea da, eta hori da gakoa. Ingalaterran oso gus- tura nago eta beti hala egon izan naiz, baina ni ez naiz hemengo azken finean. Fa- milia, txikitako lagunak eta nire erroak Euskal Herrian daude.

Kanpoan bizi zaren urteetan zen- batero bueltatu zara herrira?

Urtean bi aldiz, Gabonetan eta udan. Izan ditudan egun libreekin ez da erraza izan nahi bezainbestetan etxera buel- tatzea eta oporretara beste norabait joatea! Madrilen nengoenean ere, urtean bi edo hiru aldiz bueltatzen nintzen... Urtean zehar oso gustura nego- en eta, egia esan, Madrilen unibertsitateko ikasleen bizi- tza egitea ikaragarriko espe- rientzia zen adin horrekin...



Kukai dantza taldeko dantzari batzuk Max saria eskuetan dutela. KUKAI

Kukai dantza taldearen emanaldia irailaren 25ean

19:00etan izanen da emanaldia eta ikusleek talde ezagunaren azken lanaz gozatu ahal izanen dute

TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Braulio Iriarte pilotalekuan elkartuko dira dantzari eta dantzazaleak irailaren 25ean, ortziralean. Izan ere, 19:00etan, Baztango Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Errenterian sortu eta kokatutako Kukai dantza taldearen azken ikuskizuna, *Gela Jauziak*, izanen da ikusgai.

'Gela Jauziak'

Proiektu honek euskal dantza konpainia eta Cesc Gelabert koreografo ezaguna biltzeaz gain, Jon Maiaren zuzendaritzapean, taldeko dantzarien

indarra eta zorroztasuna espazio irekian mantentzen ditu.

Kukai dantza taldea

Jon Maia dantzari eta koreografoaren ekimenez sortu zen taldea da. Euskal dantza tradizioaletik abiatuta ikuskizun garaikideak sortzen ditu, beste arte jarduera zein dantza estiloekin elkarlanak bultzatuz. Ibilbidean sari andana irabazi ditu: Dantza ikuskizun Onenari Max Saria 2017an, Dantza talde Onenari Max Saria 2015 eta 2017an, Leioako Umore Azokako Ohorezko Saria 2016an...



Otsail bukaeran nazioarteko garraioa desbideratzeko Beran egin zuten protesta.

N-121-A errepidetik ibilgailu astunak desbideratzeko mozioa gibelera bota dute

TTIPI-TTAPA

N-121-A errepideari buruzko mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk abuztuaren 27ko osoko bilkuran. Mozio horretan, irteera edo helmuga gisa N-121-A errepidea ez duten nazioarteko ibilgailu astunak errepide alternatiboetatik desbideratzeko eskaera egin nahi zioten Nafarroako Gobernuari Baztango Udalaren izenean. Alabaina, afera eztabaidatu ondotik, mozioaren kontra bozkatu zuten Baztango Ezkerrak, Navarra Sumak eta Geroa Baik (sei boto) eta alde EH Bilduk (bortz boto). Ondorioz, mozioa onartu gabe gelditu zen.

180 hildako baino gehiago

EH Bilduk, mozioa aurkeztearekin batera, Errioxako eta Kataluniako zenbait errepidetan desbideratzeak egin direla adierazi zuen. Horrekin batera, «N-121-A Nafarroako

heriotza-tasa handiena duen errepidea» dela eta «ez dela ibilgailu astunak jasateko errepide bezala diseinaturikoa» nabarmendu zuen. Errandakoaren adierazle gisa, datuak ageriko egin zituen: «2002an banaz bertze 950 kamioi pasatzen ziren eta gaur den egunean 3.000tik goiti dira». Are «larriagoa» iruditzen zaie A-15eko datuek izan duten beherakada: «noranzko bakarreko errepidea izanda ere, 2.500 kamioietatik 1.400 izatera pasatu dira».

Bertako garraiolariak «normaltasunez»

Eskualdeko garraiolariak «normaltasunez» lan egiteko aukera dutela ere gaineratu zuten: «inguruko hainbat enpresendako irteera eta helmuga tokia izaki, neurri hauek hartuta ere hauen erabilera bermatua geldituko litzateke».

instalazioak
IGOGAILUAK

PROFESIONALAK
KALITATE-BERMEA
IRISGARRITASUNA
MANTENTZE LANAK

EZ ZAITEZTE KEZKATU! Gu arduratuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, diru-laguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 71 | ELIZONDO | T. 948 580 166 | M 619 424 999
suteia@suteiazaldain.com

1 KANPOKO IGOGAILUAK

Kanpoko fatxadan guztiz integratuak, portal barrutik sarbidea. Inpaktu eta eragozpen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.

2 BARRUKO IGOGAILUAK

Eskailerako tarteen integratuak. Sarbidea portal barrutik, inongo oztoporik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudentzako egokituak.

3 IRISGARRITASUNA

Mugikortasun arazoak dituzten eta gurpil-aulkian daudentzako portalerako sarbidea egokitzen dugu. Azkar egiten ditugu lanak, eragozpen minimoak sortuz.

Baztan Ikastolak 50. urteurrena ospatuko du aurten

Kamisetak eta musukoak salgai paratuko dituzte eta DVDa eta bazkaria ere egin nahi dituzte

TTIPI-TTAPA

Ikasturte berezia izanen da aurtengoa Baztan Ikastola-erentzat. Izan ere, irail honetan martxan paratu zenetik 50 urte beteko ditu Nafarroako lehen ikastoletako bat izan zenak. 1970-71 ikasturtean eman zion hasiera, hain zuzen. Egun bizi dugun osasun egoera dela eta, zailtasunak badauden arren, 50. urteurrena modu xume eta berezian ospatu nahi dute ahal den neurrian hainbat ekimen aitzinerat eramanez. Ikasturteari hasmenta emateko beheitiko eraikinean, parkean, eta

goitiko eraikinean, Pilarren, 50. urteurreneko logoa margotu dute.

Ospakizun urtea

Laster kamisetak eta musukoak izanen dira salgai. Ikasturtean zehar argazki erakusketa, hainbat kanta eta dantzez osatutako DVDa eta ekainean (egorak uzten badu) bazkaria egin nahi dituzte, bertzeak bertze. Zailtasunak zailtasun, 50. urteurrena ilusioz eta gogoz ospatzen saiatuko dira. Bestan parte hartzerat gonbidatu nahi izan dituzte.



Ospakizun urtea izanen dute aurtengoa Baztan Ikastolan.



Navarra Sumak irakasleak kontratu gabe lan egin izana salatu du.

Musika eskolako langileen kontratuak erregularizatu dituzte

TTIPI-TTAPA

Irail hasieran, Navarra Sumak Baztango musika eskolako irakasleak «2019/2020 ikasturtean Baztango Udaleko langileen kontratua sinatu gabe» lanean aritu direla salatu zuen.

«Akats administratiboa»

Horren aitzinean, Baztango Udalak «akats administratiboak tarteko, irakasle horiek kontratu administratiboa duten langileak bezala, plantilla organikoan agertu direla» argitu du.

Oharrean adierazi dutenez, «lan kontratudun langileak bezala agertu behar zutela jakin zuelarik» hasi ziren afera zuzentzen eta «nahasmen-dua eragin zezakeen kontraturik sinatu ez bazen ere, langileen soldata eta baldintzak mantendu» zituzten.

Plantilla organikoa «aurrekontuen onartzearekin batera» aldatu beharra zuten, baina «koronabirusaren etorrerak afera luzatzea ekarri zuen». Dena dela, tarte horretan «udaleko langileen ordezkari sindikalei aldaketak jakinarazi zaizkiela» ere nabarmentu nahi izan dute.

Kontratuak «erregularizatu»

Aurtengo ikasturteari begira, «kontratuak erregularizatu» daudela eta «2020ko plantilla organikoan lan kontratudun izaerakoak direla» aitzineratu dute: «Baztango Udaleko gaitzontzeko langileen baldintza beretan parekatu dira».

Gisa horretara, «Baztango Udalak musika eskolarekin duen konpromisoa berretsi» nahi izan dute, «baztandarrei ematen zaien zerbitzua balorean jarri».

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta maletak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorías

Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6
31700 ELIZONDO
T. 948 581 300 · F. 948 580 648

Eztegara pasealekua, 22-1
31780 BERA
T. 948 631 108

Eliza Kalea, 22
31740 DONEZTEBE
T. 948 450 395 · F. 948 451 304

Garraio zerbitzu osoa eskatu du Baztango Udalak

«Osasun krisirat egokitutako segurtasun protokoloekin» zerbitzu osoa eskaintzeko eskatu diote Nafarroako Gobernuari

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 25az geroztik Elizondotik Iruñerako eta Donostiarako autobusen joan-etorria murriztagoa da. Izan ere, Nafarroako Gobernuak asteguneko zerbitzua gutitzea eta asteburu eta besta egunetako zerbitzua kentzea erabaki zuen. Zerbitzuak Elizondo aipatutako hiriburuekin lotzeaz gain, tarteko herri guztiak ere lotzen dituzenez gero, Baztango Udalaren ustez, zerbitzuak «bere muga guztiekin, lurraldea egituratzeko balio du».

Garraio publikoaren erabiltzaileak «adinekoak, emaztekiak, etorkinak eta gidabaimenik gabekoak» dira eta ikasturtean «ikasleek ere» baliatzen dutela adierazi dute. Hortaz, kohesio sozialaren ikuspegitik «oinarritzko zerbitzu publikoa» delakoan daude, «herritar guztiei mugitzeko eskubidea bermatzen dien neurrian, bederen». Alarma egoera indargabetu denetik, autodun herritarrei harat-honat mugitzeko baimena eman zaie, baina garraio publikoko erabiltzaileek mugitzeko eskubide hori bera murrizturik dute, zerbitzuan izan den mozketagatik. Horrek aipatutako erabiltzaileak bereziki «kaltetzen» ditu, baita gainerrako herritarrek ere: «mugitzeko aukerari dagokionez herritarren mailakatzea kez-

«ERABILTZAILEEI MUGITZEKO ESKUBIDEA UKATZEN ZAIE»



Zerbitzua murriztagoa da orain.

kagarria sortzen da, zenbaitzuetan, mugitzeko eskubidea praktikan ukatuz».

Klima aldaketa saihesteko lagungarri

Bertzalde, oharrean adierazi dutenez, «garraio publiko kolektibo zerbitzua klima larrialdiak eskatzen duenaren azpitik dago, nabarmen gainera». Planetaren beroketa ekartzen duen autoetan bakarka mugitzeko eredia gainditzea «lehentasunezkoa» dela dio udalak, bertzeren artean garraio publiko kolektiboa indartuz. Eta, bistan dena, mugitzeko beharra gutituz.

Zentzu horretan, «deigarria da komunikazio-azpiegitura berriak egiteko egiten ari den ahalegin publikoa, AHT adibidez; deigarria gaurgero badagoen garraio publiko zerbitzua bermatzen ari ez delako eta, horregatik, herritarren mugitzeko eskubidea ere ez delako bermatzen ari».

Horregatik guztiagatik, Baztango Udalak Nafarroako Gobernuari garraio publiko «zerbitzu osoa lehenbailehen berriz paratzeko» eskatu dio, «oraingo osasun krisirat egokitutako segurtasun protokoloekin».

Erratzu kantuz girotuko dute heldu den larunbatean

TTIPI-TTAPA

Kultura Batzordeak antolatuta, kantuzaleentzako hitzordua izanen dute heldu den larunbatean, irailaren 20an, Erratzun. 12:00etan plazatik abiatuko dira eta ordubetez herrian barna ibiliko dira, bazterrak kantuz girotuz.



Artisauen azoka irailaren 19an eta 26an Elizondoko plazan

TTIPI-TTAPA

Baztango artisauak eta Baztango Zaporeak elkarrekin antolatuta, nekazaritzako elikagaien eta artisauen azoka izanen dute Elizondoko plazan. Goiz osoz izanen den azokan mimoz egitako lanak ikusi eta erosi ahal izanen dituzte.



UTZITAKOIA

110.607 euro Sumutsuko bidea moldatzeko

Aritzakun aldean dagoen Sumutsuko bidea, bereziki Bidarraitrat joateko erabiltzen dute baserritarrek, batez ere elurragatik Lizartzu eta Intzulegi hetsiak baldin badira. 2014ko eta 2015eko erauntsien ondotik hondatua gelditu zen eta udalak, Nafarroako Gobernuaren diruguntzarekin, moldatu du.

MARMOLES SOULE
www.marmolessoule.com

LAPIDAK
PANTEONAK
KANPOSANTUAK
HARRI LANAK
ESKULTURAK

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444 | marmolessoule@gmail.com



Ana Mari Marinen oroimenean Cesar Orozek egindako komiki tira.

Komiki erakusketa eta tailerrak Arizkunenean

Tailerretan parte hartu nahi duten haur eta helduek aitzinetik izena eman beharko dute

TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Nafarroako komikiaren XI. azoka izanen dute Baztanen ondoko egunotan. Komikia ardatz dela, erakusketa eta haur zein helduendako tailerrak izanen dituzte.

Komiki erakusketa urriaren 4ra arte

Komikizaleek, Elizondoko Arizkunenea kultur etxeko Ernest gelan, bailara ardatz

duten binetak ikusteko aukera izanen dute urriaren 4ra, lehenbiziko igandera, arte.

Joan den larunbatean, irailaren 12an, ireki zuten Baztango Udalakomikiasustatzea helburu duen Tiza elkartearen laguntzaz antolatutako erakusketa. Eta ordutik, zabalik dago. Interesa duten guztiak, arratsaldeak, bi orduz, 18:00etatik 20:00etara, bisitatu ahal izanen dute.

Tailerra larunbatean

Ikusteko ez ezik, komikiak sortzeko oinarrizko alderdiak lantzeko aukera izanen dute irailaren Elizondon. Heldu den larunbatean, irailaren 19an, goizez (10:00etatik 14:00etara), tailerra egingen dute. Arizkunenean bilduko dira.

Mikel Santos Martinez *Belatz*, Nafarroako ilustratzaile eta komikigile ezaguna eta Mikel Urmeneta taldeko partaidea izanen dute irakasle, 2008tik Kukuxumusuren Marrazkien Lantegiko partaidea izan zena. Bere laguntzaz, parte-hartzaileek komikiaren hizkuntza,

SORMENA LANTZEKO TAILERRAK IZANEN DITUZTE

planoak, baliabideak, metafora bisualak, narrazioa... modu praktikoan jorrazteko aukera izanen dute.

Helduentzako saioa izanen da, eta beraz, parte hartu ahal izateko 14 urte baino gehiago izan beharko dira.

Izena eman nahi dutenek tizacomic@gmail.com helbidera idatzi beharko dute. Ez dute deus ordaindu beharrik izanen baina edukiera mugatua izanen da.

Lego piezak, sormena lantzeko

Haurrek ere izanen dute gozatzeko tarterrik. Izan ere, irailaren 26an, hondarreko larunbatean, bortz eta hamabi urte artekoendako tailerra izanen dute. Lego piezak eta pertsonaiak erabiliz, haurrek hainbat eszena sortu eta beraien istorioak modu sekuentzialean kontatu ahal izanen dituzte, hiru dimentsiotako komiki bat izanen balitz bezala.

Discover Bricksek emanen duen tailerrean 11:00etatik 13:00etara bilduko dira. Izena eman nahi dutenek info@discoverbricks.es helbidera idatzi edo 636 47 99 65/636 45 07 45 telefonora deitu beharko dute.



ONDIKOL

Kandida Jauregik 105 urte bete ditu

Amaiurko Salaberriko Bordan sortua den eta Arginenean bizi den Candida Jauregi Magirena da baztandarrik zaharrena. Irailaren 3an 105 urte bete zituen. Lau seme-alaba, bederatzi biloba eta lau birbiloba ditu eta «osasunez ongi» omen dago. Aunitz urtez Candida!



UTZITAKOA

Xabier Urrutia BRT zozketan saritua

Baztan Rugby Taldeak Covid-19ak utziriko arazo ekonomikoetara aitzin egiteko zozketa bat antolatu zuen. 3.248 zenbakia izan zen saritua eta irabazlea Xabier Urrutia izan da. Kubara bi lagunendako bidaia edo Biok Bat tailerreko tresnak izanen ditu aukeran.



Gaita eta atabala jotzen ikasteko ikastaroa emanen dute.

Ikastaroetan izena emateko epea heldu den astelehenean irekiko dute

TTIPI-TTAPA

Urritik aitzinera hainbat ikastaro eskainiko dituzte Elizondoko Arizkunenea kultur etxean. Parte-hartzaileek gaita eta atabala jotzen, brioche-opilak egiten, eskulanetan trebatzen, elikadura osasuntsu, jasangarri eta arduratsua izateko etiketak irakurtzen eta menu egokiak eta orekatuak antolatzen, bizikleta moldatzen, artistak ezagutu eta artelana sortzen, euskal jantzi tradizionala diseinatzen eta josten ikasteko aukera izanen dute.

Izen-ematea

Horietakoren batean izena eman nahi dutenek irailaren 21etik 25era, astelehenetik ortziralerara, 07:30etik 15:00etara egin dezakete. Interesa dutenek kultur etxera joanez, 948 58 12 79 telefonora deituz

edo kultura@baztan.eus helbidera idatziz ikastaroei eta izen-emateei buruzko informazio osoa jasotzeko aukera izanen dute.

Matrikula-arauak

Ikastaro osorako ordainketa bakarra izanen da (materialaren kostua kanpo) eta transferentzia bidez egin beharko da. Ondotik, ziurtagiria bidali beharko da (72 orduko epean). Matrikula egiterakoan ordaindutako dirua ez da itzuliko (gutieneko parte-hartzaile kopurua bildu ez denean eta ikastaroa antolatzen ez denean salbu).

Bertzalde, ikastaroetan parte hartzen dutenek Covid-19az kutsatzeko arriskurik ez sortzeko agintariekin eta Baztango Udalak ezarritako segurtasun eta higiene neurriak hartu beharko dituzte.



XX. mende hasierako argazkian, Palazioa ezkerrean. UTZITAKO ARGAZKIA

Gerra garaian ere ez ziren herriko bestak ospatu

Informazio hau eta gehiago ageri da Fermintxo Iriartek Zugarramurdiko historiari buruz argitaratutako liburuan

MARIFA ETA KORO

Aurtengo bestak ez ospatzearen kontura, herritarrek galdetzen zuten ea noizpait halakorik gertatu ote zen, eta bai, gertatu izan zen.

1936. urtean (Espainako Gerla Zibila hasi zen urtean) bestak debekatu ziren eta abuztuaren 10ean erreketek soldaduak ailegatu ziren herrirrat. Non biziko, eta Palazioan eman zitzaizen bizitokia; gainera, beraiei atenditzeko herriko bi andre aritu ziren janaria prestatzen. Horretaz gain, Andre Mari Egunean diru bilketa bat egin zen eta 2.680

pezeta bildu ziren ejerzitoari emateko.

Ondoko urtean (1937) besta-seinale bezala Meza Nagusia egin zen, eta deus bertzerik. Urte haietan herriko alkatea Martin José Irazoki zen, eta badakigu 1938ko uztailean Gobernadore Zibilak kargu horretatik kendu zuela, eta bere partez Femen Elizalde izendatu zuela alkate. Ez da aipatzen urte hartako besta konturik. Informazio hau, eta gehiago, ederki bilduta du Fermintxo Iriartek Zugarramurdiko historiari buruz argitaratu zuen liburuan.

Bi iturri gehiagoren ur-emaria bideratuko da herriko ur-depositora

MARIFA ETA KORO

Ur eskasi arazoengatik egin behar izan den ikerketan, ur-isurketaz gain (fugak) ikusi da depositura biltzen den ur-iturrien emaria aunitz tikitutu dela, hau da, lehen aise ur gehiago ematen zutela. Beraz, hau ikusirik, bertze bi iturri bide-

ratuko dira depositura. Bata Urbiako bizkar ingurutik eta bertzea Kanpamentu aldetik. Lan hauekin batera potabilizazio-planta bat jarriko da, uraren klorazioa xuxenagoa izateko. Lan hauek hilabete pare batean martxan hastea espero da.

Oharriz Auzoa z/g · LEKAROZ
T. 948 452 143 · 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com



HARRI LAN, S.L.

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



BAITA HORMIGOI INPRIMATUA ERE



Espainiako eta Europako banderak bakarrik udaletxean. UTZITAKO ARGAZKIA

«Harridura eta kezka» paratutako banderengatik

Espainiako eta Europako udaletxean jarri, baina herrikoa eta Nafarroako «ahaztu edo baztertu izana» salatu du Geroa Baik

TTIPI-TTAPA

Irailaren 1ean, Urdazubiko Herriko Etxean zintzilikatu zuten banderaren aitzinean, Geroa Baik «harridura eta kezka» plazaratu nahi izan ditu. Igorritako prentsa-oharrean adierazi dutenez, «Espainiako eta Europako banderak erabakiaren berri eman gabe» zintzilikatu zituzten eta «abuztuaren 28ko ohiko batzarrean erabakiaren berri eman ez zutenek, ezkutuan hartutako erabakia» dela aipatu dute.

Udal Gobernuak, Azkar Taldeak eta «bereziki, Iñaki Ariztiaren» erabakiak «harridura»

eragin dio Geroa Baiari. «Kezkagarriena», ordea, «Azkar Taldeak Nafarroako eta Urdazubiko banderak ahaztu edo baztertu izana» dela uste du: «Zertaz? Noiz, nola eta nork hartu du erabakia?».

Erabakiarekin ados ez dardela ageriko egitearekin batera, «Udal Gobernuari eta bereziki azalpenak exijituko» dizkiotela adierazi du.

Iñaki Ariztia alkatearekin harremanean jarrita, «eman beharreko erantzun guztiak dagokion lekuan, udal batzarrean, emanen dituela» jakinarazi dio TTIPI-TTAPAri.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA ETA IRAIA

'La brecha orgásmica' solasaldia

Irailaren 5ean, larunbat arratsaldean kultur etxean *La brecha orgásmica* izeneko solasaldi interesgarria eman zuten. Udalak eta Ugarana emakume elkarteak antolatu zuten Paola Damontiren hitzaldi hau eta jende andana bildu zen haren solasak entzutera.



ARGAZKIA ETA TESTUA: ARANTXA ETA IRAIA

Lehen jaunartzea egin dute hilaren 5ean

Normalean ekainean izaten baziren ere, aurten jaunartzeak irailaren 5ean izan ditugu. Bortz hurrek hartu zuten jaunartzea: Gorka, Joseba, Enaitz, Nahia eta Izaro izan ziren egun handi honetako protagonistak. Zugarramurdi udan egin zuten eta han Urdazubiko bertze lau hurrek egin zuten jaunartzea.



www.caserresidencial.es

<p>Laguntza zerbitzuak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Medikua • Farmazia • Erizaintza • Psikologoa • Gizarte langilea • Okupazio terapia <p>Ostalaritza</p> <ul style="list-style-type: none"> • Harrera • Garbiketa • Ikuztegia • Sukaldea • Mantentze zerbitzua 	<p>FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Animazio soziokulturala • Nutrizioa • Podologia • Odontologia eta dentista • Logopedia • Audioprotesista <p>Bestelakoak</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ile-apainketa • Jostuna • Erijiro zerbitzuak-Meza • Kanpora laguntzea • Laguntza teknikoaren kudeaketa
--	---

ANAKA | Anaka, 8 - IRUN | Tel.: 943 667 780
BETHARRAM | Zubieta, 161 - HONDARRIBIA | Tel.: 943 647 169

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN



facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Kultur eskaintza zabala Abian! egitasmoaren baitan

Abian! egitasmoaren baitan antzerkiak, musika saioak, zirkua eta dantza emanaldiak izanen dira

TTIPI-TTAPA

Antzerkia, musika, zirkua eta dantza uztartuz bi egunez hainbat ikusgarri gozatzeko aukera izanen da buruilaran 24an, 25ean eta 26an. Euskal Hirigune Elkarguneak antolatutako Abian! jaialdia izanen da eta herriko hainbat tokitan egingen dira hitzorduak.



Hainbat ikusgarri izanen dira.

Ortzeguna, buruilak 24

• *Qu'est ce que tu fabriques?* arte grafikoa eta soinuak uztartuz, 18:00etatik 20:30era Arraya hotelean. Frantsesez izanen da.

Ortziralea, buruilak 25

• *Qu'est ce que tu fabriques?* arte grafikoa eta soinuak uztartuz, 18:00etatik 20:30era Arraya hotelean. Frantsesez izanen da.
 • *En Apnée* antzezlan, 19:00etan kiroldegia itzinean. 12 urtetik goitikoendako izanen da eta frantsesez.
 • *La femme de Pierre* antzezlan, 19:30ean. 12 urtetik goitikoendako izanen da eta frantsesez.
 • *Le Grand Bancal* antzezlan, Xoko Goxon, 21:00etan. Saio eleaniztuna izanen da.

Larunbata, buruilak 26

• *Qu'est ce que tu fabriques?* arte grafikoa eta soinuak uztartuz, 14:00etatik 20:30era Arraya hotelean.
 • *Dépagne de jour* musika saioa, 14:30ean, 16:30ean eta 22:30ean, Xoko Goxon.
 • *Papiers dansés* dantza emanaldia 15:00etan VVFn.
 • *Eden* antzerkia, musika eta arte bisualen ikusgarria 15:00etan Denen Etxean.

- *Ensemble* zirkua 15:00etan eta 21:00ean Xoko Goxon. Zazpi urtetik goitikoendako izanen da.
- *Oxido* antzezlan, 16:00etan Denen Etxean. 12 urtetik goitikoendako izanen da, euskaraz.
- *Kutxetan Ibilki* antzezlan, 16:30ean VVFn.
- *Papiers dansés* dantza emanaldia 17:00etan VVFn.
- *Usopop-ek* aurkeztuta *Mairu* musika emanaldia, Xoko Goxon, 17:30ean. Euskaraz izanen da.
- *La figure du baiser* dantza emanaldia 19:00etan Xoko Goxon. Zortzi urtetik goitikoendako saioa izanen da.
- *La femme de Pierre* antzezlan, 19:00etan VVFn.
- *Voce ai Silenzi* musikak lagundutako antzerki parte-hartzailea 20:00etan kiroldegia inguruan. Saio eleaniztuna izanen da.

Segurtasun neurriak

Ikusgarri guztiak urririk izanen dira baina Euskal Hirigune Elkargotik aitzinetik tokia erreserbatzeko aholkatu dute. Horrekin batera, osasun egoera dela eta, hitzordu bakoitzean segurtasun tartea mantenduko dute eta maskara erabiltzea baitezpadakoa izanen da.



140 bat autore bildu ziren aurten 37. edizioa bete duen biltzarrean. GANEX

Marie-Jose Basurko eta Koldo Ameztoui ohoratu dituzte biltzarrean

GANEX

Usaian baino jende gutiago bildu bazen ere, Covid-19a eritasunak ez zituen izitu buruilaran 6an Sarako Biltzarrean bildu ziren 140 bat autoreak eta bisitariak.

Iragan apirilaren 13an eta 14an egin beharra zen aurten-go biltzarra baina koronabiru-

sa tarteko buruilara gibelatu zuten, eta bi egunetan egin orde, bakarrean egin zuten. Segurtasun neurriak hartuta, argitaletxeek eta idazleek hainbat lan aurkeztu zituzten aurten 37. edizioa bete duen biltzarrean eta sariak Marie-Jose Basurko eta Koldo Ameztouirendako izan ziren.



Helduen lasterketan parte hartu zuten 36 lasterkariak. GANEX

Joseba Larralde beratarrak irabazi du kontrabandisten lasterketa

GANEX

Iaz bezala, Joseba Larralde beratarrarentzat izan zen agorri hondarrean Saran egin zen kontrabandisten lasterketa. 39 minutu eta 17 segundoko denbora behar izan zuen 8,4 kilometroko ibilbidea osatzeko (iaz 40.35). Gibeletik, Baionako Guillaume Levoy sailkatu

zen (39.46) eta Iñaki Mihura arraioztarra hirugarren (41.19). Emakumezkoetan, Maud Combarrieu izan bizkorrena (48.17), bigarren Ainhoa Etxegarai beratarra (55.54) eta hirugarren Julene Etxeberri saratarra (01.01.05). Helduez gain, haurrek ere lasterketa egin zuten eta merkatua ere izan zen.

NAFARROA

'Gaur bai' kirola segurtasunez egitera animatzeko kanpaina abian

TTIPI-TTAPA

Kirola modu arduratsuan eta segurtasunez egitera animatzeko kanpaina abiatu du Nafarroako Gobernuak, *Gaur bai* goiburuean.

Gobernutik adierazi dutenez, «kanpaina abiarazi dugu ziur gaudelako kirolean jardutea eta ariketa fisikoa egitea garrantzitsuak direla Nafarroako gizartearen osasuna eta ongizatea sustatzeko». Kanpaina Nafarroako Gobernuak eta kirol-eragileek bultzatu dute. Martxotik, hainbat topaketa eta lan-mahaitan parte hartu dute Nafarroako Kirolaren Institutuarekin.

Kirol-arloan «erabateko erantzukizuna» egiten ari den etengabeko lan bateratua nabarmendu dute. *Gaur bai* kanpainaren goiburuari dagokionez, «inoiz kirola egin dutenek, edo egiteko asmoa dutenek, bat eginen dutela harekin», adierazi dute.

Komunikazio-kanpaina irailan egiten ari dira, bat egin dezan entitate publiko eta pribatuak kirolaren eta ariketa fisikoaren arloko eskaintzak iragartzen hasten diren garaiarekin. Alde grafikoari dagokionez, hainbat adinetako pertsonak ikus daitezke ariketa fisikoak egiten.



Kanpainako irudietako bat.



Senpereko kirol elkarten mahaia, Larrekon. JEAN-LOUIS BESSONART

Neurri zorrotzekin ederki iragan da Elkarten Eguna

Buruilaren 5ean elkarretaratu dira berrogei bat elkarte, Larrekon

PIERRE BASTRES

Azken urte hauetan ainitz handitu da Senpereko jendetza, eta ongi erakusten du elkarten kopuruak: 90 badi-herrian, gutti goiti-beheiti. Horiatarik 40 inguru hurbildu ziren buruilaren 5eko elkarretaraterat.

Herriko Etxeko Elur Alberdik dioen bezala, «nahiko arranguratuak ginen, osasun neurri zorrotzak bete behar direlako, eta horrek lana ez du errazten. Halere, jende ainitz etorri zai-

gu, eta abantzu usaian bezala iragan da. Antolakuntzaren aldetik arrakastatsua izan da. Larreko gela ederki bete zen. Ageri da jendeek nahi dutela aitzinerat jarraiki, egoera bitxi honen gainetik eginez».

Bertzalde, aurtengoan ere hautetsiek zerbitzako lana egin zuten, lehen aldia zen ekipa berriko ainitzentzat. «Ondikoz, bazkaririk edo zintzur bustitzerik ezin dugu egin, heldu den urtean agian!», aipatu digu Alberdik.

SENPERE

'Zezenkarien baltsa' ikusgai buruilaren 26an Larrekon

TTIPI-TTAPA

Le valse des toréadors (Zezenkarien baltsa) antzerkia 1952. urtean sortu zuen Jean Anouilh-ek. Berriz jokatu zen 1973. urtean, bereziki Louis De Funes eta Sabine Azema-ekin, lehenak taularen gaineko azken agertzea egiten zuelarik eta bigarrenak taularen gaineko lehen agertzea. *Zezenkarien baltsa*, komedia irriarri eta garratza da eta buruilaren 26an jokatu du Compagnie Théâtrale du Phénix taldeak, Anne-Marie Souberbiellek egokituta, Larreko kultur aretoan, 20:30ean. Sarrera 14 euro ordaindu behar da, 8 euro hamalau urtez beheitikoek.

'Zezenkarien baltsa'

1910. urtean, zezen-plaza bilakatu den etxe batean, senarra, jeneral erretiratu, eta etxeko anderea, presuna eria, buruz-buruko bitxi batean bihurtzen ari dira, inguruan dituztelarik gudu-zerbitzari iduri: etxeko bi alabak, medikua, etxegelaria, idazkaria, erretorea... eta ohaidea. Hots, *vaudeville* alegera eta gozagarri baten gai guziak bilduak dira gizonaren barneko zorigaitza zartarazteko baltsa xogarri baten gisa...

VENTA PEIO®
GEHIAGO EMATEN DIZU

IBARDIN 31780 Bera BEHOBIA 20305 Irun LUZAIDE 31660 Luzaide DANTXARINEA 31712 Urdax

EGUNERO IREKIA, ASTELEHENETIK IGANDERA ARTE
*Abenduaren 25º eta sarturikaren Pizcan ezik

www.venta-peio.com / (Fr) 0820 562 267 / (Es) 0034 902 210 800



Ibilbidea egin zuten kideetako batzuk Endarlatsan eta bertze hiru (Indakotxea, Lasarte eta Huizi), Mendaurren. MANTTALE



Bortzirietako itzulia (101,8 km) egin dute Manttaleko kideek

Lau txandatan banatuta, bere garaian Loro Pikabeak eta Jabier Zubietak egindako bidearen antzekoa osatu dute irailaren 5ean

TTIPI-TTAPA BERA

Manttaleko kideek aspaldi egin nahi zuten ekintza burutu zuten irailaren 5ean: Bortzirietako mendi itzulia oinez eta korrika. Txandaka eta taldeka egin zuten duela urte batzuk Loro Pikabeak eta Jabier Zubietak egindako itzulia. Nahiz eta aldaketaren bat egin,

ibilbidea lau zatitan banatu zuten. Larunbat goizeko laurutan abiatu ziren Berako Agerra elkartetik eta 15 ordu eta 14 minutu beranduago iritsi ziren leku berera, ia 102 kilometro egin ondotik.

1.zatia: Bera (Agerra)- Larretagaina (Santa Barbara)- Idoia-Lizuniaga- Gondendiaga- La-

run-Yasola-Intzola-Erentzun-Ibardin- Manttale- 8.muga- 1.muga- Endarlatsa (25km) 4 ordu eta 27 minutuz. 1.851 metro alde positiboa eta 1.821 metro alde negatiboa. Juan Luis Irazoki, Txus Unsió eta Anjeltxo Aranibar izan ziren zati honetan. Azkeneko zatian Joselu Unsió gehitu zen.

2.zatia: Endarlatsa- Erlaitz-Everest Txiki- Elurretxe- Aritxulegi- Bianditz- Elutsa (16km), 3 ordu eta 7 minutuz. 1.300 metro alde positiboa eta metro 465 alde negatiboa pilau zuten Patxi Pikabea, Iñaki Pikabea, Joxemari Salgado, Joxe Mari Telletxea eta Juanma Molinerok. Erlaitzeko aldean Mugaritako talde batekin joan ziren.

3.zatia:

Elutsa- Pagolleta- Izu- Ekaitza- Mendaur- Bulatxiki- Abelu- Igantziko Bentak (26 km), 3 ordu eta 50 minutuz. 1.500 metro alde positiboa eta 2.200 metro alde negatiboa Joseba Lasarte, Josema Huizi eta Juan Mari Indakotxea izan ziren.

4.zatia:

Igantzioko Bentak- Azkua- Morkorrek Borda- Baztan Borda- Saroi Borda- Lizaieta- Idoia- Larretagaina (Santa Barbara)- Bera (Agerra) (34,8 km), 4 ordu eta 20 minutuz. 1.245 alde positiboa. Julen Errandonea eta Juanra Pikabea.

Denera 101,8 km egin zituzten 15 ordu eta 44 minututan, 5.896 metroko alde positiboa pilatuz.



UTZITAKO ARGAZKIA

Luziano Mitxelena Espainiako txapeldun

Master-60 B kategorian berriz ere Espainiako txapeldun izan da Luziano Mitxelena lesakarra, irailaren 5ean Mallorkan egindako proban. Patxi Meoki elizondoarra hirugarren izan zen Master-60 A kategorian eta Elgorriagako Manu Ganboak 23. postuan sailkatzea lortu zuen master-40 mailan.

Unai Garro beratarra garaile Lukinen

Gure Txokoako Unai Garro beratarrak bere lehen garaipena lortu zuen irailaren 5ean, kadete mailako txirrindulariei zuzendutako 47. Lukingo Udala Sarian. Aurten, uztailaren 26an bere herrian ospatutako Berako Txirrindularitza Sarian debuta egin zuen Garrok, eta bosgarren izan zen. Beñat Irazoki beratarra ere ongi ibili zen Lukinen eta 42. postuan sailkatu zen. 85 txirrindulari abiatu ziren proban.



UTZITAKO ARGAZKIA



Ezkerretik hasita bigarrena Oier Larretxea eta eskuinean Endika Goia. IBON ERRAZU

Oier Larretxeak mailaz igotzea lortu du

Berako aizkolari gaztea heldu den urtean Nafarroako bigarren mailan ariko da

TTIPI-TTAPA

Txapelketetan joan den urtean debutatu zuen Oier Larretxea Agirre beratarrak Nafarroako bigarren mailan jokatu du heldu den denboraldian. Abuztuaren 29an Beran jokatu zuen Nafarroako III. Aizkora Txapelketako finalean bigarren egin zuen eta hala, mailaz igotzea lortu du.

Larretxearekin batera, Endika Goia beratarrak eta Ibai Soroak (Arribe) jokatu zuten hirugarren mailako finala. Hain zuzen, Soroa izan zen guztietan bizkorrena, 45 ontzako bi enbor eta bi kanaerdiko moz-

teko 09.04.47ko denbora behar izan baitzuen. Bere gibeletik Larretxea sailkatuzen (17.00.28) eta hirugarren Goia (21.18.15). Hala, finalean lehenbiziko bi postuetan sailkatzeagatik, Soroa eta Larretxea Nafarroako bigarren mailan ariko dira heldu den urtean.

Larretxea kontent gelditu zen postuarekin, ez, ordea, egindako lanarekin. *Xorroxin irratian* egindako elkarrizketan «plazako presioa sentitu» eta ez zela nahi bezala aritu aitortu zuen; egindako lanarekin ez zela «sobera kontent» gelditu erran zuen.

Xabier Ibargarai nagusi udako pala txapelketan

Xabier Ibargarai erratzuarrak eta Dan Necol frantziarrak irabazi dute udako Pala Tour 2020 txapelketa. Irailaren 5ean Frantziako Akitaniako Saint Geour de Marenme herriko pilotalekuan jokatu zuen finalean, menpean hartu zituzten Gordon eta Gaubeka.

Behobia-Donostia lasterketarik ez da izanen aurten

Behobia-Donostia lasterketaren antolatzaileek aurtengo edizioa bertan behera uztea erabaki dute. Parte-hartzaile guztien segurtasuna bermatzea «funtsezkoa» dela uste dutelako eta hori euren «ahalmenetik kanpo» dagoelako hartu dute erabakia.



Maika Ariztegi ingudearekin lanean.

Maika Ariztegi iturendarrak bigarren egin du ingude altxatze txapelketan

TTIPI-TTAPA

Abuztuaren 29an Beran jokatu zen Nafarroako emakumezkoen ingude altxatze txapelketa eta Maika Ariztegi iturendarra bigarren gelditu zen. Ohi bezala, bederatzi kiloko ingudearekin minutu eta erdiko denbora izan zuten ahalik eta altxaldi gehien egiteko.

1. Virginia Finol (Iruñea): 97 altxaldi.
2. **Maika Ariztegi (Ituren): 94 altxaldi.**
3. Iruñe Biurrun (Antsoain): 82 altxaldi.
4. Jenny Serrano (Iruñea): 81 altxaldi.
5. Anjela Zuñiga (Antsoain): 76 altxaldi.



Josetxo Urrutiak txapeldunak baino hiru altxaldi guttiago egin zituen.

Josetxo Urrutia leitzarra bigarren gelditu da ingude altxatze txapelketan

TTIPI-TTAPA

Josetxo Urrutiak bigarren postua eskuratu zuen abuztuaren 29an Beran jokatu zuen Nafarroako ingude altxatze txapelketan. 18 kiloko ingudearekin minutu eta erdiz bortz kirolari aritu ziren eta irabazleak baino hiru altxaldi guttiago egin zituen leitzarrek.

1. Iosu Marturet (Antsoain): 87 altxaldi.
2. **Josetxo Urrutia (Leitza): 84 altxaldi.**
3. Alex Fernandez (Iruña): 78 altxaldi.
4. Imanol Martin (Berriozar): 75 altxaldi.
5. Angel Albarran (Guadalajara): 69 altxaldi.

AGENDA

IRAILAK 17 - URRIAK 1

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus

HITZALDIAK

DONEZTEBE

Trafiko ordenantzari buruzko bilera

Mourges etorbidea, Karrika Nagusia, Intzakardi, Rosa Seminario eta Merkatarien Karrikako herritarrentzat.
Zinema aretoan, irailaren 17an, 20:00etan.

Trafiko ordenantzari buruzko bilera

Elizagibela, Sagardia, Parrokia, Nagusia, Trav Mayor, Merkatarien errepidea (Caixaraino) eta Santa Luziakoak.
Zinema aretoan, irailaren 24an, 20:00etan.

Trafiko ordenantzari buruzko bilera

Amezitia, Amezitia zeharbidea eta Caixatik zubira.
Zinema aretoan, urriaren 1ean, 20:00etan.

BERA

Euskararen erabilerari buruzko gogoeta saio parte-hartzailea

Kultur etxean, irailaren 18an, 17:00etan hasita.

ARESO

Uso postuen enkantea

Udaletxean, irailaren 19an, 19:00etan.

GOIZUETA

Amets Arzallusen 'Miñan' liburuaren aurkezpena

Irailaren 25ean, udaletxeko ganbaran, 19:00etan hasita. Edukiera mugatua.

IKASTAROAK

LESAKA

Irakurketa-idazketa garatzeko arazoak haur



ATARIA.EUS

GOIZUETA 'Miñan' liburuaren aurkezpena

Ibrahima Balderek anaiaren bila Afrikatik Europaraino egiten duen ibilbidea ardatz duen istorioa.
Udaletxeko ganbaran, irailaren 25ean, 19:00etan.

euskaldun elebidun edo eleaniztunengan

Harriondoa kultur etxean, irailaren 18an eta 19an.

IGANTZI

Emakumeentzako arte topaketa

Urriaren 9tik azaroaren 7ra bitarte, ortzirale eta larunbatetan. Izen-ematea: 600 01 96 01.

KONTZERTUAK

ERRATZU

Baztan kantuz

Plazatik abiatuta, irailaren 20an, 12:00etan.

SARA

'Dépannage de jour'

Xoko Goxon, irailaren 26an, 14:30ean, 16:30ean eta 22:30ean.

BERTSOAK

BERTSOA

Xilaba txapelketa

Irailaren 19tik aitzinera.

MALERREKA-BAZTAN-BORTZIRIAK

Bertso eskola

Ituren, Doneztebe, Irurita, Arizkun, Lesaka, Bera, Etxalar, Arantza eta Igantzin (xehetasunak 28.orrrialdean).

IKUSKIZUNAK

BERA

Tio Teronen semeen 'Festamentua'

Herriko Etxeko plazan (euria bada Altzateko pilotalekuan), irailaren 19an, 19:00etan.

Kamishibai saioa

5-8 urtekoei zuzendua. Liburutegian, irailaren 25ean, 18:00etan.

'Etxerik txikiena' antzezlan

Kultur etxean, irailaren 27an, 17:00etan.

DONEZTEBE

'La fea, la mala y la mejicana'

Santa Luzia plazan, irailaren 26an, 19:00etan hasita.

ELIZONDO

Kukai dantza taldearen emanaldia

Braulio Iriarte pilotalekuan, irailaren 25ean, 19:00etan.

SARA

'En Apnée' antzerkia

Kiroldegi aitzinean, irailaren 25ean, 19:30ean.

'La femme de Pierre' antzerkia

VVFn, irailaren 25ean, 19:30ean.

'Le Grand Bancal' antzerkia

Xoko Goxon, irailaren 25ean, 21:00etan.

Papiers dansés

VVFn, irailaren 26an, 15:00etan.

'Ensemble' zirkua

Xoko goxon, irailaren 26an, 15:00etan.

Nire aukera

AZOKAK

ELIZONDO

Artisauen azoka

Plazan, irailaren 19an eta 26an, goiz osoz.

KIROLA

ELIZONDO

Izterpeko matxinada

Irailaren 25ean.

OSPAKIZUNAK

LESAKA

Udako zikloaren itxiera

Irailaren 19an.

LESAKA

Arrano elkartearen eguna

Mendi irteera eta bazkaria. Irailaren 19an.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

Komiki erakusketa

Urriaren 4ra arte, Arizkunenean, arratsalde, 18:00etatik 20:00etara.

TAILERRA

ARANTZA

Genero indarkeria gazteen arteko harremanetan

Idoia Lekue Peña hizlari. Herriko etxeko bilera aretoan, irailaren 17an, 17:00etan.

ELIZONDO

Helduendako komiki tailerra

Arizkunenean, irailaren 19an, 10:00etatik 14:00etara.

Haurrendako Lego tailerra

Arizkunenean, irailaren 26an, 11:00etatik 13:00etara.

«Hurrengo erronka estuagoa eta politagoa izanen dela uste dut»

JON BELARRA OTEIZA DONEZTEBEKO GAZTEA



«Herria maite duen 23 urteko gaztea» da Jon Belarra. Herria, familia eta lagunak. Lanetik kanpo, egunerokoa horren bueltan eraikitzen du: «Ultzamaiko fabrika batean aritzen naiz lanean eta goizez lan egiten dudanean arratsaldeak lagunekin kirol pixka bat egiteko baliatzen ditut...». Berarentzat aront garrantzitsuak dira lagunak: «eurekin pasatzen ditudan momentuak aunitz eskertzen ditut».

Normalki, «otorduak eta bestak» izaten dituzte biltzeko aitzakia. Azken aldian, maiz, Galarretara joan dira, «Aritz Juanenearen partida ikusi eta animatuz gozatzeraz».

Lagunak eta mendia, erronka ikusgarria

Kirola ikusi eta egin. Horixe du zaletasun handiena, «baita besta egitea eta lagunekin otorduen bueltan elkartzera ere». Biak bateratzeko modua harrapatuta egin zuten uztailaren 25ean Bostorratz-Mendaur erronka: «Aritz Juanenea, Urko Loiarte, Iñaki Maylin eta laurok mendira joateko elkar-tu eta bueltan bazkaltzera joan ginen. Mahaiaren bueltan ginela bertze kuadrilla batekin topo egin eta 10 lagun bildu

ginen. Bazkaltzen geundela, Urkok erronka proposamena bota zuen eta bertan geunden sei mendizaleri ideia gustatu zitzaigun».

Brometan hasi zena serio hartuta onartu zuten erronka: «bertze biri aipatu eta baiezkoa erantzun zuten». Burua eta gorputza horri begira jarrita, «hilabete eta erdiz» entrenatzen aritu ziren Julen Retegi eta biak: «astean bizpahirutan mendira joan ginen eta Bostorratz-Mendaur ibilbidea ere egin genuen, denborak hartzeko».

Ongi oroitzen du egun handia: «egunak joan eta egunak etorri hori nerabiltzen buruan eta eguna ailegatu, apustua egin eta atzetzeko gogoa nuen». «la lorik egin gabe» joan zen abiapuntura: «lagun arteko erronka zen arren, aront urduri nintzen...». Ez zen bere kontua, gainerakoengan ere antzeman zuen hori: «09:00etan abiatzeko gelditu ginen arren,

«ENTRENATUTA GURE MARKAK HAUSTEKO GAI GARELA IKUSI DUGU»

08:30erako Bostorratz geunden denak...». Kaskoan, Retegi eta biek txapela jantzi zute-nean, lasaitu zen gaztea: «Retegi indartsu ikusten nuen eta denbora ona eginen zuela jakin banekien... Bera aitzinetik zihoala ikustea ere mese-degari izan zen, baina presioa hor zegoen...».

Mendian hasitakoa mahai inguruan borobildu zuten: «Arotxan bazkaldu, musean ari eta trago batzuk hartuz pasatu genuen arratsaldea, apustuaz solastatu bitartean».

Azaroan hurrengo

Egun polita izanenez, errepikatzeko gogotsu gelditu ziren parte-hartzaileak. Orain, hurrengora begira hasiak dira: «azaroan berriz ere erronka egitea adostu dugu». Ibilbide bera aukeratu dute, «denok ezaguna dugulako eta entrenatuz gero guztiok denbora onak egiteko gai garela ikusi dugulako». Dena den, «estuagoa izateko» bikoteak orekatu dituzte: «denboraren banaz bertzeko atera genuen eta horren arabera bikoteak zehaztu genituen...».

Belarrak Aberri Untxalo izanen du lagun: «burugorria da eta bere lana ongi eginen du, seguru!». Hala ere, «estuagoa» izanen denez, ez du deus argi ikusten: «lehenbizikoak bezala azkenak izan gaitzke. Zentzu horretan, ikusleentzat erronka polita izanen dela uste dut». Oraingoan, aurkari gogorenen artean «Aritz Juanenea eta Julen Retegi» ikusten ditu, baina garaipena ez da ezinezkoa eta horren bila joko dute. Gaur gaurkoz, «udako azken egunez gozatzen» ari diren arren, laster ekinen diote pres-taketari: «hilabete eta erdi falta denean gogor entrenatuko dugu...».

Momentuan momentukoari begira eta, gero gerokoak: «nork daki azkena izanen den edo ondotik bertze erronkaren bat adostuko dugun!».

ZERBITZUAK

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI

BERA. Etxea salgai edo errentan emateko. 3.500m²ko partzelarekin. ☎616 24 35 30.



LESAKA. Etxe dotorea salgai, hobekuntza aunitzekin. Argibide gehiagorako eta ikusteko deitu. Eskaintzak aditzeko prest. ☎609 47 72 77.

LABAIEN. Zaharbertitzeko dagoen baserria eta eraiki berria den etxea salgai, bizitzeko prest. 19.000 m²ko lur eremuarekin. Eguzkitsua eta bista ederrekin. ☎630 23 50 64.



BERA. Kanpora ematen duen 140 m²-ko pisua salgai. 4 logela, egongela, sukaldia eta bi bainugela. 16 m²ko trastelekua. Igogailua. Egoera onean. 189.000 euro. ☎948 63 05 52.

ERRENTAN EMATEKO

BERA. Eztegarra karrikan pisu konpartitu batean logela errentan emateko. ☎667 03 90 27 / 629 008 081 (Whatsapp).

BERA. Erdigunean pisua errentan emateko. Hiru logela, egongela, sukaldia eta komuna. Behoko solairuan trastelekua. ☎677 88 94 48.

IRUÑEA. Arrotxapean, irakasle edota langileentzako pisua errentan emateko. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Mobeztatua, igogailua eta berogailuarekin. ☎666 38 80 63

BERA. Pisua errentan emateko: 2 logela, sukalde-egongela, komuna, trastelekua. 2 balkoi. Gas natural-berokuntza. ☎674 14 39 72. (17:00etatik aurrera).

ERRENTAN HARTZEKO

BORTZIRIAK. Eskaera handia dela eta, errentan hartzeko pisuak behar dira. Jabearentzat kosturik gabe. Aitzinetik maizterren inguruko azterketa eskatuko da. Errentamendu-kontratua. Alokairuaren kudeaketa osoa. ☎948 63 05 52.

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

✉ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 €** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 €** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira
TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da
Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan
Bizum bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

KONPARTITZEKO

TOLOSA. 2020/21 ikasturterako bi neska hirugarren pisukide bila. ☎684 34 93 24 / 619 94 03 60 (Whatsapp).

BORTZIRIAK EDO MALERREKAN hiru hilabeterako gela baten bila. ☎609 69 13 76.

EROSI

BORTZIRIAK. Borda bat erosi nahi dute, nahiago planta bakarrekoa eta 200 m² ingurukoa, ura eta elektrizitatea duena. ☎606 44 64 49.



744 484 361

✉ ttipi-ttapa

ZERBITZUAK

ZURGIN-LANAK

ARANTZA ZURGINDEGIA
Klase guzietako zurgin lanak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe
Joxe Miguel Errandonea · ARANTZA
647 810 144 · 626 093 181

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTZEKO

ELIZONDO. Elektrizitatea duen garajea errentan hartu nahi dute. ☎680 47 27 85.

SALGAI

BERA. San Esteban karrikan (17. zk), 36 m²ko garajea salgai. Bi ibilgailuren-tzat. ☎616 17 63 50 / 606 65 66 40.

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 3,96
- 1.koa 3,84
- 2.koa 3,69

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 4,07
- 1.koa 3,93
- 2.koa 3,79

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 130,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 130,00
- Idixkoak 150,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 3,26/3,36
- Zaldi-behorrak 1,87/2,04

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,70/8,30
- 8-10 kilokoak: 6,35/6,65

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 35 €

Zerri gizona 1,300 €

Zerramak 0,420€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua abuztuaren 28tik irailaren 4ra bitarteko prezioak)

ERRENTAN EMATEKO

LESAKA. Zarandia karrikan, 130m²ko lokal komertziala errentan emateko. ☎ 671 13 45 46.

LURRAK/ORUBEAK

SALGAI

ZUBIETA. 400m²ko partzela urbanizatua salgai. Zonalde onenean, erreka ondoan, eguzkitsua, erakargarria eta bibrazio onak. 50.000 euro. Erraztasunak. ☎698 51 15 25.

LANA

ESKARIAK

Esperientziadun gizonezkoa lan bila. Edozein lanetan. ☎643 43 09 37.

ESKAINTZAK

ZUGARRAMURDI. Kattalin jatebxean zerbitzaria behar dute. Esperientzia izatea eta frantsesa jakitea beharrezkoa. ☎948 59 91 46 / 948 59 91 46.

Urarekin lan egiten duen enpresa batek **langile-muntatzaile** bat behar du. PVC, PP eta PEarekin lan egin izana eta elektrizitate-elektronikan eta metal nahiz plastiko soldaduran ezagutzak baloratuko dira. Enpresan gelditu eta promozionatzeko aukerak. Bidali CV-a: lanau-ker01@gmail.com.

ETXALAR. Egutero lau-sei orduz lan egiteko pertsona bat behar da bi haur zaintzeko. Bost eta bederatzi urtekoak. Ttikitatik zaintzailekin ibilitako haurrak dira. Lana epe luze-rako izateko aukera dago. Pertsona gaztea eta gidabaimenarekin. Interesatuek edota zalantzak argitzeko, bidali Whatsapp-a. ☎609 57 58 14.

LESAKA. Antoiu ostatuan esperientzia duen sukaldaria behar dute. ☎636 80 94 50 / 948 63 73 93.


IBARDIN. Beola Bentan asteburuetan lanean aritzeko frantsesa dakien jendea behar da. ☎948 63 07 09 / beolaetxea@gmail.com.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Labrador txakur arra opari, pedigriduna. Oso argia eta zintzoa. 2012an jaioa. Albaitariaren kartilla eta txerto guztiak. Bisitatzerik bagenu, estimatuko genuke. ☎666 81 88 77.



Lau hilabeteko **bi katu** opari. ☎677 09 95 99.



Katakumeak oparitzeko. ☎626 33 53 98.



Zakurkumeak oparitzeko. Ama artzain zakur mestizoa eta atta husky arrazakoa. ☎661 90 50 09.

SALGAI



BERA. 2 setter txakurkume salgai. Emeak eta bi hilabetekoak. Atta eta ama ehiztari onak. ☎630 05 82 59 / 619 37 10 89.




LEITZA. Txerrikumeak salgai, bizirik edo laberako prestatuta. Prezioa telefonoz edo Whatsapp bidez. ☎690 98 61 18.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK

Audifono grisa galdu da uztailaren 21ean Donezteben. ☎ 948 45 09 25 / 626 56 60 04.

SALEROSKETAK



90 cm-ko **bi ohatze** salgai. Bakoi-tza 300 eurotan. ☎673 54 87 67.



Transportes Bidasoa, **Zaragoza ibilbidean plaza** salgai. Prezio onean eta ordaintzeko erraztasunak. ☎618 96 31 01.

GANIX
Tailerra

948 63 06 69
Zalain Pol., 11 . BERA
EUROMASTER zegoen lekuan

SANTESTEBAN TAILERRAK

RENAULT KADJAR ZEN TCE 140 CV
Matri. berria - 20.500 € - Nab. - Radar kam. - Led argiak

RENAULT MEGANE ZEN TCE 140 CV
Matri. berria - 17.700 € - Nab. - Radar kam.

www.talleressantesteban.com
DONEZTEBE - T. 948 450 282 - info@talleressantesteban.com

BAZTANGOZA
TAILERRAK

Citroen Berlingo
100 CV - 76.000 km

Citroen Berlingo
4X4 - 90 CV

VW Touran 2.0 TDI
2017koa - 150 CV

Ordoki ind. - Arizkun - BAZTAN
T.Fax 948 453 493 - 617 969 847
bantzangoiza@yahoo.es
www.baztangoizataillerrak.com

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

ATERA TTIPI TXARTELA eta erabili
pegatina hau ikusten duzun denda eta zerbitzuetan

Aprobetxatu aukera!

ZERBITZUAK

HERIOTZAK

- **Restituta Galan Utande**, Berakoa, abuztuaren 27an, 96 urte zituela.
- **Antonio Guerra Urtxegi**, Igantzikoa, abuztuaren 27an, 87 urte zituela.
- **Maritxu Sukunza Zabaleta**, Leitzakoa, abuztuaren 27an, 74 urte zituela.
- **Luis Miguel Cambra Martinez**, Elgorriagakoa, abuztuaren 28an, 56 urte zituela.
- **Jesus Urbano Elizondo Albistur**, Beintza-Labaiengoa, abuztuaren 30ean, 66 urte zituela.
- **Francisca Agesta Alzugarai**, Sunbillakoa, abuztuaren 30ean, 94 urte zituela.
- **Josefa Errandonea Lasa**, Leitzakoa, irailaren 1ean, 92 urte.
- **Angel Gartzia Telletxea**, Zugarramurdikoa, irailaren 3an, 74 urte zituela.
- **Pedro Grazenea Aldaia**, Eratsungoa, irailaren 3an, 75 urte.
- **Joxe Mari Barrenetxe Lertxundi**, Elizondokoa, irailaren 5ean, 62 urte zituela.
- **Paulino Urtasun Santesteban**, Iruritakoa, irailaren 8an, 91 urte zituela.
- **Begoña Oharriz Korteia**, Gartzaingoa, irailaren 9an, 52 urte.

**BEILATOKIAK**
ELIZONDON, BERAN ETA DONEZTEBEN
Zerbitzuak Baztanen, Bortzirietan,
Bertizaranan eta Malerrekan
Hurbiltasuna eta begirunea
HEMEN, ZURE ONDOAN
AGUI, A TU LADO
T. 948 05 90 90 www.izarratanatorio.com

**BAZTAN BIDASOA**
Ehorzketa Zerbitzuak
BAZTAN: **ELIZONDO**n Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: **BERAN** San Jose Beilatokian
MALERREKA: **DONEZTEBE**n Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com
Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA
ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere
24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com
Betiko taldea zu laguntzeko

IRACHE
tanatorioak
Nafarroako familien zerbitzura 1976tik
BERA (Kanttonberri, 14) | DONEZTEBE (Amezti, 13)
ELIZONDO (Santiago, 52) | LESAKA (Zarandia, 18)
ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritarra
24 948 63 74 04 / 948 19 70 70

OROIGARRIA



Antonio GUERRA URTXEGI

Igantzin, 2020ko abuztuaren 27an, 87 urte zituela

Zainen polita izan den
Zure ondoan hazitzea
Uso, amurri zein onddo,
Afizio horiek ezagutzea
Zuk ongi ikusi zenuen
Bederatzi biloben sortzea
Momentua ailegatu da
Bihotzez guk zu agurtzea

Berdin segituko dugu
Beti zaintzen baratzea
Igande eguerditan ere
Amatxikin elkartzea
Ohiturak jarrai dezala
Kantu zaharrak kantatzea
Plazer bat izan da Aitatxi
Gu zurekin bizitzea.

ZURE FAMILIA

URTEURRENA

Anuntxi IRIGOIEN IRIGOIEN

Igantzin, 2019ko abuztuaren 28an
I. urteurrena



Urte bat bertzerik ez,
joan zinenetik.
Zenbat aldatu du
urte bakar honek, ordea,
gure bizimodua!
Zureganako maitasunak dirau,
denboraren gainetik.

ETXEKOAK

URTEURRENA



RAFAEL ENETERREAGA IRIGOIEN

I. urteurrena

Zure herriko xokoetan betiko, betiko gure bihotzetan.

SORTZEAK

- **Unax Suhas Etchart**, Urdazubikoa, uztailearen 3an.
- **Alazne Oiartzabal Gallego**, Elizondokoa, uztailearen 31n.
- **Arene Matxinena Barberena**, Urrozkoa, abuztuaren 6an.
- **Garazi Danboriena Padilla**, Etxalarkoa, abuztuaren 8an.
- **Unax Iantzi Goienetxe**, Berakoa, abuztuaren 10ean.
- **Erik Napal Ibarra**, Sunbillakoa, abuztuaren 26an.
- **Jone Etchart Ibar**, Itsasu-Urdazubikoa, abuztuaren 26an.
- **Markel Iturbe Serrano**, Etxalarkoa, abuztuaren 28an.
- **Ugaitz Esnaola Agirre**, Sunbillakoa, abuztuaren 28an.
- **Izei Gomez Altzugarai**, Leitzakoa, abuztuaren 30ean.
- **Izadi Hernandorena Sein**, Elizondokoa, abuztuaren 30ean.
- **Adei Ordoki Karrera**, Lesakakoa, abuztuaren 31n.

EZKONTZAK

- **Felix Luis Collado Legorburu** eta **Simone Dominique Beiala**, Donostiakoa eta Kamerungoa, abuztuaren 28an Etxalarren.

SORTZEAK ETA EZKONTZAK

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu edo info@ttipi.eus helbidera idatzi beharko du.

KONTATU KONTUAK



'Uda garai akustikoa' Arantzan. Uztailearen 4az geroztik, asteburuero-asteburuero *Uda garai akustikoa* egitasmoaren baitan kontzertuak egiten aritu ziren Arantzako Aterpean, segurtasun neurriak hartuta eta edukiera mugatuarekin. Udako kontzertu zikloa abuztuaren 29an borobildu zuten, Trikidantz taldearen emanaldiarekin.

Kontatu, kontatu!

Baduzu ospakizun edo ateraldiren baten berririk eta argazkia erakutsi nahi zenuke? Zerbait ikusgarria aurkitu duzu eta horren berri ematea gustatuko litzaizuke? Edozein argazki erakutsi nahi duzula ere, bidali!

Posta elektronikoa edo Whatsapp

Bidali mezua info@ttipi.eus helbidera edo whatsapppez 744 484361 zenbakira, eta idatzi nork, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ttipi-Ttaparen egoitzan

Etor zaitetz TTIPI-TTAPAREN bulegora: LESAKA, Koskontako bidea, 07-1.

URTEBETETZEAK



Doneztebeko **Irai Lopezek** irailaren 29an 4 urte beteko ditu. Zorionak eta besarkada handi bat familia guztiaren partetik, bereziki Oier anaiairen partetik.



Zorionak Donamariako **Arene Otxandorena Zubillagari!** Irailaren 16an 6 urte bete dituzu. Muxu haundi bat familia-aren partetik. Segi beti bezain sorgin.

erran.
eus en
ORDAINKETA



Urtebetetzeak edo **Merkatu Ttikiko iragarkiak BIZUMekin** ere ordaintzen ahal dira orain.

BIZUMarekin ordaintzera ohituratu baldin bazaude, orain **ERRAN.EUS**en ere erabil dezakezu BIZUMA.

Horretarako, on line erosketetarako gakoa beharko duzu. Oraindik ez baduzu, zure bankuko aplikazioan eska dezakezu.

Gero, erosketa egiterakoan, SMS bat hartuko duzu berrespen-kode batekin.

Zenbaki hori ordainketa-leihoan sartu eta ordainketa amaitu beharko duzu.

Zerbitzu hau dagoeneko erabilgarri da **CaixaBank**, **KutxaBank**... eta laster gainerako banketxeetan ere eskuragarri egonen da.

PLAZAN BAZAN



ENGAINAGARRIAK



Hamar zati hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta bertze erdiak engainagarriak dira, hau da, arrunt antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



BILATU

Bada gauzatxo bat irudian, inolaz ere agertu beharko ez lukeena, garai hartan asmatu gabea zelako. Zein ote da?

|| + |



Pertsonaia honen eta irudi nagusiko bere bikiaren artean dauden aldeak aurkitu behar dituzu. Hamabi dira guztira.

MARRAZTU

Horral Momia gaixoa erdizka marraztuta dago. Osa ezazu, faborez.



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK
-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61
info@ttipi.eu | erran.eus

www.ttipitxartela.info

765 aleko irabazleak ➤



ZOZKETAK

- Donostiako aquariuma - 2 sarrera**
Ixone Goia Arretxea | LESAKA
- Onddo eta punto - Kamiseta bat**
Angel Mari Erregerena Mortalena | ERRATZU
- La Rhune - 2 sarrera**
Izaskun Santesteban Baleztena | ZUBIETA
- Wow park - 2 sarrera**
Amaia Aranguren Errazkin | ARANTZA
- Irrisarri land - 2 sarrera**
Jesus Javier Sagastibeltza Zestau | LEITZA
- Zugarramurdiko Lezeak - 2 sarrera**
Maria Mutuberria Martikorena | ELGORRIAGA
- Ttartalo - lote 1**
Jose Manuel Ormart Juanikotena | ELIZONDO
- Ttartalo - lote 1**
Maite Iriarte Yanci | NARBARTE

DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com



2 sarrera

BUATXABAL
www.buatxabal.com




Kamiseta bat

LA RHUNE
www.rhune.com/eu



2 sarrera - Heldu bat eta gazte bat

Wow Park
wowpark.fr



2 sarrera

BKZ ABENTURA
www.navarraaventura.com



2 sarrera

ASTIZKO LEZEAK
www.mendukilo.com



2 sarrera

MUSIKA



SKAKEITAN
'Nota galdu denbora'



MAD MUASEL
'Vualah!'

MAUKA
MUSIKAGINTZA

www.maukamusik.com

LA GUNTZAI LEAK



www.airakamusic.com



www.navarraaventura.com